



# ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 31



## LANA BAI BAINA LANGILEAK FALTA

Lan faltarik ez dute, baina langileak falta dituzte. Lanbide aunitzetan langile eskasia arazo bihurtzen ari da. Eskualdeko zazpi enpresatako ordezkarien testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. / 10

FREEPIK



**Idoia Ibarboure**  
beratarra  
Nazioarteko Filosofia  
Olinpiadetan / 16



**Elgorriagako Josu**  
Arrieta R.M. Azkue  
Literatura Sarietan  
irabazle / 46

**Herencias y Gestión**

 Mugat gairako herentzien onarpena

 Giza segurantzaren pentsioen eskaintza

 Herentzian lotutako gatazketen bitartekaritza

**Eta... Errenta-aitorpenak egiteko zerbitzua**

Santiago 55, ELIZONDO  948 59 67 11 - 610 40 18 36  
[www.herenciasygestion.com](http://www.herenciasygestion.com) • [herenciasygestion@gmail.com](mailto:herenciasygestion@gmail.com)



# Nafarroako Artisautza feria

**Ekainak**  
20, 21, 22, 23

**Gaztelu Plaza**

**10:30 - 14:30**  
**17:30 - 21:30**



**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidades  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

## Drone zerbitzuak



### Dronearekin sortutako edukiak

Kalitatezko irudiak  
behar duzunerako

- Publizitatea
- Argazkiak
- Film laburrak
- Turismoa
- Eraikuntza lanak...



Dronearekin egindako  
irudien edizioa eta  
muntaiak aukeran







NIRE TXANDA

HARITZ BERAU MUTUBERRIA

## Ernai itozeko saiakera

Azken berrietan jakin dugunez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Ernaiko 133 kide salatu ditu Mozal Legearen bidez, Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazte arabarren espetxeratzeko aginduaren aurkako zenbait ekimenetan parte hartzeagatik. Lakuak Ernaiko kideen aurka harturiko jarrera ez da nolana izan, 290.500 euroko isuna ezarri baitie protesta horietan parte hartzeagatik.

Mozal legea bere jatorritik errepresiorako tresna eta jardun politikoa ekonomikoki itozteko jaio bazen ere, oraingo honetan bertzelako dimensio bateko eraso baten aitzinean gaude, ekimenetan parte hartutako kide guztiak isundu baitituzte. Gazteria antolatua itozteko erabakia erabat politikoa izan da, hau guztia segurtasun sailean prestaturiko estrategia interesatu baten ondorioa izan baita.

Bizitza honetako injustizien kontra altxatzen diren eta eskubide sozial, zibil eta politikoen defentsan jarduten dutenei babes osoa. Ezker abertzalea ahultzeko negarren saiakera honi elkartasunez erantzunen diogu. Gora Ernai!

«INJUSTIZIEN  
AURKA ALTXATZEN  
DIRENEI BABES  
OSOA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Bakoitzaren gauak

*Egunak denonak dira. Gauak, aldiz, bakoitzarenak. Eta norberak egin behar die aurre. Bakar-bakarrik.* Karmele Jaioren *Musika airean* liburuko pasarte hau irakurtzean Gazako umeengana joan zait pentsamendua: egunsentiaren argia ikusiko duten itxaropenez eginen dituzten ametsak, biharamuna ere bezpera bezain ilun izanen dela jakitun.

## NABARMENTZEKOAK



ROSARIO  
ERASUN  
ERREKAK OMENDUA



IÑAKI  
GOGORTZA  
HILBERRIA

Errekaren Egunean omenduetako bat izan da Rosario Erasun. Urte aunitzez kiroldegiko langilea izan da, eta elkartaren alde egindako lana eskertu nahi izan diote.

Maiatzaren 30ean zendu zen Berako zein eskualdeko hamaika herri mugimendutan urte aunitzez lan nekazinean aritutako Iñaki Gogortza Billabona.

## GIBELERA BEGIRA



2011-11-10 · TTIPI-TTAPA · 554 zk.

## Amaia Etxeberriarekin menopausiaz

Menopausia izan zen duela 10 urte 616. aleko protagonista, eta horretaz mintzatzeko Amaia Etxeberria erizainarengana jo zuen TTIPI-TTAPAK. Azaldu zuenez, menopausiak ez zuen zertan «traumatiko» izan: «Norberaren izaeraren eta hartzen ditugun zainketa neurrien arabera da», nabarmendu zuen. Batzuetan kanpoko laguntza beharrezkoa izan daitekeela ere azaldu zuen Etxeberriak. Menopausia garaian dauden emakumeentzako hainbat gomendio ere eman zituen: «Norberak bere burua maitatzea eta etapa honetan ere bizitza disfrutatzen da aholku nagusia. Biziaro honek ere bere alde polita dauka, esperientziak erakutsi diguna praktikan jarri. Gorputza eta burua zainduz, gure nahi eta gogoetara errazago iritsi gaitezke».

erran.  
eus

**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantza  
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione  
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberriarrai, Maialen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

**Fundazioaren Presidentea**  
Paskual Rekalde  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia

**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko  
udalak, Malerrekako Zerbitzuen  
Mankomunitatea.

**2024ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi  
eta Malerrekako 47€  
Leitza 40€  
Hego Euskal Herria 50€  
Ipar Euskal Herria, Europa 110€  
Amerika eta Australia 155€



## KOLABORAZIOAK

MIKEL RODRIGUEZ LANDA

## Oiartzuar gazte haiek

1859an, Oiartzungo herriko etxean zozketa bat egin behar zuten erabakitzeke herriko zein mutil bidaliko zituzten Espainiako armadarekin Rifera gerrara, Afrika iparraldera. Gazte talde batek, ordea, zozketako paperak barrenean zituen kutxa hartu, eta harrika bota zuen. Ondotik, mendira ihesi egin zuten. Antonio Zabala idazle tolosarrak *Afrika'ko Gerra (1859-1860)* liburuan bildu zuen pasadizoa, Antonio Pirala XIX. mendeko historialari espainiarra iturrizat hartuta.

Espainiako Gobernuak probintziak probintzia kintatara deitu zuen milaka soldaduko armada bat biltzeko. Nafarroa Garaiak bazuen legezko obligazio hori, baina Araba, Bizkai eta Gipuzkoak ez, foruetan oraindik eutsi egin baitzioten kinten salbuespenari —gerra etxean zutenean bakarrik deitu behar zituzten—. Hala ere, hiru diputazioek pentsatu zuten foruei mesede eginen ziela boluntarioz osatutako espedizio militar bat bidaltzeak. Leopoldo O'Donnell Espainiako Gobernuko buruzagi zen jeneralak kanpaina nazionalista bortitz bat sustatu zuen gerraren alde, eta, giro horretan, diputazioek ondorioztatu zuten hiru probintziak paso eginez gero, aitzakia emanen zirela Madrilgo agintariari foruak gehiago ahultzeko, beldur baitziren egoistatzen edo traidoretzat seinalatuko ote zituzten, bertze probintziak Espainiarengatik sakrifikatzen ziren bitartean.

### «EZ DITZAGUN BAKARRIK UTZI HURRENGO EUSKAL GAZTEAK...»

Zer gertatu zen, ordea? Ezin lortu behar adina boluntario. Gazteek gogo gutti zuten ezagutu ere egiten ez zuten jende baten lurretara joateko tiroak ematera; eta, gehienbat, tiroak hartzera. Baina Espainiarekin ongi gelditzeke espedizioa bai edo bai bidali behar zenez, diputazioek zozketa bidez kintetara deitzeko ideia izan zuten. Eta, hor, Gipuzkoako agintariak segidan ohartu ziren Oiartzungo gazteek zozketaren kutxa xehatuta egin zutena ez zela okurrentzia huts bat; herriz herri gauza bera egiten hasten ahal ziren. Horregatik, Gipuzkoako komandante nagusiak proposatu zuen soldadu talde batekin joatea mendira oiartzuar horiek bila. Agintari zibilak, ordea, kontra agertu ziren, militarrek erabiltzeak Gipuzkoan matxinada bat-edo sortzeko arriskua ekarriko zuelakoan, eta bertzelako manerekin jokatzera erabaki zuten: alkatea eta herriko jendea bidali zituzten mutilen bila, menditik jaitsi zitezen konbentzitzeko. Baita lortu ere, eta, behin herrira bueltan, Manuel Somoza Espainiako Gobernuak Gipuzkoan zuen ordezkariak jendaurrean umiliatu omen zituen, koldarrak izatea leporatuta. Eta, hala, gazte horietako batzuek izena eman omen zuten *boluntario* gerrara joateko. Hortaz, ez intsumisiorik, eta ez matxinadarik: oiartzuar gazteak bakarrik utzi zituzten agintari gerrazaleen aitzinean.

Gaur egun, Parisko eta Madrilgo kantzilertzetan gero eta mai-zago erraten dute gerra uste baino hurbilago dugula, eta prest egon behar dugula. Oraingoan, ez ditzagun bakarrik utzi zozketen kutxak xehatuko dituzten hurrengo euskal gazteak, eta Espainiarekin eta Frantziarekin ongi gelditu nahi duenak doaiela bera urrutiko lurretara tiroak ematera eta hartzera.



XABIER MARITORENA ZUBIETA

## Bestaz besta

Herrietako bestak hasi zaizkigu dagoeneko. Batzuk nahiago izanen dute egun argiz herri batera baino gehiagotara joan, kontzerturen bat ikusi edo arratsalde pasa hurbildu. Zorionez, herri bakoitzak denbora luzez egindako lana disfrutatzen ahalko dugu, gehienetan debalde. Bertze batzuk ordea, gazteak eta ez horren gazteak normalean, hango eta hemengo bestetara mugitzen hasiko dira, gaua lagun eta helduen begiradetatik eskapo ongi pasatzeko intentzioarekin.

Afera da ongi pasatze horrekin zer konprenitzen den. Besta giroan dena justifikatua al dago? Gehienok ergelkeriaren bat edo bertze egin izanen dugu besta giroan eta ondoko egunean, edo adin batean aitzinerat joan garenean behinik behin, gure buruendako «urde ilupe, zetako in zuken hoi?» pentsatu izanen dugu. Izan sobera edateagatik, izan kartera galtzegatik, izan kotxea behar ez den kondizioan hartu izanagatik, edo izan bertze arrazoiren batengatik.

Besta giroan zer kontsumitzen den aldatzen ari da. Ni ez naiz inor epaitzeko. Batzuk nahiagoko dute droga legalen batzuekin ase, alkoholarekin eta tabakoarekin, eta bertze batzuk nahiagoko dute ez legalekin besta egin. Besta egun puntualetan egiten da eta bakoitzaren erabaki pertsonala modu zentzudunean hartzen bada hor ez dago arazorik. Arazoa sortzen da izan batekin edo bertzearekin noraino harrotzera ailegaten ahal den.

Mespretxuko begiradak edo komentarioak, gehienetan sozialki guttiago direnen kontura. Arraza ezberdinekoarendako, estereotipoak segitzen ez duen pertsonaren kontura edo orientazio sexual ezberdina duenaren kontura sarri. Handikeria ere gizon edo *kakagixon* batzuen partetik ere sortzen dira uste dutenak emakume batekiko eskubidea osoa dutela zernahi erran edo egiteko, baita bere hitzak bertze bati deserroso sentiarazteko erabiltzen dituztenak ere.

Egoera horietan da ezin garena isildu eta ezagutu edo ez ondoko pertsona hori, sufriarazten ari diren pertsona horri eskua luzatu behar zaio. Lekuz kanpo dagoena ez da eraso hartu duena, erasotzailea baizik. Aski da bi pertsona horien artean jartzea, erasotzaileari bizkarra ematea edo egoerak eskatzen badu ostalariarengana hurbildu eta zer gertatzen ari den azaltzea. Musika gelditu eta erasotzailea jendartearen begiradapean gelditzen bada bestagunetik lekutuko da. Bertzeak duen jarrera ez hartu, ez harrotu, egindakoarengatik ebidentzian utzi eta bestagirosano batean lekurik ez duela sentiarazi. Akaso pertsona horrek zer bait ikasiko du, edo akaso ez, baina behintzat espazio aske bat lortuko dugu eta hori, denon ardura da.



## 11 GALDERA LABUR

AINTZANE LEIZA SARASOLA LEITZARRA SALDIASEN

## «Saldiasko festak herrikoiagoak dira, lasaiagoak»

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Saldiasen bizi den neska leizarra, alaia eta 3 haurren ama.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Musika entzutea, irakurtzea, lagunekin elkartzea eta familiarian planak egitea eta disfrutatzea.

**Zein izaten da zure jarduerarik gustukoena?**

Orain Landetan bungalow bat alokatu dugu eta astebururo hara joaten gara familiako bostak.

**Zenbat urte daramatzazu Saldiasen bizitzen?**

2014an etorri nintzen, duela 10 urte.

**Aldaketa handia izan zen?**

Izugarri handia. Leitzan saltokiak eta tabernak eskura daude, lagunekin kafe bat

hartzera ateratzeko aukera nuen, erosketak egunean egiten nituen... hemen ez dago aukerarik; erosketak egiteko herritik atera behar zara. Gainera, hasieran bakarrik nengoen, bikotekidea lanera joaten etxean gelditzen nintzen, ez nuen lagunik... gogorra izan zen. Baina denborarekin dena aldatu da eta oso gustura nago orain.

**Herriko festak izanen dituzue laster. Zer nabarmenduko zenuke?**

Herri guztia kalean egoten diren egunak dira. Denek parte hartzen dugu ekintzetan eta herri bazkaria izaten da momentu politenetakoa, giro aparta izaten da.

**Zer dute Saldiasko festek Leitzakoek ez dutenik?**



Festa oso desberdinak dira egitarau aldetik eta jende kopuruaren aldetik. Saldiasko festak herrikoiagoak direla esanen nuke, lasaiagoak.

**Eta alderantziz?**

Niretzako bereziagoak dira Leitzakoak: egitarau zabala dute, gustu askotara egokitzen diren ekintzak dituzte... eta betiko lagunak han izateak beste berezitasun bat ematen die festei.

**Guraso bezala desberdin biziko dituzu festak, ez?**

Bai, gaueko parrandaren orde eguneko parranda egiten dut orain. Lehen nahi nuen ekintzetara mugitzen nintzen eta orain, berriz, txikiek agintzen dute. Festa lehen baino nekatuago bukatzen ditut.

**Zure asmoak epe motzera?**

Irakaslea izanik, ikasturtea gustura bukatzea eta udan familiarekin eta lagunekin disfrutatzea.

**Eta epe luzera?**

Ez dut asmorik burutan; eguneko bizitzea gustatzen zait.



1951tik  
*Casa Cambra*  
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi-azal nordikoak



## IRAKURLEAK MINTZO

### Iñaki Gogortza 'Botxo' Gure lemazain nekazekin eta lagunaren omenez

INES MATXIARENA

BERAKO EH BILDU UDAL TALDEAREN IZENEAN

Iñaki, zure haurtzaroa Leitzaldean eman zenuen. Hamabi urte zenituela, aingirak arroltzeak paratzeko egin ohi duen bezala, Ezkurra erreka beheiti bidea hartu eta Bidasoari segituz itsasorainoko bidea egin zenuen Irunen aterpe hartuz. Han pasatu zenuen gaztaroko lehenbiziko zatia. Ondotik, berriz ere Bidasoa errekan goiti itzuli zinen, oraingoan izokinak egin ohi duen eran, korrontearen kontra, Beran kabia eraikitza. Zalain auzoan hartu zenuen ostatua Liria bidelagun maitearekin batera. Harreman horren ondorio etorri ziren bi semeak, Asier eta Ibai. Hantxe, Botxo ostatuan, bezeroei ostatu ematen eraiki zenuen lanbidea erretreta garaia ailegatu arte. Beti zuzen eta atsegin egin zenuen lan eta oroitzapen hori gelditu zaigu Botxo ostatuan bezero izan ginen guztioi.

Baina, lanaz aparte, bertze hamaika zereginetan ibili zinen Iñaki. Gazte-gaztetatik erakutsi zenuen arlo sozialean laguntzeko nahia eta grina. Herriaren alde eta beharra zuten guztiei laguntza ematen nabarmendu zinen. Beran bidegile eta herrigile izan zara, batez ere. Zurekin bidelagun izan garenok, ezagutu eta miretsi zaitugu zure argitasuna, patxada eta lanerako ahalmenarengatik. Pausoak mantso, baina begirada luzeko gizona izan zara. Norabidea galdu gabe eta etorkizuna usainduz, zure inguruan eraikitzen joan den lantaldeentzako lemazain maitekor eta errespetatua izan zara. Euskaltzale sutsua, Bortziritako euskara mugimenduaren zutabe sendoa izan zara eta Euskara Mankomunitatearen diseinatzaile nagusietako bat, utzi gaituzun arte. Miresgarria eta ordaindu ezina arlo horretan egin duzun lana.

Eta bertze hamaika arlotan ere utzi duzu arrastoa zure bizitza oparoan. Bihoztez muinetaraino abertzalea, Euskal

herri batua, sozialista eta euskaldunarekin egin zenuen amets. Ezker abertzalearen jarraitzaile eta bultzatzaile izanik, miresgarria da zuk egindako lana mugimendu horretako erakundeetan. Zaratarik atera gabe, lan isila eta jarraituaren zalea izan zara beti, eta zure ondoan aritu garenok ongi ikusi dugu zuk egindako lan ikaragarria. Mugimendu eta talde aunitzetan hartu duzu parte: udal taldean, presoan aldeko borrokan, Espidobaita elkartearen proiektua lantzen, etorkinen aldeko laguntza sarean eta, nola ez, pentsionisten mugimenduan.

Gizon xumea, zintzoa, argia, langilea, herrigilea eta nekazekina. Bidelagun paregabea izan zara zure ondoan egon garenontzat. Inoiz ez dugu ahantziko zure lanerako grina eta gogoia, zure patxada eta lasaitasuna eta zure irribarre goxoa. Aingirak Bidasoan beheiti eta izokinak Bidasoan goiti ibiltzen diren bezala, zure pentsamendua ere horrela irudikatzen dugu, Bidasoarekin batera dantzan, goiti eta beheiti. Izan ere, zure pentsamenduek gurekin segituko dute. Ongi zainduko ditugu. Agur eta ohore, Iñaki. Lagun kuttun eta lemazain aparta izan zara. Baina ez adiorik, gure bihotzetan gelditu da betiko zure oroimena eta zugandik hartutako maitasuna. Zuzen segituko dugu zuk eraikitako bidea!

### Bozketa sistema justu baten alde

MIREN INDA JORAJURIA ETA IDOIA BEREAU SEIN

LANDAGAIN ESKOLAKO ZUZENDARITZA TALDEAREN ETA KLAUSTROAREN IZENEAN

2023-24 ikasturtea bukatzen ari den honetan, hurrengo ikasturteari dagozkion erabakiak hartzen hasiak gara. Buruilarren 2an eskolara itzultzen garenean, jardunaldiaren aldaketa sumatuko dugu.

Hilabete batzuk pasa dira eskolako jardunaldi mota aukeratzeko prozesuari bukaera eman zitzaionetik. Gaiak eskualdeko zenbait eskolatan eragin handia izan du eta honek zenbait eskola eta familiatan eztabaida sortu du. Idazki honen bitartez, Landagain eskolako

klaustroak, gure familiek hainbertze esfortzu eskaini dion borroka honetan, babesa eta esker ona adierazi nahi dugu.

Lehenik eta behin, erran nahi dugu, Landagain eskolako boto emaleen % 65ak egin duela jardunaldi jarraituaren alde, baina Foru Aginduak erroldatuak kopuruak aintzat hartzen dituzenez, datu hori guztiz baliogabetu duela. Horri, bozketa sistema batean hain zilegi den 'boto zuriak' bere balioa galdu duela gehitu behar zaio, boto zuriak jardunaldi zaituaren aldera bideratzen baitzuen bere balioa. Honekin, gehiengo handi baten nahia errespetatzen EZ dela argi ikusten da.

Erroldatuak % 60ra ez ailegatzek, alegia, datorren lau ikasturteetan, gehiengoaren nahia errespetatzen ez duen eta orain arte urtero berritu den jardunaldi bat izatera derrigortzen gaitu.

Bertzetik, aipatu nahi dugu, Foru Aginduak hala ezarrita, erroldatuak botoen % 60ra ailegatu ez zirenez, Eskola Kontseilua, eskolako organo gorena dena, hitzik gabe utzi dela, prozesua bertan behera utziz. Hezkuntzari buruzko 2/2006, maiatzaren 3ko Lege organikoak bere 126.9 artikuluan dioena betetzeari utziz: Eskola Kontseilua eskola komunitatean intzidentzia berezia duten erabakietan parte hartu behar du.

Azkenik, Foru Aginduak eskatzen duen erroldaren % 60ko baldintza hori, 2007an esperimentalki jardunaldi jarraituan hasi nahi zuten ikastetxeentzat jarri zen, baina gaurko egoera ez da berdina.

Honekin loturik, aipatutakoa aldarrikatuz, jardunaldiak arautzen dituen 106/2023 Foru Aginduko zazpigarren xedapen gehigarrian adierazten den salbuespena ikuskaritza atalean eskatu dugula adierazi nahi dugu.

Guk ere, familiek eskatzen duten bozketa justu eta demokratiko baten aldeko babesa ematen dugu; baldintza berdinetan, familia bakoitzak jardunaldi zaitua edo jarraitua nahi duen aukeratzeko eskubidea izan dezan. Babesa aitortu eta bozketa sistema justu baten aldeko aldarrikapena eginez.



# Zaindu maite duzun hori...

## Kalko ustelak

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### \*'Tontoa egin' edo 'tontoarena egin'?

Erdararen kalko desegokia da **\*tontoa egin**. Horren partez, tontoarena egin behar du.

Genitiboa —ena egin esapidean zehazki— izenik gabe ere erabiltzen da, eta euskal modu bere-bereak sortzen ditu:

- Zoroarena egin (zoroaren itxurak egin).
- Gaztearena egiten duten zaharrak.

Euskaltzaindiaren arabera, aditz-partizipioarekin eratuak ere ugari dira. Ez ikusi/ikusia/ikusiarena egin, ez entzun/entzuna/entzunarena egin, ez ezagutuarena egin eta gisako esapideak:

- Ez ikusiarena egin nuen.
- Aitaren errietari ez entzunarena egin

Aditz-izenean (-t(z)e) oinarritutakorik ez dago. Alegia, antiojoak ongi paratzearena egin gisakorik ez dago. Horien partez, honelakoak erabiltzen dira: Antiojoak ongi paratzeko imintzioa (keinua, planta(k)) egin z(it)uen.

Bide batez, erdararen kalko desegokiak dira hauek:

- **\*Ez ezazu txorimaloa egin** > Ez ezazu txorimaloarena egin.
- **\*Beti zabilta tontoa egiten** > Beti zabilta tontoarena egiten.
- **\*Ez ibili pailazoa egiten** > Ez ibili pailazoarena egiten.

## Hieroglifikoa

Nola erraten diote erlauntzari gure eskualdeko hainbat herritan?

E +  + I>U



## Nola erran?


### Erlamando, erlezain...

Euskaltzaindiak erraten duen bezala, hitz batzuk *erla-*formarekin dira: erlama, erlamando, erlategi, erlatoki, erlauntza... Eta bertze batzuk *erle-*formarekin dira: erle(-)belar, erle(-)hazkuntza, erlekume, erlezain... Hiztegira jo beharra dago bakoitza nola den jakiteko.

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

 744 48 43 61

## Ehun urtez Larhunengo goiti eta beheiti

Ekainaren 30ean beteko dira 100 urte Larrungo Treinak lehenengo bidaia egin zuenetik. 100 urteetan Ipar Euskal Herriko lekuri bisitatuenetakoa bihurtu da eta urtean 330.000 turista inguru hartzen ditu. Tontorrean eta inguruko herrietan ospatuko dute mendeurreneko asteburua

### A. LARRETXEIA SARA

100 urte. Menduerrena beteko du ekainaren 30ean Larrungo Treinak. 100 urte lehenengoz Sarako San Inazio Lepoa Larhuno tontorrekin lotu zuenetik. Geroztik aldatu da mundua, aldatu da natura, aldatu da ingurua, baina trena berdin mantendu da. Oraindik ere berdinak dira lehenengo tren haren egitura, bideak eta bagoiak, eta duela 100 urte bezala egin daiteke trenez bidea Larhuno kaskoraino. Trena hartzen duenak ordu erdiko bidean 100 urte gibelera eginen ditu naturan bidea egin.

### Tontor garrantzitsua

Inguruko herritarrentzako tontor garrantzitsua izan da Larhun historikoki. Sarako, Azkaineko, Urruñako eta Berako lurretan dago, eta Pirinioetako lehen tontortzat hartu izan dute aunitzek. Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko muga ere markatzen du tontorrak eta historikoki artzaintzarako leku aberatsa izan da. 1575. urteko paperetan ageri denez, ordurako ermita bat eraikia zegoen 905 metroko altuera duen tontorrean. Gerora, 1680. urtean eraberritu egin zuten, eta uda sasoiari apai-za ere egoten zen tontorrean bertan artzaintzan aritzen ziren artzainei doktrina erakusteko. Frantziako iraultzaren altxamenduan hondatu zuten kapera.

Betidanik izan da tontor garrantzitsua, baina, Eugenia de Montijo, Napoleon III.aren

emazte izan zenari zor zaio gaur egun Larhunek duen fama. 1859ko ekainaren 30ean igo zen tontorrera Miarrizetik zalgurdian abiatuta. Zalgurdiekin ezin, eta mando gainean ailegatu zen Larhuno tontorrera, bidean Sarako

herritarrekin gosari egin, eta Berako hainbat herritar lagun zituela. Ttunttuna eta txirularen hotsarekin, fandangoa dantzatu zuela diote, eta igoera horren omenez, gaur egun oraindik ere tontorrean ikusteko aukera dagoen obe-



Hainbat turista trenean artxiboko irudi batean. UTZITAKOA



Berriki moldaketa lanak egin dituzte treneko errailak aldatzeko. UTZITAKOA

**KREMAILERA  
ESTILOKO TRENAK  
LOTZEN DITU SARA  
ETA LARHUN**

**URTEAN 330.000  
LAGUN IGAITEN  
DIRA TRENEZ  
TONTORRERA**

liskoa eraiki zuten. Bultzada handia eman zion tontorrari, eta mende erdi berandua Sarako hiru gaztek sustatu zuten trena eraikitzea.

Geroztik, milaka dira urtero Larhuno tontorrera igozen diren herritarrak zein turistak. Horietako aunitz, trenez. Jenofa Zubiri Larrungo Treinaren arduradun komertzialaren hitzetan, «urtean gaur egun 330.000 lagun igozen dira Larhuno tontorrera, gehienak udako sasoiari, nahiz eta trena azaro hasiera arte irekita dagoen». Tontorrak ere badu berezitasunik, hiru benta baitaude bertan, baita emisiorako antenak ere.

### 1924an bukatu

1912. urtean hasi zituzten San Inazio Lepoa eta Larhun lotuko zituen trena eraikitze-lanak. Zubirik kontatu duenez, de Montijoren bisitak sustatuta, turismoa indarra hartzen hasi zen eskualdean, eta Larhuno tontorra fama hartzen hasi zen, baina, oinez egiten zuten bertarako bidea. «Hiru gaztek izan zuten kremaileko trena eraikitze-ko ideia zoroa, garai horretan horrelako asmoak zorrotzat hartzen baitziren». 12 urtez aritu ziren lanean, tartean 1914. urtean leher-tutako Lehen Mundu Gerra tarteko, lanak geldituak izan ziren bostz urtez.

Geldialdiaren ondotik, 1919an berrekin zituzten eraikuntza lanak eta hamar urte behar izan zituzten lanak burutzeko. Tartean, 1924ko urtarrilean istripua izan zen. Lurrunezko lokomotorako gurgil hozkatua kremaileatik atera zen, eta 100 metroz erori zen, eta une batez kolokan ere izan zen proiektua. Hala ere, aitzinerako segitu eta azkenerako, apirilaren 25ean lehen zatia estreinatu zuten, Hiru Iturrietara arteko bidea, eta ekainaren 30ean egin zuen lehen aldiz gailurrerako bidea.

905 metroko altuera du Larhuno gainak, eta batza





Gaur egun duela 100 urteko itxura mantentzen du trenak, eta egurrezko bagoiak ditu. SUPERBASS/WIKIMEDIA

beste %17ko malda dauka. Horregatik, kremaileira sistemako trena da bertakoa, sistema horretako trenak bakarrik igo baititzake hain pen-diz handiak. «Hemen aski aldapa azkarrak ditugu. Tren klasiko bat ezin da Larhuna-rra igo, %6 arteko maldak igotzen ahal ditu, eta hemen %24 arteko maldak daude», dio Zubirik.

#### Kremaileira sistema

Baina zer da kremaileira sistema? Azalpen tekniko eman du treneko arduradunak: «Bi errail daude, eta bi errail horien artean, erdian, horzdun errail bat dago. Tren bakoitzaren lokomotoraren azpian, bada gurpil horzdun bat eta

hori engaiatzen da erdiko errail horretan. Horri esker igaiten ahal dira malda aski azkarrak». Trena hartzen denetik tontorrera 4,2 kilometro bidea dago, eta 35 minututan egiten da, bederatzik kilometro orduko abiaduran.

Trena hartzen denetik, tontorrera ailegatzen den arte, gainera, duela 100 urteko funtzionamendu berbera da, eta hori da trenaren bereizgarri nagusia. «Hori da gure

**MENDEURRENA  
OSPAZTEKO  
HAINBAT EKITALDI  
EGINEN DITUZTE**

berezitasuna», nabarmendu du Zubirik. «Lehenagoko argazki zaharrak eta oraingoak begiratzen ditugularik ikusten da ez dela batere aldatu, berdinak direla. Higatuak diren piezak eta egur puskek aldatuak dira, baina, kanpotik arrunt berdinak dira», nabarmendu du.

Horregatik, eta hasierako itxura mantentzeko urte osoan egiten dituzte mantentze lanak. «Dena kontrolatu behar

**TURISTENTZAKO  
EZINBERTZEKO  
ESPERIENTZIA  
IZATEN DA TRENA**

da, eta urte osoan 20 langile aritzen gara eta udan gehiago. Neguko hilabeteean he-tsiak egoten gara eta hor egiten dira lanik handienak, baina, urtean zehar errepa-satzen dira, eta urte guztiz badira kontrolak eta egite-koak». Berriki gainera, tren-bide guztia berritu dute. 1912an, lanak hastean jarri-tako errailak zeuden oraindik, eta horiek denak aldatu eta moldaketa lanak egin dituzte.

#### Ezinbertzeko bisita

Urteen poderioz, indarra hartzen joan da trena bera, eta gaur egun Ipar Euskal Herriko kostaldean turismoa egiten dutenentzat «ezinbertzeko» bisita bihurtu da Larhongo tontorra, zein trena bera ere. Zubirik azaldu duenez, bi arrazoik bultzatu dute trena gaur egun turistentzat hain erakargarri izatera. «Lehen da biziki autentikoa dela, trenak naturan bidaia bat erakusten du, eta trenean igotzea denbora beste mende batean gibelerara egitea bezala da, bidean gaudelarik bada lasaitasun bat sentitzen dena». Bigarrena aldiz tontorretik dauden «bis-tak» dira. Hodeirik gabeko egun argi batean, Euskal Herriko zazpi probintziak ikusten ahal dira, baita, Pirinioak, eta Gipuzkoako eta Lapurdi-ko kostaldea ere.

#### Egitarau berezia

Ekainaren 30ean, igandea, beteko dira 100 urte trenak lehenengo bidaia egin zutenetik tontorrera. Horregatik, urteurrena ospatzeko egitarau berezia antolatu dute mendeurrenako asteburuan Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eta Sarako Herriak. Egitaraua ekainaren 17an aurkeztuko dute, eta xehetasun denak eta ekitaldien informazioa zehatza [erran.eus](http://erran.eus) atarian zein hurrengo TTIPI-TTAPAn irakurtzen ahalko duzue.

## Lana badute baina langileak falta dituzte

Lanbide batzuetan langileak harrapatzeko zailtasunak dituzte, eta hala berretsi dute TTPI-TTAPAREkin bildu diren enpresetako kideek. Urteekin «lana eta lan baldintzak aldatu» direla diote, baina gisa berean, gazteek ez dute lanbide batzuetan ari nahi

### G. PIKABEA

Lan faltarik ez dute, baina langileak falta dituzte. Lanbide aunitzetan arazo bihurtu da langile eskasia. Jendeak, eta batez ere gazteek, ez dute lanbide batzuetan ari nahi, eta oro har, langileen bana bertzeko adina igotzen ari da ogibide horietan. Etorkizunera begira, errelebo falta arazo bihurtzen ahal dela ohartarazi dute sektorean lanean ari direnek.

Gaiari tiraka, eskualdeko hainbat enpresatara jo du



Lanbide batzuk erreleborik ez izateak hutsunea sortzen ahal du etorkizunearan. FREEPIK

TTPI-TTAPAK lekukotasun bila: Peritza tabernako Mikel Zabaleta Alzurik, Javier Ibarra Eraikuntzak enpresako Javier Ibarra Irazokik, Sasoi Eraikuntzak enpresako kudeatzailea den Asier Viela Irungaraik, Zurekin Diseinuak dendako Itsaso Bereau Maziziorrek eta Luis Ibarra Irazokik, Matxako Iturgintzako Igor Lasaga Telletxeak, Talleres Santestebaneko eta Doneztebe gasolindegiko Pablo Elizondo Gelbenzuk eta Benta Peioko giza baliabideen departamentuko kideek euren esperientzia kontatu dute. Denek berretsi dute langileak harrapatzeko arazoa ez dela sektore jakin bateko kontua, arazoa orokorra dela diote. Urteotan «lana eta lan baldintzak hobetu» direla ere gaineratu dute, baina emateko arazoari irtenbidea emateko beharraz aritu dira. Bertzeak bertze, gazteak erakartzeko premia agerian utzi dute.

### «Urteotan bentetako lana aldatu da eta lan baldintzak oraindik gehiago»

#### BENTA PEIOKO GIZA BALIABIDEEN DEPARTAMENTUA

1996az geroztik aisialdiko erosketara zentrotu da Benta Peio, «familia enpresa bat, bere eboluzioaz, ondareaz eta enpresa osatzen dugun talde osoaz harro dagoena». Euren asmoa «inguruko familientzako garapen ekonomiko eta sozialeko bide iraunkorra erakitzea da, bezeroei kalitate goreneko zerbitzuak eskainiz, eta mugako garapen ekonomikoan lan egiten segituz».

Benta Peiok dituen sektore guzietan, hau da, «supermerkatuetan, ostalaritzan, salmentan eta bulegoetan» lana badela diote giza baliabideen departamentuko kideek, baina batzuetan zailtasunak izaten dituzte langileak bilatzeko, «batez ere, urte osoan lan egin nahi dutenak kontra-

tatzerakoan. Udan lan egin nahi duten langileak, aldiz, badira». Hala ere, «nahiz eta zailtasunak izan, gure lan beharrak betetzea lortzen ari gara».

«Pandemiaren ondotik» sumatu dituzte langileak harrapatzeko arazoak, eta zailtasun horien arrazoiak «lan merkaturan gero eta aukera gehiago izatea, familia kontziliazioa eta zerbitzua astelehenetik igandera ematea» izaten ahal direla uste dute. Honela gaineratu dute: «Arazoa orokorra da lan merkaturan, baita gure sektorean ere». Beraienean lana «ez dela gogorra» ere adierazi dute, «ez bertze lan aunitz baino gehiago. Bezeroen joan-etorriaren arabera da, asteburuetan eta opor



Benta Peioren Dantxarineko denda.

garai batzuetan biziagoa da, baina momentu horietan plantilla indartzen da lan karga orekatzeko».

Adinari dagokionez, «adin guzietako langileak» dituztela kontatu dute: «Udan edo asteburuetan lan egiten dutenak hagitz gazteak dira, baina badira enpresan erretiroa hartu arte lanean aritzen diren langile aunitz ere». Hortik aparte, urteotan bentetako

lana «aldatu» dela aipatu dute, eta esplikatu dutenez, «lan baldintzak oraindik gehiago aldatu dira. Lana erraztu da eta batez ere ordutegiak hobetu dira». Horren seinale, Benta Peion, «lau egun segidan lan egin eta bi egun libre» izaten dituzte.

Heldu denari begira jarrita, sektoreari «etorkizun ona» ikusten diote: «Aukeraz eta aldaketaz betea izanen da». Eta gehiago ere erran dute: «Benta Peio hazten eta etengabe hobetzen ari da, eta egunetik egunera langileei lan baldintza hobek eskaintzen dizkie. Langileekin konpromisoa eta ardura duen enpresa da, eta lan egonkortasuna, garapen profesionalerako aukera, prestakuntza, janaria eta garraioa eskaintzen ditu». Bide batez, deia ere egin dute: «Lan egiteko gogo baldin baduzu bidali zure curriculum».



## «Ofizio hauek ikasten dituen gazte gutti dago»

**PABLO ELIZONDO GELBENZU** T. SANTESTEBAN ETA DONEZTEBE GASOLINDEGIA

«Langileak harrapatzeko zailtasuna hagitz arazo larria eta orokorra dela uste dut». Hala xe mintzatu da Pablo Elizondo Gelbenzu doneztebarrak. Eta gehiago ere erran du: «Edozein enpresarekin solasatzen bazara, sektorea edozein izanda ere, gauza bera aipatuko dizute».

Badaki zertaz ari den, horixe baitute etxean egoera. Bi negozio dituzte Elizondoren familian: Alde batetik, «1974an sortu zen Talleres Santesteban, tailer mekanikoa eta Renault eta Dacia marken agentzia ofiziala». Eta bertze aldetik, «1998an irekitako Doneztebe Gasolindegia dugu, hasiera batean independentea izan zen eta ondotik, Avia

markaren barrenean hasi ginen».

Negozio bateko eta bertze egoera diferentea dela onartu du Elizondok eta «bi enpresak desberdinu» nahi izan ditu: «Gasolindegian lan egiteko profila segur aski orokorragoa da eta pixka bat errazagoa da langileak bilatzea». Asteburuetan izaten omen dituzte zailtasunik handienak: «Gasolindegia asteburuetan irekitzen dugu eta hori oztopo haundi samarra da, batez ere gazteendako». Hala ere, «azken bi urteotan langile berriak bilatzea» tokatu zaiela aipatu du, «aitzinekoak jubilatuta zirelako». Eta kontent dira hutsuneak betetzea lortu dutelako: «Doneztebekoak



Pablo Elizondo doneztebarraren familian bi negozio dituzte.

bertakoak harrapatu ditugu, horietako bat emakumea, eta alde horretatik arrunt kontent gaude».

## «LANGILEAK HARRAPATZEKO ZAILTASUNA ARAZO LARRIA DA»

Tailerrean, ordea, bertzelako martxa dute, eta gaineratu duenez, «puskaz zailagoa» da langileak harrapatzea: «Horrelako ofizioak ikasten dituen gazte gutti dago. Mekanikan gutti dira eta txapan eta pinturan oraindik guttiago». Horregatik, hain zuzen, lanbideari «etorkizun ilun samarra» ikusten diola adierazi du doneztebarrak.

## «Jendeak ez du ofizioetan ari nahi, fabrikara joan nahi du»

**IGOR LASAGA TELLETXEA** MATXAKO ITURGINTZA

Duela 35 bat urte bere aitak sortu zuen enpresa, eta orain dela 21 urte hantxe hasi zen Igor Lasaga Telletxea beratarra iturgin. Azken hamar urteotan, bere gain du Matxako iturgintza enpresa. Berarekin batera, bertze lau langile ditu eta lana badutela dio. Bertze ofizio aunitzetan bezala, langile faltarekin dituzte arazoak. Bere hitzetan, «batez ere iturgintzan dakien jendea edo aritua dena harrapatzea zaila da. Aritu gabeko langilea bada, baina hor ere ez sobera. Hala ere, nire kasuan, behar nituenak harrapatu ditut».

Langileak harrapatzeko arazo hori «azken urteotan aunitzez handiagoa» dela esplikatu du: «Garai batean, lanean arituta ikasitako jendea izaten zen; gerora iturgintza ikasketak zituen

jendea sartu zen, eta gaur egun, gure ofizioan hasten diren gazteen profila ikasi nahi ez dutenena da. Fabriketan ikasketak eskatzen dituzte, eta ikasi nahi ez duten aunitzek ofizio hauek harrapatzen dute lana».

Adinari lotuta, bere kasua kontatu du: «Urte aunitzez obrako gazteena izan naiz. Gaur egun, lau langileetatik bi ni baino hamar urte zaharragoak dira, eta bertze biak gazteagoak. Baina ez dira ofizialak, laguntzailak izanzen dira, baina bertze la, ofizialak falta dira». Gehiago ere erran du: «Gure enpresan iturgin ari garenak orain dela 20 urteko enpresen pixarrak gara. Garai batean hiru enpresatan aritzen ginen eta orain bakoi-tzeko hondarrak bildu gara».



Lasagak 21 urte daramatza iturgin, eta azken hamar urteotan, bera da nagusia.

Orokorrean, «jendeak fabrikara joan nahi du» bere ustez: «Jendeak ez du ofizioetan ari nahi». Baina «lana ez dela gogorra» azpimarratu du, eta gainera, urteekin «lan egiteko modua aunitz erraztu dela, bitarteko gehiago ditugu». Horrekin batera, «segurtasuna hobetu» dela adierazi du, baita «lan baldintzak hobetu» direla ere. Bertzeak bertze, «ordutegia pixka bat egokitu dugu. Orain ortzirale

eguerdira arte aritzen gara; lehen larunbat eguerdira arte».

Lanbidean «20 bat urteko hutsa» ikusten du: «Iturgintzan 40tik 65 urte bitarteko langilerik ez da falta. 45 urtekoa, 50 urtekoa, 55ekoa, 60koa... Denerarik harrapatuko duzu. Segida mantendu da. Baina 40 urtetik beheitikoen artean, huts handia dago. Egoera aldatzen ez bada, orain ari direnak jubilatzen direnean, ederki nabarituko da».

## «Txipa aldatzen ez badugu arazoa izaten ahal dugu etorkizunean»

**ITSASO BEREAU ETA LUIS IBARRA** ZUREKIN DISEINUAK

Orain dela dozena bat urte sortu zuen Luis Ibarra Irazoki zurginak bere enpresa, eta ordura arteko bideari segida emanez, 2022ko abuztuan ireki zuten berak eta Itsaso Bereau Mazi-ziorrek Zurekin Diseinuak dena. Eurekin batera, bertze langile bat dute eta «ekainean bertze bat» hastekoa dute. «Langileak bilatzea hagitz zaila» dela kontuan hartuz, «kontent» dira badutelako lanerako jendea.

«Zurgintzan aritzeko prest dagoen norbait harrapatzea» ez omen da batere erraza: «Egoera konplikatu da. Ofizio hauetarako ez dago ez langilerik, ez ilusiorik». Euren iritziz, «afizioa, motibazioa eta ikaste-gogoa» gakoak dira lanbide honetan, baina «jendeak sakri-

fiziorik gabeko lana nahi du, ongi ordaindua eta ahalik eta ordu gehien libre». Fabrikako bidea hartzea ohikoa dela gehitu dute: «Zurgintza ikasten duten gazteak eta lana uzten dutenak, normalean, fabrikara joaten dira. Jendeak fabrikako ordutegia eta baldintzak nahi ditu, zortzi ordu txanda batean eta libre».

Ibarrari «betitik gustatu» izan zaiolako ikasi zuen zurgintza. «Segidan lanean» hasi zen, eta hala segitzen du, gustuko zereginetan: «Lan sakrifikatua izanen da, baina satisfazio handia ematen du». Ofizio honen alderdi positiboak «ez dira ikusten» euren ustez. «Baloratzeko bertan egon behar da. Jendearentzat erosoagoa baldin bada makina baten aitzinean zortzi



Bereauk eta Ibarrak 2022ko abuztuan ireki zuten Zurekin Diseinuak denda.

orduz aritzea, horren kontra ezin da deus egin. Norbere erabakia da. Baina txipa aldatzen ez badugu, eta gazteek ofizio hauek zerbait txarrarekin lotzen segitzen badute, etorkizunean arazo bat izaten ahal dugu». Lana badutela ere gaineratu dute, «gure aurreikuspenak onak dira», eta aunitzetan langile faltari «orduak sartuta» erantzun izan diote: «Asteburu aunitzetan

lanean arita. Lana aitzinera atera nahi baduzu, eta ez bada langilerik, ez da bertze aukerarik». Garai batetik honat zurgin lana aldatu dela ere aipatu dute: «Lehen gogorragoa zen. Badi-ra esfortzu gehiago eskatzen duten momentuak, baina orokorrean gauzak aldatu dira», tartean lan baldintzak: «Langileak behar badituzu, lan baldintzak hobetu behar dituzu».

## «Gaur egun ia inork ez du eraikuntzara dedikatu nahi»

**ASIER VIELA IRUNGARAI** SASOI ERAIKUNTZAK

Gaur egun, «gehienbat Nafarroan eta Gipuzkoan obra publikoetan» aritzen da Sasoi Eraikuntzak enpresa, hau da, administrazioarendako lanean: «urbanizazioak, lur mugimenduak, ur hornidurak, saneamenduak, mendiko lanak...». Baina «partikularrendako lanak ere ez ditugu baztertuak» Asier Vuela kudeatzailearen arabera. 48 langile dira eta «momentu hobeak eta txarragoak» izan dituzten arren, gaur-gaurkoz «ez dugu lan faltarik».

Kontatu duenez, «azken boladan langileak harrapatzea zaila da». Krisi denboratik sumatu dute joera hori: «Krisi handiena 2014tik 2016ra izan zen. Tarte horretan enpresa eta lanpostu aunitz desagertu ziren eta jendea fabriketara eta ber-

tze lanpostuetara joan zen. Geroztik ez da lehengora bueltatu eta gero eta zailagoa da langileak harrapatzea. Gaur egun, ia inork ez du eraikuntzara dedikatu nahi».

Langileak harrapatzeko zailtasun horien gibelean «hainbat faktore» daudela uste du Vielak eta horietako bat «fabriketan eskaintzen dituzten baldintza hobeak» direla aipatu du: «oporrak; ordutegi aldetik lanaldi jarraitua; lantoki bera urtea osoan. Eraikuntzan gaur toki batean zaude eta bihar bertze batera joan beharra dago; soldatak... Euria, hotza edo beroa izan, egun guzira kanpoan lan egin beharrak ere ez du laguntzen». Eta hala, eraikuntzan ari direnen bana bertzeko adina «goititzen» ari dela ohartarazi



Sasoi Eraikuntzak enpresako bulegoko lantaldea lanean.

du. Gehiago ere bai: «Bertakoek ez dute nahi eta sortzen diren lanpostu berri gehienak atzeritarrek hartzen dituzte».

Momentu honetan, lantaldea handitzeko intentziorik ez dutela gaineratu du, eta «esku lan gehiago» behar izan dutenean, «bertze enpresetako lan zerbitzuak azpikontratatu» dituztela dio: «Hala ere, arazoak izaten dira, denak lanpetuak dabilzailako. Horrek, bertzeak bertze,

epeetan eragina du». Gainerakoan, honela adierazi du: «Eraikuntza lana ez da desagertuko, beharrezkoa delakoz, baina egokitu beharra dagoela argi dago, langileak erakarri nahi baditugu. Hori da sektorean parte hartzen dugun guziok dugun eronketako bat». Sasoi enpresan, adibidez, «azken boladan hartutako neurrietako bat ortzilarre arratsaldeak libre izatea izan da».



## «Gero eta guttiago gara eta zerbait egiteko premia handia da»

JAVIER IBARRA IRAZOKI JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

«Etxebizitzak, zaharberitzeak, teilatuak, komunak, sukaldeak, lurzoruak, harri lanak...», orokorrean «mota guzietako eraikuntza lanak» egiten dituzte Javier Ibarren enpresan. «Ttikitatik gustuko» izan duen lanbidearen aldeko apustua egin zuen; eta «obra zibilean hasi, eta hortik eraikuntzara» egin zuen salto. Duela hamabi urte sortu zuen enpresa eta sei langile dira gaur egun. Lana badela aitortu du, «bada klase guzietako lana gainera; lan ttikiak, handiak, kanpokoa zein barrenekoa».

«Lan faltarik ez», baina langile falta bai. Hori da panorama orokorra. «Arazo handia» dela dio Ibarrek: «Pertsona kualifikatuak eta ez kualifikatuak kontratatzeke zailtasunak ditu-

gu». Ez omen da oraingo kontua: «Urte batzuk daramatzagu arazoarekin eta gehiagora doa».

Langile faltaren giblean arrazoi bat baino gehiago izaten ahal direla uste du. Batetik, formazio zentro baten beharra nabarmendu du: «Eraikuntza sektorean, gure alderdian zehazki, formazio zentro baten falta izaten ahal da arrazoietako bat. Gazteei zerbitzua ematen duten lanpostuetan formatzeko aukera eman behar diegu. Izan ere, eskuragarri ez badaude, ezinezkoa izanen dugu sektorerera erakartzea». Eta beretako, «gazteak sektorerera erakarri behar ditugu: formatzeko eskola hurbil, lanbidea zehaztasun gehiagorekin ezagutzera eman...». Bertetik, «lan baldintzen inguruan sekto-



Javier Ibarra Irazoki sunbildarrak duela 12 urte sortu zuen eraikuntza enpresa.

reak duen etiketa» aipatu du: «Orduetegi zatitua, kanpoan lan, esfortzu fisikoa... Horrek ez du laguntzen». Horren harira, «eraikuntza mundua hobetu» dela esplikatu du eta beraiek ere «egoerara egokitu» dira: «Gaur egun baliabide mekanikoak ditugu lan fisikoa laguntzeko», eta gisa berean, «langile faltak egokitzapena eskatzen du eta gure enpresan kontziliazio bal-

dintzak, ordutegi aldetik sartzeko eta ateratzeko malgutasuna, ortzirale arratsaldeak libre, hitzarmenak ezarritako ordainketak gainera... ditugu».

Etorkizunari begira jarrita, zerbait egiteko beharraz aritu da: «Gero eta guttiago gara iruditzen zait eta eraikuntzan ari direnen bana bertzeke adina altua da. Zerbait egiteko premia handia da».

## «Pandemia ailegatu arte curriculumak ekartzera etortzen ziren baina orain ez»

MIKEL ZABALETA ALZURI PERITZA TABERNA

«Pandemia ailegatu arte gazteak curriculumak ekartzera etortzen ziren, baina orain ez didate urte osoan bat bera ere uzten». Halaxe kontatu du Peritza tabernako Mikel Zabaletak. 2003an zabaldu zuen taberna eta egun lauzpabost langile ditu plantillan. Lan faltarik ez dute: «Taberna eta jatetxe pila bat ixten ari dira, baina guk lana beti ongi egin dugu eta orain gehiago ari gara. Gainera, herrian ez dago aukera handirik». Egoera bestelakoa da langileak behar direnean.

Onartu duenez, «parrandaren bat dagoenean ez dut arazorik izaten langileak harrapatzeko, baina egunerokoan edo asteburuetan aritzeko bilatzea ez da erraza». Honela dio: «Jendeak ez du lan mota hauetan sartu nahi, fabriketara edo funtzio-

nario izateko edo ikasketekin zerikusia duten bertze lanei begira dago, eta ez da erraza langileak lortzea, ez ostalaritzan, ez beste gremioetan».

Bere hitzetan, «Euskal Herrian ostalaritza beti bidenabar egin den lanbidea izan da, ikasketak bukatu edo fabrikatik deitu arteko lana. Nagusientzat ez, baina gainerako langileentzat nahiko ofizio ezegonkorra izan da. Zentzu horretan ez dut aldaketarik sumatu». Baina beste alor batzuetan aldaketak izan direla dio, besteak beste, gazteen artean: «Gure garaian edozein gazte aritzen zen zerbitzari edo beste edozein lanetan orduka, baina gaur egun ez. Eta ordu batzuk sartuta jornal polita ateratzen ahal da». Ostalarien artean ere gauzak



Mikel Zabaletak 2003an ireki zuen Peritza taberna Leitzan.

aldatu dira bere ustez: «Garai batean, ostalariak sakrifizioa asumitua zuten, egunero irekitzen zuten, asteburuetan, festetan, inauterietan... Urte osoan irekitzea normala zen. Orain, berriz, gero eta gehiago dira egun edo ordu batzuetan tabernak ixten dituztenak. Lasaiago bizitzearen aldeko aukeraketa nabaritzen da». Berak «astelehen eta astearte arratsaldetan» ixten ditu taber-

nako ateak: «Langileak falta nituen momentu batean hasi nintzen ixten. Gaur egun langile guziak hor ditut, baina horrela segitzea erabaki dut. Berriki, hamabortz egunez ere itxita eduki dut. Langile falta izan dugu eta txandak aldatzen ibili beharrean, itxi eta oporrak hartu ditugu. Negozioa zurea da eta zerbitzu ona eman nahi duzu, baina ezin dugu egunero-egunero lanean ari».

## Altzateko bestak ospatuko dituzte asteburuan

Larunbat goizean Gure Txokoak antolatutako BTT probaren XXX. edizioa egingen dute

### A. LARRETxea

Ortziralean hasi eta igandera arte, besta giroan murgilduko da Alzate karrika. Auzoko bestak ospatuko dituzte, eta egitarau zabala prestatu dute.

Ortziralean hasiko dira bestak 20:00etan botako duten suzi-riarekin. Ondotik, erraldoiek eta buruhandiek karrikabuelta egingen dute txistularien laguntzarekin. 22:00etan Ozpinduk taldearen kontzertua izanen da Uraldea karrikan eta 23:00etan techno gaua izanen da DJ Azulverderekkin Ikuilu ostatuan.

Biharamunean izanen du segida bestak. 09:30ean XXX. Mendi Bizikleta Ateraldia egingen dute. Gure Txokoak antolatu du proba, eta bi ibilbide izanen dira: haurrentzako 11 kilometrokoa eta helduena 31 kilometrokoa. Izen ematea aitzinetik [pb-organisation.com](http://pb-organisation.com) helbidean egiten ahal da eta bazkideek edo federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek edo federatuta ez daudenek 20 euro. Egunean berean izena emateko aukera izanen da 08:00etatik 09:00eta-

ra, eta kasu horretan 20 euro ordaindu beharko dira. Titkien lasterketan parte hartzen dutenek, 10 euro ordaindu beharko dituzte. Parte hartzaileek opari gisa aurtengo edizioarako espresuki prestatutako kamiseta hartuko dute oparizat eta kamiseta erosteko aukera ere izanen da.

BTT probaren ondotik, 10:00etan plater tiroketa izanen da eta 12:00etan poteoa akordeoilariekin. 14:00etan zikiro jatea izanen da eta 19:00etan Rock Kam Broom taldea karrikaz karrika. Eguna borobiltzeko 22:30ean zezensuzkoa aterako da.

### Igandean gehiago

Igandean, 11:00etan meza izanen da auzoko elizan. Ondotik, 12:00etan Merkatu plazan Gure Txokoako haurren dantza saioa izanen da eta ondotik gaiteroak eta erraldoiak aterako dira. 17:00etan haurrentzako Dose-kilibrados Txuri & Potx emanaldia izanen da, eta baita ikastolako taloak ere. Bestak bukatzeko Auskalo taldearen emanaldia izanen da 21:00etan.



UTZITAKOA

## Itzea auzoko bizilagunak auzolanean

Maiatzaren 22an hamabortz bat lagun elkartu ziren Itzean auzolanean aritzeko. Zubiak eta erreka inguruak garbitzen aritu ziren gehienbat, eta Itzea etxetik Truneko bordako bidea ere txukundu zuten. Hamaiketako batekin borobildu zuten lana. Luze gabe, berriz elkartuko dira hasitako lanak bukatzeko.



SAIZ PHOTOS

## Emaitza bikainak Irati Trailen

Ekainaren 1ean egindako Irati Trail lasterketan emaitza bikainak lortu dituzte herritarrek. Emakumeen kategorian bigarren sailkatua izan da Maddalen Jimenez, eta hirugarren Ane Eltzaurdia. Lasterketa berean jokutzen da Orhiko igoera, eta Eltzaurdia bigarren postuan sailkatu da, eta Jimenez hirugarrenean.

Akuler karrika, 12  
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARRDA)  
+34 848 85 00 21  
info@asadormontxo.com

Eztegara, 18 - BERA ☎ 848 410 115

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN  
facebook  
www.facebook.com/ttipi.ttapa

F. LANCHAS  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaillea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



# Herri mugimenduan aritu den Iñaki Gogortza zendu da

Maiatzaren 30ean hil zen 71 urte zituela. Ingurukoek omenaldia egingen diote Otsandan hilaren 16an

## TTIPI-TTAPA

Berako eta inguruko herri mugimenduetan aurpegi ezaguna eta historikoa izan da Iñaki Gogortza Billabona, bere ingurukoek hitzetan «nekaezina». Maiatzaren 30ean zendu zen 71 urte zituela.

1991ko udal hauteskundeetan zinegotzi atera zen Berako HB taldearekin eta gerotzik, udal hauteskundeetako zereendatan aurkeztu izan da. Horrekin batera, Espidobaita elkartearen ibili da, baita presoen aldeko mugimenduan ere buru-belarri.

Kultur batzordean ere ibili da eta Lurraren Eguneko antolatzailea eta laguntzailea izan da. Euskara batzordean eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordean urteak eman ditu eta azken urteotan Osasun Bidasoa Plataforman eta Nafarroako Osasun Plataforman ere ibili da, bien arteko zubi lanak eginez. Baztan-Bidasoaldeko Pentsiodunen Mugimenduan ere aritu da eta Harrera Sarean ere lan handia egindakoa da.

Ekainaren 16an agur ekitaldia egingen diote lagunek Otsandan.

## Argindarraren faktura ulertzeko tailerra ekainaren 13an Bixtuberaren eskutik

### A. LARRETXEKA

BixtuBerak argindarraren faktura ulertzeko tailerrak antolatatu ditu. Lehenbizikoa ekainaren 6an egitekoa zuten eta bigarrena ortzegunean izanen da, hilaren 13an, Beralandetan 18:30ean. Merkatu elektrikoa ulertzeko gakoak eta etxeko

faktura elektrikoa ulertu eta energia aurrezteko eta kontsumo arduratsua egiteko aholkuak emanen dira. Bonu sozialaren abantailaz ere informazioa emanen da. Nahi duenak etxeko faktura eraman ahal izanen du, zalantzak argitu eta aholkuak hartzeko.

## Fernando Mikelarenaren hitzaldiak ekainaren 21ean eta 29an

### A. LARRETXEKA

Fernando Mikelarena Peña herriko historiagileak hainbat hitzaldi emanen ditu heldu den asteetan. Maiatzaren 31n eman zuen lehenengoa, eta 2. errepublikak Beran izan zuen eragina izan zuen mintzagai. Bigarrena, ekainaren 21ean

izanen da 18:00etan Beralandetan, eta 1936ko udan Beran izandako gertakariak aztertuko ditu. Azkena, hilaren 29an izanen da, larunbata, 19:00etan Beralandetan eta Larhun mendia inguruan 1924an eta 1925ean izandako gertakariak izanen ditu abiapuntu.

## Dozenaka haur elkartu dira Berako XXIX. Dantza Ttiki Egunean

### A. LARRETXEKA

Zaldibiako, Tolosako eta Lezoko dantzariak elkartu ziren ekainaren 1ean Berako Dantzari Ttiki Egunean. Eguraldia kaxkarra tarteko, kalejira auzoz auzo egin beharrean, Eztegaran elkartu eta bertan dantzan aritu ziren haurrak. Ondotik,

musikariaren laguntzarekin karrikabuelta egin zuten eta Merkatu plazan eta Toki Onako estalpean egin zituzten emanaldiak.

Bazkaldu ondotik, Jaiki Hadi taldearekin erromeria izan zuten eta dantzan aritu ziren haurrak.



Eztegaran, Merkatu plazan eta Toki Onako estalpean aritu ziren dantzari.

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria  
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

BERO S.L.  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Bera.  
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 50 65

**Guillermo LARRAÑAGA doktorea**  
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera  
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507

# «Esperientzia ezin hobea izan da filosofia olinpiada»

IDOIA IBARBOURE TOKI-ONA INSTITUTUKO IKASLEA

Finlandian egonaldia egin du berriki Toki Ona Institutuan batxilergoko bigarren maila bukatu berri duten Idoia Ibarboure. Nazioarteko Filosofia Olinpiadetan lehiatu da bertan

## A. LARRETXEA

Filosofiarekiko maitasunak baino, kexarako duen afizioak bultzatu du Idoia Ibarboure berriki Finlandian jokaturako Nazioarteko Filosofia Olinpiadetan lehiatzera. Espainia mailan egindako kanporaketan aukeratutako bi ikasleetako bat izan da, eta egun batzuetako egonaldia egin du Finlandian olinpiadak jokatzeko. Filosofia lantzeaz harago, mundu osoko ikasle aunitz ezagutzeko aukera ere izan du.

### Nolakoa izan da Finlandiako esperientzia?

Espero nuen gustura egotea eta jendea ezagutzea, baina esperotakoa baino hagitzeko hobea izan da. Jende hagitz jatorra ezagutu dut. Dena ez da filosofia izan, irteera aunitz egin ditugu ingurua ezagutzeko eta jendearekin harremanak egin eta lagunak egiteko aukera handia izan dugu. Esperientzia ezin hobea da, eta mila aldiz errepikatuko nuke.

### Nolakoa izan da bertara joateko prozesua?

Espainian aukeratua izateko prozesua nahiko sinplea izan da. Gelan geundela, Mikel Etxalar filosofiako irakaslea etorri zitzaigun. Gelan Iparraldeko gurasoak ditugun bi ikasle gaudete eta aipatu zigun filosofia mintegira proposamena ailegatu zela Nazioarteko Filosofia Olinpiadetan parte hartzeko. Testu bat egin behar genuela erran zigun, 2.000 hitzekoa, ingelesez edo frantsesez. Gaia:



Finlandiako esperientzia «ezin hobea» izan da Ibarbourearentzat. TTPI-TTAPA

ekologia, demokrazia, animalien eskubideak...

### Zeri buruz idatzi zenuen?

Nire tesia zen berriz ere fokua giza eskubideetan paratuz gero, eta gehiago aldarrikatuz gero, ekologia, animalien eskubidea eta demokrazia hobetuko lirartekeela. Martxoaren 10erako eman behar zizkiguten emaitzak eta, azkenean, bi egun beranduago erran zidaten. Ez nuen sinisten aukeratua izan nintzela.

### Bakarrik egin duzu bidaia?

Bai. Espainiako delegazio gisa lau pertsona joaten ahal ginen, bi ikasle, delegazioko burua eta irakasle bat, eta nirekin batera joan den Kataluniako ikaslearen irakasle joatea erabaki zuten. Nire ustez irakas-

lerik gabe joanda esperientzia hobea izan da, bakarrik joanda aunitz ireki naizelako. Joan-etorrirako lau hegazkinetatik hiru bakarrik hartu nituen, eta lehenengo aldia nuen bakarrik bidaiatzen eta pixka bat urdu-ri egon nintzen.

### Zein izan da Finlandian osatu beharreko ariketa?

Lehiaketan 2.000 hitzeko testu bat idatzi behar genuen lau ordutan. Beraiek aukeran lau aipu eman zizkiguten, eta ho-

«HASIERAN EZ NUEN SINISTEN AUKERATU NINDUTELA»

rietako bat aukeratu eta jorratu behar genuen. Nik aukeratu nuen aipua gerra eskubideari buruz zen. Nik giza eskubideen auzia lantzen segitu nuen, erranez gerra eskubideak giza eskubideak hausten dituela, eta nahiz eta gerra batzuetan justifikatzen ahal diren kausengatik egiten den giza eskubideak haustea, ez dela bidea eta ez dagoela ongi, eta hagitz makiavelikoa iruditzen zaidala zentzu txarrean.

### Frantsesez egin duzu proba. Nola moldatu zara?

Nire aita Iparraldekoa da eta frantsesa betidanik aditu dut. Gainera, DBHko 3. maila Iparraldean ikasi nuen, eta beraz, ez da hizkuntza arrotza niretzat. Baina, idaztea... Nik ulermena hagitzeko landuagoa dut idaztea eta solastatzea baino. Egia erran behar badut, uste baino hobe moldatu nintzen.

### Aunitz prestatu duzu olinpiada?

Batxilergoko bigarren maila egin dut, eta argi nuen nahia go nuela batxilergoan zentratu lehiaketan baino. Ez dut sobera prestatu, libururen bat irakurri dut. Joan bezperan filosofiako irakaslearekin elkartu eta eskema bat prestatu zidan. Argentinako neska batek kontatu zidan bi hilabete oso izan dituela proba prestatzeko. Gure prestaketa bertze herrialde batzuetakoekin alderatuta, ez zen hainbertzekoa. Beraiek benetako lehiaketa gisa bizi zuten, eta niretzat zerbait gehigarria zen, benetako onura esperientzia osoa izan da, ez han saria irabaztea.

### Nondik heldu zaizu filosofiarako gustua?

Han filosofian benetan interesatuta zegoen jendea zegoen, filosofia ttikitatik irakurtzen zutenak. Nire kasuan, nire interesgarria iruditzen zait klasean lantzen duguna, baina filosofiarekiko maitasunagatik baino, kexatzeko dudana afizioagatik da. Badakit nola kexatu, eta gustatzen zait jendeak ni entzutea, eta solastatzea, eta badut interesa gai politikoan inguruan.





Irabazleetako batzuk sariak eskan sari banaketa ekitaldian. TTIPI-TTAPA

## Bertsopaper lehiaketako sariak Bortzirietara

76 lan hartu dituzten aurten Baztan-Bidasoko bertsopaper lehiaketan. Maiatzaren 24an banatu zituzten sariak

### A. LARRETXEKA BERA

A mailan, Berako Izadi Lasaga Agirrek eskuratu du lehen saria *Pozabertso* sortarekin. Bigarren saria, Lesakako Olhain Plaza Maiarentzat izan da *Gernikako puzlea* bertsogaatik.

B mailan, Berako Enaitz Zes-tau-Telletxearentzat izan da lehenengo saria *Korrika* lanagatik. Bigarren saria, aldiz, Lesakara joan da eta Maialen Ormaetxea Errok irabazi du *Zalantzak* lanarekin.

C mailan, bi sari eman behar-reen, hiru sari ematea erabaki du epaimahaiak. Lehen postua Kattin Madariaga Apao-

laza aranztarrak lortu du *Potola baten bizitza* izeneko sortagatik eta bigarren postuan Igantziko Luken Urtxegi Urrak aurkeztutako *Topagune* lana saritzea erabaki dute epaileek. Kategoria horretan Iraun Zes-tau-Telletxea beratarra ere saritzea erabaki dute *Lau ur-taroak* izeneko lanagatik.

Helduen mailan azken urteetan sariketa irabazi duen Eneko Fernandez Maritxalarren lana saritu dute aurten ere, *Zuria beltz, beltzazuri* izeneko. Bigarren saria ere Lesakara joan da, eta Ane Telletxea Igoak lortu du *Hor gu* sortarekin.

## Bortzirietako kultura eta aniztasunaren besta giro ezin hobean ospatu dute

### TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25ean Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasun besta ospatu zuten Beran. Herritarrek elkar ezagutzeko eta gozatzeko parada izan zuten, giro alaietan, euskara erdigunean, gurera bizitzera heldu diren herritarrek dakarten aniztasuna aitortuta.

Hasteko, ongi etorria egin zieten Berara bizitzera joandakoei, eta ondotik bisita gidatua egin zuten. Gure Txokoako dantzariak dantza ikastaroa eman zieten, eta Euskal Herriko, Kataluniako,



Herritarrek janari dastaketan.

Dominikar Errepublikako, Argentinako, Ekuadorreko eta Brasileko jaki eta edari goxoak dastatu ahal izan zituzten bertaratuek. Bukatzeko, La Jodererarekin dantzan aritu ziren.

## Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak bi solasaldi antolatu ditu ekainean

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak bi solasaldi antolatu ditu ekainerako.

Horietan lehena Berako Beralandetan izanen da ekainaren 20an, ortzeguna, 19:00etan. Lehenik *Festa dezagun geroa* dokumentala ikusiko dute, eta ondotik, solasaldia izanen da Asier Arizkorreta Emagineko kidearekin.

Bigarren solasaldia *Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada da* izenpean egingen dute. Ekainaren 28an ospatzen den

LGTBI+ harrotasunaren egunaren baitan antolatu dute eta Lesakan izanen da hilaren 26an.

Lehenengo zatian sexologo batek sarrera teoriko bat egingen du, eta bigarrenetan, Naizen elkarteko guraso eta nerabe batek beraien bizipenak azalduko dituzte errealitate hori hurbiletik ezagutzeko.

Lesakako herriko etxeko pleno aretoan izanen da 18:00etan eta adin txikikoen zaintza zerbitzua 722 69 30 78 zenbakian eska daiteke ekainaren 23a baino lehen.

# Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18  
31730 IRURITA  
arotxa.taller@gmail.com  
www.arotxataller.com

## GARAJEKO ATEAK | **HORMANN** banatzaile ofiziala

## TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza

Eguzkiak babestu toldo batekin

## Udako solstizioko besta eginen dute ekainaren 23an

Ohiko egitaraua prestatu du Euskara Batzordeak eta 50 urte bete dituen Tantirumairu ikastolak piztuko du sua

### AITOR AROTZENA

Udako solstizioko edo San Joan bezperako besta eginen dute aurten ere ekainaren 23an, Lesakako Euskara Batzordeak antolatua. Gutti goiti-beheiti ohiko egitaraua izanen dute Plaza Zaharrean.

Honela, igandean 19:00etan Bortzirietako Bertso Eskola-koak eta Lesakako triki-pandero jotzaileak ariko dira, kantuan eta musika jotzen. 19:30ean Lesakako Euskara Batzordearen adierazpenaren irakurketa eta sua piztea, tobera soinuen laguntzaz. Tantirumairu ikastolak 50 urte bete ditu ikasturte honetan eta ikastolako ordezkariak izanen dira sua piztuko dutenak. 20:15ean ezpata dantzari-entsegua suaren inguruan eta txistulariak. 20:30ean herri afaria izanen da, norberak

eramandakoarekin. 21:30ean Bizphiru Pelau taldearekin dantzaldia. Ogitartekoak eta edaria egonen dira, baita taloak ere.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ez dira suaren inguruan gerta daitezkeen istripuen arduradun izanen eta su handia 9 urtetik goitikoentzat izanen dela oroitarazi dute.

**Musika bandaren kontzertua**  
Bertze aldetik, egun berean, 12:00etan kontzertua emanen du musika bandak Eskol-Ttiki gibleko aparkalekuan (eurria eginen balu frontoian). Emanaldiaren oinarria musika banda izanen bada ere, herriko bertsolari-ek, dantzari-ek, txistulari-ek, soinulari-ek, trikitixa taldeak, abesbatzak eta gaiteroek ere parte hartuko dute.

### 'Bortz aldiz hamar!' kurtso bukaerako besta ikastolan

Bortz aldiz hamar! goiburupean, kurtso bukaerako besta ospatuko du Tantirumairu ikastolak ekainaren 22an. 12:00etan haurren emanaldia eta *Gehiago dugu errateko* emanaldia. 13:00etan txotx musikatua eta 14:00etan bazkaria. Bazkalondotik, 17:30ean Andoni Ollokiegik kontzertua emanen du, doan. Bazkarirako txartelak (haurrek 10 euro, helduek 25 euro) ekainaren 14ra arte eskura daitezke Tantirumairu ikastolan, Oreka nutrizio dendan edo Izarra okindegian.

### Mugi kirol udalekuak eskainiko dituzte lehen aldiz

Mugi kirol udalekuak eskainiko dituzte lehen aldiz uzta-laren 29tik abuztuaren 16ra (09:30-13:30), 2010 eta 2016 urteen artean sortutakoentzat (biak barne). Ganix Arrutik eta Joel Gilek sortu dituzte, udalaren eta Beti Gazteren laguntzarekin, «baloreak eta kirola uztartuko dituzten udalekuak». Izena emateko epea ekainaren 27ra arte zabalik dago, *mugi udalekuak@gmail.com* helbide elektronikoaren bitartez. Hiru asteko prezioa 100 eurokoa da, bi astekoa 75 eurokoa eta aste batekoa 50 eurokoa.



LESAKAKO LIBURUTEGIA

### 'Larrosa bat Groenlandian' emanaldia

*Larrosa bat Groenlandian* errezitaldi musikatu ederra eskaini zuten maiatzaren 30ean liburutegian, Olatz Rojoren doinuekin eta Iban Garroren hitzekin. *Larrosa bat Groenlandian* olerki bilduma honekin Iruñeko XVII. Nazioarteko Poesia Saria irabazi zuen iaz Iban Garrok.

### Alkaiagako bizilagunekin bilera hilaren 17an

Auzoko saneamendua hobetzeko obrei buruz aritzeko Alkaiagako bizilagunekin bilera deialdia egin du udalak. Ekainaren 17an, astelehenean 18:00etan eginen dute Alkaiagako industrialdean dagoen Cederna Garalurren egoitzan, Zubiondo jatetxearen ondoan.

### Musika eskolaren kontzertua eta matrikulazioa

Musika Eskolako ikasleek ikasturte bukaerako kontzertua emanen dute ekainaren 13an, ortzegunean, 18:00etan, Harriondoan. 2024-25 ikasturterako matrikula ekainaren 14ra arte egin daiteke (abuztuaren 26tik irailaren 4ra izanen da bigarren epea).



*regina tolosa*  
FISIOTERAPEUTA

*K-STRETCH* K-STRETCH

*Etorri eta probatu debalde!*

San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechepeare





XI. margo lehiaketa saridunak, epaimahaia eta antolatzaileak. BETI GAZTE



Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketa saritutako neska-mutikoak.

# Maria Maldonado irundarrak irabazi du XI. margo lehiaketa

Ezagutu Dezagun Lesaka eta Lesakako Bitxikeriak lehiaketetako sariak ere banatu ditu Beti Gaztek

## A. AROTZENA

Maria Maldonado Alconada Irungo margolariak irabazi zuen Elias Garralda zenaren omenen Beti Gaztek hamai-kagarrez aldiz antolatutako margo lehiaketako lehen saria (750 euro). Iruñeko Felix Flamarique Martinez artistak lortu zuen bigarren saria (400 euro). Etxeko margolariaren saria Rakel Arlegi Goienetxek lortu zuen, 200 euro. Haurrek ere parte hartzeko aukera izan zuten, hiru kategoriatan banatuak; A kategorian Gorka Etxarte Abuin izan zen irabazlea, B mailan Zuhatz

Oiartzabal Larralde eta kategoria ttikienean Unax Maia Larralde. Sariak Gurekin Lesakako Zerbitzu Elkarteak eman zituen.

## Lehiaketak

Beti Gazteren Astean bertze hainbat ekitaldi izan ziren. Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketa. A mailan, Lesakako Izarrak taldeak (Martxel Criado, Oihan Gajate eta Xabat Gajate) lortu zuen lehen saria, bigarrena Ibanke taldeak (Ibon Zelaieta, Aner Fagoaga eta Kemen Telletxea) eta Ortzadar taldeak (Oskia Telletxea eta



Lesakako Bitxikeriak sarituak.



Bizikleta ginkana ere izan zen.

Miren Garcia) hirugarrena. B mailan, Libe Irigoienek lortu du lehen saria, Olaia Irigoienek bigarrena eta Aitor Mutuberriak hirugarrena. C mailan, Maria Alzugarai lortu du lehen saria, Eneritz Etxeparek bigarrena eta Oier Deskargak hirugarrena.

Lesakako Bitxikeriak lehiaketa, lehen saria (lau lagunentzako otordua Kasinon) Aloña Etxarte Telletxeak lortu du; bigarren saria (Lesakako komertzioetan gastatzeko 100 euroko txartela) Izaskun Igoa Zigandak eta hirugarren saria (Otxuneko gazta bat) Jasone

Telletxea Maritxalarrek. Parte hartu dutenen artean Otxuneko gazta bat zozketatu dute eta Mari Lourdes Ayneto Telletxeari egokitu zaio.

Ekainaren 1eko bazkari herri bazkarian urteko tiralari eta futbol jokalarierregularranei sariak eman zitzaizkien. Sokatiran, Ainhoa Ubiria eta Ander Mitxelena izan ziren saridunak eta futbolekoan, Izaro Aldabe, Iñigo Etxegarai eta Josu Zubieta (jubenilak). Horretaz gain, jostintza tailerreko kideek ere Mari Yepes eta Begoña Alava irakasleak omenatu zituzten.



**Fernando Celaya**  
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com

## Usategietara XIV. Igoera ekainaren 22an egingen dute

Lasterketa 400 metro luzatuko da eta gaupasa izanen da Herriko Ostatuaren eta Elutsaren eskutik

### IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko Gaztik, udalaren eta Malerreka Motorsporten elkarlanaren emaitza da Usategietako Igoeraren 14. edizioa prest izatea. Ekainaren 22 goizean hasiko dira autoak plazara agertzen, egiaztatze teknikoak egiteko. 13:30ean itxiko da errepidea, igoera segurtasunez egin ahal izateko. 14:30ean emanen zaio hasiera lehenengo txandari eta jarraian 2 entrenamendu txanda eta bi txanda kronometratu ofizial izanen dira. Proba hau Nafarroako igoera

txapelketako proba da. Nafarroako Automobilismo Federazioaren [www.fenauto.com](http://www.fenauto.com) helbidean eman daiteke izena. Aurtengo bereizgarria, lasterketa 400 metro luzatu egin dela izanen da. Hasiera puntua lehen egiten zen lekura mugituko da, auzoko bidegurutzea pasatu eta berehala hasiko da. Gauean Elutsa eta Herriko Ostatuaren eskutik gaupasa izanen da. Antolatzailerak eskerrak ematen dizkiete babesle guztiei, bertzela ezinezkoa izanen baitzen igoera hau aitzinera ateratzea.

### Haurraren Eguna ortziralean eta igandean prest

**Ekainaren 14an**, 11:00etan Ipuin topaketa. 12:00etan, *Zazpi koloreak* proiektuaren aurkezpena 13:30ean erakusketa. **Ekainaren 16an**, 11:30ean ginkana, aurpegi margoketa eta eskalada. 13:30ean bazkaldu ondotik, magia ikuskizuna. 17:00etan merienda. 17:30ean jokoak.

### San Joan sua piztuko dute ekainaren 23an

Ekainaren 23an piztuko dute San Joan sua. 20:00etan afori-merienda. 21:30ean joareak joko dituzte eta gero suak piztea, musikariek lagunduta. Sorgin dantza egingen dute suaren inguruan. Edukiontzi bat izanen da eskola zaharretan papera eta kartoia biltzeko.



Gasna lehiaketako saridunak eta epaimahaiko kideak. IRUNE ELIZAGOIEN

## Urtsuko Jorge Arizaleak irabazi du Etxalarko XXXI. gasna lehiaketa

### I. ELIZAGOIEN

Ekainaren lehenengo asteburuan ospatu da Etxalarko XXXI. Gasna eta Artisau Feria. Ardi zakur lehiaketan Kortariko Bordako Julen Arburua izan zen txapeldun, *Ipar* zakurrarekin. Bigarren Roger Jauretche izan zen, *Pop* zakurrarekin. Hirugarren Marzel Hualde gelditu zen eta laugarren Aresoko Antonio Alustiza eta *Tiki* zakurra. Lana epaitzen herriko artzainak aritu ziren: Esteban Danboriena eta Jon Azkarraga. Artaldeak, berriz, Urtsua eta Lekueder baserrikoak. Egunari akabera emateko, herriko dantzari, musikari eta kantarien ikuskizuna izan zen frontoian. Herriko kondairetan murgilduz, hainbat etxalartarren eskutik bildu diren istorioak entzuteko aukera izan zen dantza, kantu eta doinu alaiez lagunduta.

Igandean izan zen egun nagusia eta 30 artisau postu baino gehiago izan ziren. Horrez gain, baserriko tresna zaharren erakusketa Iriondoan, eskulan ikastaroko lanak eskola zaharrean, trikitilariak eta ardi mozte erakustaldia izan ziren. XXXI. Altxata gasna lehiaketako irabazlea Urtsuko Jorge Arizaleta izan zen (trofeoa eta 150 euroko saria); bigarren Lesakako Otxuneko Agoitz Alzugarai (trofeoa eta 120 euroko saria) eta hirugarren Pello Pegnegui Orabidekoa (trofeoa eta 90 euro). Herriko gasnagileen artean Urritiko Axun Ozkariz izan zen lehenengoa (trofeoa eta 70 euro) eta Juanamari Arburua bigarren (trofeoa eta 50 euro). Bankako Menditarrek girotutako bazkariarekin eman ziztzaion amaiera jende aunitz ekarri zuen asteburuari.

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
[zubiondojatetxea.com](http://zubiondojatetxea.com)

**ELUTSA**  

EGUNEKO ETA  
ASTEBURUKO MENUAK

PINTXOAK - BOKATZE  
RAZIOAK

Anduetzeta, 13 - ETXALAR

T. 948 635 191

**USOA** kooperatiba

**50**  
urte  
1974-2024

☎ 948 635 214 ☎ 605 631 244

ETXALAR

**MARITX**

• INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK

• BOLETIN INDUSTRIA  
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA



## San Joan eguna eta bezpera prestatzen ari dira buru-belarri

Bezperako afari herrikoi eta autogestionatua berreskuratuko da eta egun handian bazkaria izanen dute Baratzondokoek

### ANA ETA ITZIAR

Sanjoanak ere hurbiltzen ari dira eta hasia da herrian su usaina sumatzen nonahi. Bezperan, ereiaroaren 23an, azken urteetan egin ez den afari herrikoi eta autogestionatua berreskuratuko nahi dute eta horretan ari dira lanean udala eta herriko elkarteak. Oraindik egitarau zehatza egitekoa bada ere, afaria autogestionatua, antzerkia eta nola ez, sua izanen dira frontoian. Xehetasun gehiago [erran.eusen](#).

San Juan egunean berriz, eguerdiko mezaren ondotik

urteroko bazkaria izanen dute jubilatuek Baratzondon 14:00etan. Ondotik, dantzan eta kantuan akautuko dute eguna, Joxe Angel musikari eta kantariaren eskutik. Uztaileko igandeetako mezak ere San Juan Xarren egingen dituzte eguerdian. Izen ematea ereiaroaren 14ra arte izanen da ohiko telefono zenbakietara deituta (Axuni, Iñakiri edo Tereri).

Biltoki Ttikiko gazteek ere, betiko gisan, kantina jarriko dute tragoxka bat egin eta ohiko erroskilak saltzeko.

## Igerilekuko udako denboraldiko bonuak eskura daitezke dagoeneko

Dagoeneko eskuragarri daude aurtengo igerilekuko denboraldirako bonuak. 18 urtetik goitiko herritarrek 50 euro ordaindu beharko dute sasoi osoko bonua (ekainetik irailera), 11-17 urtekoek 29 euro eta 4-10 urtekoek 19 euro. Kanpotarrek 79, 45 eta 30 euro

ordaindu beharko dituzte, hurrenez hurren. Eguneko ordaindu nahiago dutenek, egun osokoa, adin tarte bere-tan, 7, 5 eta 4 euro ordaindu beharko dute eta 6, 4 eta 3 euro egun erdikoa. Familia ugarietara guraso bakarrek %20ko deskontua izanen dute.

## Joana Iratzoki eta Nahia Almandoz NKJko txapeldun

Nafarroako Kirol Jokoetako eskuz binakako finalak jokatu zituzten Labriten. Infantil mailan txapeldun izan ziren Joana Iratzoki eta Nahia Almandoz eta alebinetan, txapeldunorde Ainara Hita, Ene-riz Muñoa lesakarrarekin batera.



Iratzoki eta Almandoz txapeldun.




UTZITAKOA

## Azken mus txapelketa Biltokin

Biltokik bukaera eman dio aurtengo mus-tximiztako denboraldiari. Bikote azkarki ibili da hamabortz egunetik behin. Maiatzaren 31n jokatu zen azken saioan 14 bikote aritu ziren eta Plaxen eta Javier Gerra izan ziren lehenbiziko saria etxeratu zutenak finala Txipi eta Juanjori irabazita.

## Iker Gonzalez Zegama-Aizkorri mendi maratoian

Zegama-Aizkorri mendi maratoian lehen aldiz parte hartu du Iker Gonzalez Alzugaraiak, gustura: «Lasterketa berezia da, ikaragarria benetan. Gainera lagunak eta inguruko jende dexente joan zen ikustera, horien animoak bezalakorik ez dago. Esperientzia ederra izan da».



**Manterola**  
Tekniko instalatzailea  
ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA  
Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa  
**629 449 602**

**Arduro**  
arropa-denda  
etxeko osagarriak | lentzeria  
Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

## 11 bertsolari gazte kantari larunbatean Eskolarteko finalean

Euskal Herriko Eskolartekoa larunbat arratsaldean frontoian egingen dute

### NEREA ALZURI

Urtero bezala, ekainarekin batera, hementxe dugu Euskal Herriko Eskolartekoa. Udaberriko ohiko hitzordua izaten da eta gazteei jende aitzinean bertsotan hasteko aukera ematea du helburu egitasmoak.

14 eta 18 urte bitarteko Euskal Herri osoko gazteak elkartuko ditu 36. edizioak. Aitzineko aldizkarian aipatu bezala, aurtengoa gure herrian izanen da Eskolartekoaren finala, larunbat honetan, ekainaren 15ean. Euskal Herriko Bertsotzale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak antolatu dute hitzordua, udalaren laguntzarekin.

### 14 eta 18 urte bitarteko bertsolariak

Finalaren aitzinetik, lurraldez lurralde Eskolartekoak jokatu dituzte eta horietan izan diren finalistek kantatuko dute. Guztira hamaika bertsolari ariko dira larunbateko saioan, tartean, Kattin Madariaga Apaolaza herritarra.

Gipuzkoan, apirilean jokatu zuten finala eta handik June

Aiestaran eta Joanes Azpillaga sailkatu ziren. Nafarroako Eskolartekoa maiatz hasieran egin zuten eta Kattin Madariagak eta Kattalin Lizarragak eskuratu zuten finalerako txartela. Arabakoan, Hegoi Amabizka eta Iraide Onaindia izan ziren bi ordezkariak. Maiatz akabailan egin zuten Bizkaiko saioan, Kelmene Abaitua eta Ekhi Zuluaga sailkatu ziren. Eta ekain hasieran Gazte Xilaba jokatu, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako ordezkariak Haira Aizpurua, Nahia Etxeberri eta Unax Aizpurua dira.

Azken urteetan ez bezala, arratsaldez izanen da finaleko saioa, 17:00etan frontoian. Saioaren ondotik, jatekoa emanen dute eta bildutakoen artean sariak zozketatuko dituzte. Sarrera deialde izanen da.

«Giro politetan jokatu dira Euskal Herri osoan Eskolartekoak, bai kanporaketak, baita finalak ere. Horregatik espero da Arantzako finalean ere herrialdeetan izandako giro beroa izatea». Halaxe adierazi du Bertsotzale Elkarteak.

## Herri lurretatik betizuak biltzeko agindu du udalak

### N. ALZURI

Duela egun batzuk, udalak bandoa zabaldu zuen, «inguruko herrietako abeltzain guzietan Arantzako herri lurretatik betizu guziaz biltzeko deia eginez». Uztailaren lehenerako bildu beharrik dira. Epe horretan betizuak bilduak ez badira, jaberkez dutela ondorioztatuko dutek eta beraz, «herritarren segurtasuna bermatze aldera behar diren neurriak» hartuko dituela adierazi du udalak.

## Udalaren Whatsapp bidezko informazio zerbitzua

### N. ALZURI

Orain dela aste batzuk ireki zuen udalak difusio taldea, informazioa Whatsapp bidez zabaltzeko zerbitzua. Geroztik herritar aunitzek egin dute informazioa Whatsappez hartzeko eskaera. Hala ere, oraindik izena eman ez duenak noiznahi egiten ahal du: 613 62 08 94 4 ramezu bat bidali behar da izen-abizenak adieraziz. Mezuak hartzeko kontaktuetan gorde behar da zenbakia.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Jaunartzea ekainaren 2an

Argazkian ezkerretik hasita lehenbiziko lerroan ageri diren Beñat, Aiert, Ekaitz, Aimy eta Marenen jaunartzea izan zen ekainaren 2an. Komunioa egin duten haurrekin batera, Martin Legarra apeza eta Lucia Iparragirre eta Angel Mari Ordoki laguntzaileak ageri dira.

## Mentxu Peña ohorezko euskaltzain

Euskaltzaindiak 21 ohorezko eta bederatzia urgazle gehiago izendatu ditu berriki eta tartean, Mariren bordako Mentxu Peña Lizarazu ohorezko euskaltzain izendatu dute. Zorionak!



## LARRETXEÀ EGYRRÀK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri  
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427



*Jauzena*

Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa







Herriko dantzari gaztetxoek beraien dantza eskaini zuten. UTZITAKOA

## Malerrekako Eguneko musean txapeldunorde

Pattere Galtzagorri eta Nieves Biurrarena finalista izan ziren eta bertze hainbat herritarrek hartu zuten parte

### MAIDER PETRIRENA

Maiatzaren 25ean Malerreka-  
ren egun haundia Saldiasen  
ospatu zen. Egitarauaren ba-  
rrenean dantzariak izan ziren  
eta aipatuko dugu Sunbillako  
dantzari gaztetxoak beraien  
dantza eskaini zutela. Bertze-  
tik, museko finalean, *Pattere*  
Galtzagorri eta Nieves Biurra-  
renak parte hartu zuten eta  
txapeldunorde suertatu ziren.  
Aipatzekoa ere DJ J&Jk izuga-  
rrizko giroa jarri zuela.

### Eneit Bertiz eta Koldo Herrera

Eneit Bertiz Apezetxeak Open  
Saltoki Challenge mendia bizi-



Galtzagorri eta Biurrarena Eratsunen.

kleta proba irabazi du 23 urtez  
beheitiko mailan. Koldo Her-  
rera Urrozek, bere aldetik,  
maiatzaren 25-26ko IV. Arro-  
niz Challengean bigarren pos-  
tua eskuratu zuen.



IRAIDE IRIARTE

## Herriko abesbatzak hirugarren kontzertua

Herriko abesbatzak bere 3. kontzertua eskaini zuen hilaren  
1ean. Isabel Lacarren zuzendaritzapean 13 kanta abestu  
zituzten, Imanol Elizasu piano-jotzailearen laguntzarekin.  
Udala, apaiza, Imanol Elizasu, Isabel Lacar eta laguntzera  
etorritako abeslariak eta ikusleak eskertu nahi dituzte.



BIDAL IBARRA

## Bestaberri egunean prozesioa

Ekainaren 2an Bestaberri eguna ospatu zen. Jaunartzea egin  
zuten Aritz eta Aner berriz ere protagonista izan ziren.  
Herriko txistulariak, udal ordezkariak eta apaiza, herriko  
etxetik elizaraino lagundu zituzten. Gero meza izan zuten.  
Akitutakoan, denbora lagun, prozesioa egin zuten.

744 484 361  
ttipi-ttapa

ORBELA  
SENKIBLAGA  
BEINTZAKO OSTATUA  
Idola - Mikel  
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
www.orbela-beintza.com

LIZUN  
GAZTANDEGIA  
Sunbilla - Tel: 948 450 862

MARMOLES  
AMEZTI  
Desde 1994  
SUKALDEKO ETA KOMUNEN  
ENTZIMERAK EGITEN DITUGU  
info@marmolesamezti.com - www.marmolesamezti.com  
Iruñea Irun errepidea, z/g.  
ORNOZ-MUGAIRI  
T. (+34) 948 592 325  
F. (+34) 948 592 295

## Doneztebe Futbol Taldearen Eguna asteburuan

Futbol partidez gain, mus txapelketa, poteoa eta afaria eginen dituzte asteburuan futbol taldeak antolatuta

### OIER ZULAIKA

Besten aitzinetik ohikoa den hitzordua da Doneztebe Futbol Taldearen Eguna, eta asteburu honetan ospatuko dute, ortziralean hasi eta larunbatean bukatuta.

Ortziralean, hilaren 14an, 17:00etan futbol eskolakoen arteko partida izanen da eta 17:30ean alebinen eta benjaminen arteko futbol torneoa jokatu dute.

Larunbatean, ekainaren 15ean, izanen du segida bestak. 09:30ean infantilak eta kadeteak ariko dira futbolean. Ondotik, 11:00etan jokalaria ohien eta preferenteen arteko partida izanen da.

17:00etan mus txapelketa jokatu dute, eta horren aitzinetik, 16:30etik 17:00etara eman beharko da izena txosnan. 17:30ean haurren-

tzako merienda eta zozketak eginen dituzte.

Txapelketa bukatzean, 20:00etan trikiti poteoa eginen dute ostatuz ostatu eta 21:30ean afaria izanen da Santa Luzia plazan. Eguna borobiltzeko, gaupasa izanen da DJ J&Jrekin Santa Luzian eta goizaldera arte luzatuko da besta.

### Futbol torneoa lehenengoz

Ekainaren 2an futbol torneoa jokatu zuten futbol zelaian lehenengoz. Benjamin eta alebin mailako haurrak lehiatu ziren, denak kanpoko taldeak. Benjaminetan txapel-dunak Izarra taldekoak izan ziren, eta alebinetan, aldiz, Tudelano taldekoak. Bi kategoriatan herriko hainbat jokalarik parte hartu zuten Osasuna taldearekin lehiatuz.



Errekako dantzariak Rosario Erasun omenduarekin. ERREKA

## Ederra, jendetsua eta hunkigarria izan da Errekaren Eguna

### TTIPI-TTAPA

Errekaren Eguna ospatu dute ekainaren 1ean eta 2an. Kiro-la izan da protagonista, eta jende aunitz bildu da antolatutako ekitaldietan. Ortzirale arratsaldean hasi ziren ekitaldiak haurren partidekin eta arratsean mus txapelketa jokatu zuten.

Larunbat goizean pilota eta eskubalo partidak eta judo erakustaldia egin zituzten. Arratsaldean izan zuen segida bestak helduen eskubalo partidarekin. Gainera, urte aunitzez kiroldegian lanean aritu den eta aurtun erretiroa hartuko

duen Rosario Erasuni omenaldia egin zioten urte aunitzez elkarte laguntzen egindako lanagatik. Afariaren aitzinetik emakumezkoen eta gizonezkoen senior taldeetako jokalarionenak saritu zituzten: Andrea Zabala eta Luismi Apezetxea. 300 lagun inguru elkartu ziren afaltzeko, eta afaria bukatzean izan zen eguneko momentu hunkigarrietako bat: elkar-teko bazkide ziren eta iaz hil ziren Ainara Marizkurrena eta Joxe Irigoien omendu zituzten eta familiei oroigarria eman zieten. Eguna borobiltzeko, erromeria izan zen.



OIER ZULAIKA

## Korrontziren emanaldi bikaina

Emanaldi zoragarria eman zuen Korrontzik maiatzaren azken egunean. Hainbat lagun izan zituzten oholtza gainean: Ituren-go joaldunak, Doneztebeko erraldoiak, herriko neskatil dantzariak, Mendi abesbatza, Oinkari eta Dardara dantza taldeak, txalapartariak, Xabier Leturia... Frontoia goraino bete zen.

**BORDAKO**  
Carnes Sein Haragiak, S.L.  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

**Aguirrezabal**  
IGOGAILUAK

Mugikortasun urria dutenentzat jasogailuak, Igogailuak | Proiektuak  
Karga-jasogailuak, plataforma hidraulikoak  
Plater-igogailuak

MARKA GUZTIEN IGOGAILUEN MANTENTZE LANAK

ascensoresaguirrezabal@hotmail.com  
ascensoresaguirrezabal.com

Arretxe Ugalde Ind.  
Ezurriki kalea, 29 IRUN  
943 612 821





**Jakinarazten da:** 2024ko lehen urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe:

## 2024ko TASAK

### ERABILTZAILAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA	KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko			€/urteko	
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez.	86,00	80,35€	<b>1. Hostala.</b> 10 toki baino gutxiago	104,12	2024ko otsailaren 6ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua 27. zk
Zaborronzia 500 metrotik gora dauden etxebizitzak	43,00		<b>2. Hostala.</b> 10 toki eta 20 toki artean	143,18	
		<b>3. Hostala.</b> 20 toki baino gehiago.	182,22		
<b>Merkataritza eta zerbitzuak</b>		<b>Naturaguneak</b>	378,16		
<b>1. Profesionalen bulego, langela eta zerbitzuak</b>	146,20	<b>Kanpinak</b>	252,10		
<b>2. Establezimendu komertzial txikiak</b>	153,52	Abeltegiak	79,34		
<b>3. Merkataritzako establezimendu txikiak (janaria saltzen dute)</b>	219,30	<b>Bertzelako egoitzak</b> (komentuak eta zahar etxeak)	143,18		
<b>4. Supermerkatu txikiak edo autozerbitzuak</b>	328,96	<b>Gurtzarako eraikinak</b>	85,00		
<b>5. Establezimendu komertzial handiak</b>	438,60	<b>Eikarte gastronomikoak</b>	219,30		
<b>Ostalaritza</b>		Kiroldegia	73,10		
<b>1. Ostatuak</b>	260,32	Eskolak edo ikastetxeak (20 ikasle arte)	59,02		
<b>2. Dantzalekuak</b>	286,34	Eskolak edo ikastetxeak (20 ikaslelik goltzi)	118,02		
<b>3. Jatetxea.</b> 10 mahai baino gutxiago	286,34	Eskolak edo ikastetxeak (jantokia dute)	236,02		
<b>4. Jatetxea.</b> 10 eta 20 mahai artean dituztenak	312,38	<b>Kontsultategiak</b>	73,10		
<b>5. Jatetxea.</b> 20 mahaitik goitiko jatetxeak.	351,42	Osasun Etxeak	146,20		
<b>Aterpetxeak</b>		Udaletxeak eta Udal bulegoak	146,20		
<b>1. Landetxea:</b> 7 toki baino gutxiagokoa	104,12	<b>Industria eta Lantegiak.</b> 9 langile bitarte.	158,78		
<b>2. Landetxea:</b> 7 toki eta 12 toki artean.	143,18	<b>Industria eta Lantegiak.</b> 10-30 langile bitarte.	317,34		
<b>3. Landetxea:</b> 12 toki baino gehiago.	182,22	<b>Industria eta Lantegiak.</b> 30 langile baino gehiago.	634,70		
		<b>Erabilera eksklusiborako edukiontzia</b>	150€/ edukiontzi bakoitzeko.		

### ORDAINTZEKO ERA

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:**

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu bikoiztua aurkeztuz.

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:**

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

### ORDAINTZEKO EPEA

• 2024ko uztailaren 15ean bukatuko da.

• Ordaintzen ez bada, epea 2024ko abuztuaren 15era luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da. Alpatutako epea pasatu ondoren, preliamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.



Herriko pilotariak han eta hemen dabilta oraindik ere. UTZITAKOIA

## Herriko kirolariak denboraldiko azken txanpan sartuak

Nafarroako Kirol Jokoetako bigarren fasean, alebin mailan, txapeldunorde izan dira Alaitz Aioroa eta Naroa Elizalde

### ARKAITZ MINDEGIA

Nafarroako kirol jokoetan jokatutako partidak izan dira herriko pilotari batzuen denboraldiko azken partidak. Azken txapelketa honetan beraien kategorian finala jokatuz Alaitz Aioroa eta Naroa Elizaldek alebin mailako finala jokatu zuten Lesakan, baina galdu egin zuten Hita-Muñoaren kontra. Koxkorrenak, berriz, hainbat txapelketatan parte hartzen ari dira: Errotxapean, Tainta memorialean... Aurrerantzean Zumarraga, Getarian eta hainbat herritan ariko dira.

### Eskubaloian eta futbolean ere

Eskubaloian dabilzan neska-mutikoen Erreka egunarekin akitu zuten denboraldia. Futbolearen aritzen direnak, berriz, Doneztebe Futbol Taldearen eguna baino lehen partida bereziak jokatu dituzte. Alebin eta benjamin mailako torneoak jokatu zuten ekainaren 2an Iñaki Indart zelaian. Izarra, Real Union, Tudelano, Osasuna eta Gasteizko Aranbizarra taldeek parte hartu zuten. Alebinetan, Aimar Bazterrika Osasuna taldearekin aritu zen eta azpitxapeldun gelditu zen.

## Estefi Etxebestek hamar aldiz altxatu du 100 kiloko zilindro zaharra

### A. MINDEGIA

Orioko Joseba Ostolazaren eskolako sei harri-jasotzaile saiatu ziren maiatzaren 25ean Aian marka pertsonalak hobetzen, eta guztiek lortu zuten, Aroa Sanchezek izan ezik. Estefi Etxebeste iturendarrak hiru minutuko txandan hamar

aldiz altxatu zuen ehun kiloko zilindro zaharra eta «arras kontent» zegoen lortutako marka horrekin eta Iturendik eta Nafarroatik joandako koadrillaren eta senideen babesarekin. Etxebesterekin egindako elkarrizketa 62. orrian duzue irakurgai.



PULUNPA ESKOLAK UTZIA

## Hondakinen tailerrak eskolan

Hondakinen tailerra ematera etorri zen Malerrekako Mankomunitateko begiralea maiatzaren 29an. Edukiontzitzi motak ikasi zituzten Haur Hezkuntzakoek. Gaztetxoek zaborra nora bota jakiteko tailer praktikoa izan zuten eta koxkorrenak, berriz, *scape room* bidez egin zuten tailerra.



UTZITAKOIA

## Herritarrek Malerrekako Egunean

Herritar ugarik parte hartu zuten Saldiasen maiatzaren 25ean ospatutako Malerrekako Egunean. Mendaur trikipandero eskolako ikasleak kalejiran ibili ziren eta dantzariak plazan. Eguerdian Zubietako joaldunekin batera Iturengo joaldunek ere joare soinuak zabaldu zituzten.



Estefi Etxebeste lehen altxaldian. Bederatzi gehiago egin zituen. GUKA TB



## ‘Plaza hau gurea da’ antzezlanak ikusgai Elgorriagan

Ekida-Arte Ekimen Sozialistak ekoiztako bigarren obra ekainaren 28an Elgorriagara ailegatuko da

**TTIPI-TTAPA** ELGORRIAGA

Euskal Herriko hainbat plazatan ibili ondotik, ekainaren 28an Elgorriagara ailegatu da Ekida-Arte Ekimen Sozialistaren bigarren obra: *Plaza hau gurea da* antzezlanak. Ekainaren 28an, ortziralea, 19:30ean herriko ostatuan izanen da ikusgai.

Hiru gazte langabe dira protagonistak. «Haien plazan jarri dira, egunero bezala, denbora nola edo hala pasatzera, baina agudo konturatuko dira plaza hori ez dela uste zuten bezain haiena». Hiru aktore, egurrezko lau kaxa, umorea, musika eta galderak ditu osagai antzezlanak.

## Giro ederra Ezkurako triki-bertso afarian

Malerrekako Bertso Eskolak antolatuta, triki-bertso afaria egin zuten ekainaren 1ean Ezkurran. Joanes Illarregi eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin eta Ekiñe Mindegia eta Irati Mindegia musikariarekin giro ederra izan zuten.



JAIONE ZABALO



MAITE BERTIZ

## 70 lagun Sagardoaren Egunean Narbarten

Sagardoaren Eguna izan zuten ekainaren 1ean Narbarten. Sagardo kupela ondoan hartuta, 70 bat lagun elkartu ziren bazkaltzeko, eta sagardotegiko menua izan zuten. Ondotik, Andoni Mitxelena akordeoilariarekin dantzaldia izan zuten.

## Iturengo joaldunak ere Korrontziren 20. urteurrenean

Korrontzi musika taldeak aurtien 20. urteurren bira eskaintzen ari da. Maiatzaren azken egunean Donezteben izan ziren kontzertua eskaintzen. Gonbidatuen artean, Doneztebeko dantzariak eta erraldoiak, Mendi abesbatza eta Iturengo joaldunak izan ziren.



Iturengo joaldunak Donezteben.

## Trinitate Eguna Mendaurren eta Ituren ospatua

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, aunitz izan ziren Trinitate Egunean Mendaurren igo zirenak. Gero, aurtiztarrek elkartearen eta iturendarrak herriko etxeko arkupetan bazkaldu zuten. Andoni akordeoilariarekin dantzaldia izan zen eta Zortzikoa dantzatu zuten.

## Jubiloteka zerbitzua martxan paratu dute Narbarten

Narbarten ere jubiloteka abian da. Herriko etxeko gelan ekainaren 3an eman zioten hasiera, eta geroztik, herriko gizonzkoek eta emakumezkoek ariketak eta bertzelako jarduerak egiteko aukera dute. Kontent hartu dute berria herriko jubilatuek.

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

[www.ibargoyen.net](http://www.ibargoyen.net) ☎ 943 616 587  
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Joan den urteko bestetako herri bazkaria frontoian. AINTZANE LEIZA



Herriko adinekoak omendu zituzten Malerreka Egunean. ALICIA DEL CASTILLO

## San Joan bestak ekainaren 21etik 24ra ospatzeko prest

Larunbatean sokatira desafioa egingen dute munduko txapeldunen eta herritarren artean eta gero herri bazkaria

### TTIPI-TTAPA

Egitarau ederra izanen dute aurten ere San Joan bestek.

### Ostirala, ekainak 21

20:00 beste hasiera emateko suziria. Ohiturazko zopak osatutuan. 23:00 Zezensuzkoa. Dantzaldia Modestorekin.

### Larunbata, ekainak 22

Goizean, puzgarriak eta haurrentzako krosa. Eguerdia Galtzagorri txarangarekin alaituta. Sokatira desafioa: munduko txapeldunak herritarren aurka. 14:30 Herri bazkaria frontoian. Bestak txar-

rangarekin jarraituko du. Gero, txapel jaurtiketa. Arratsaldean eta gauez dantzaldia, DJ Gaztemusik-en eskutik.

### Igandea, San Joan bezpera

09:00 Argisoinuak txistularien eskutik. 10:00 Mus txapelketa. 12:30 Aizkolariak plazan. 17:00 Esku pilota partidak. 20:30 Patata tortilla txapelketa. Aurretik eta ondoren Agerralde plazan. San Joan suak.

### Astelehena, San Joan eguna

Argisoinuak txistulariekin. Meza. Luntxa. Arratsaldean haur jokoak eta txokolatada.

## Giro ederrean ospatutako Malerrekako Egunean adinekoak omendu dituzte

### TTIPI-TTAPA SALDIAS

2012. urtean Zubietan ospatu zen lehendabiziko edizioaz geroztik, Malerrekako Eguna urteroko hitzordua bihurtu da eskualdeko herritarrentzat. Aurten, Saldiasi egokitu zaio besta antolatzea.

Goizean Zubietatik Saldiasera mendi martxa egin zuten gazteek. Herrietako ordezkariak elkartu ziren Saldiasko plazan eta Saldiasko Udalak herriko 80 urtetik gorako bizilagunak omendu zituen: Fermin Ezkurra Otxandorena, Martin Urrutia Grajirena, María Angelines Nebreda Zazo eta Joxe Mitxeo Baleztena, beste lau falta ziren.

Ekitaldi honen ondotik, Malerrekako musikariak herrian barna ibili ziren giroa alaitzen. Artisauen eta talogileen postuez gozatzeko aukera ere izan zen.

Doneztebe, Ituren eta Sunbillako dantzarien saioa eta buruhandien kalejira izan zuten. Horretaz gain, aizkora apustua egin zuten. Eguerdian, paella jatea baino lehenago, joaldunak herritik ibili ziren. Arratsaldean, Malerrekako Mus Txapelketako finalean Eratsungo Juan Telletxea eta Mari Juanenea nagusitu zitzaizkien Sunbillako *Pattère* Galtzagorri eta Nieves Biurarenari. Finala jokatzeko bitartean, Maddi Ane Txoperenak eta Alazne Untxalok bertso saioa eskaini zuten eta gero DJ J&K musikaz alaitu zuen giroa. Mus txapelketako sariak banatzeaz eta zozketaz gain, bestaren lekukoa banatzeko ekitaldia egin zen. Hala, Beintza-Labaieni egokituko zaio heldu den urteko Malerrekako Eguna antolatzea.



**Construcciones URBALLO, S.L.**  
hargin lanak orokorrean

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!**

Luis Gaztelu, 6  
31730 IRURITA  
T. 610 367 000  
610 367 009  
c.urballo@hotmail.com

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nabiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuituak...





**BRIKO BAZTAN, S.L.**

Bainuontziaren lekuan duxaontzia jartzea  
Pinturak  
Fatxadak  
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura  
Birgaitzeak eta obra berriak  
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052  
San Andres, 66 - NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)





## Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



IKER ZUBIETA IRIZAR  
ZUBIONDO JATETXEA - BERA

**«Bertako janari tradizionala egiten dugu jatetxean, betikoa»**

2001ean ireki zuten Zubiondo jatetxea Beran eta «hasieratik» aritu da bertan lanean Iker Zubieta: «lehenbizi asteburuetan laguntzen aritzen nintzen. Hasieran ostatuan ibiltzen nintzen, eta gero sukaldera pasatu nintzen». Jatetxean «bertako janari tradizionala» egiten dute, «betikoa». Eguneko menua, menu bereziak, karta, plater konbinatuak... denetik eskaintzen dute, «baina jendeak batez ere brasa eskatzen du, haragia eta arraina». Azken urteetan «jende

aunitz» ibili da udan jatetxean, «pandemiaren ondotik turista aunitz hasi ziren etortzen eskualdera. Baina inguruko jendea ere etortzen da, aste tarte langileak batez ere, eguneko 60-100 bat menu ateratzen ditugu».



ADELA ARLEGI GOIENETXE  
BERAKO UDALA

**«Batzorde guztiak lotuak daude eta elkarlanean aritzen gara»**

Berako zinegotzia da Adela Arlegi, eta hiru batzordetan dago: Merkataritza eta Turismo batzordea Beran, Berdintasun batzordea Bortziriak mailan eta Elikadura batzordea Bortziriak, Malerreka eta Bertizaranan. Berdintasun batzordean «iaz Berdintasun Plana onartu zen eta hilabete batzuk dira Bortziritako zaintza diagnostikoa egiten ari garela Emagin elkartarekin». Elikadura batzordean, «bertako 15 ekoizlerekin liburu digital bat argitaratu genuen,

ekoizleen elkarte bat sortu nahi da, 'Lurretik ikasiz' hezkuntza proiektua, formakuntzak...». Merkataritza eta Turismo batzordeari dagokionez, «teknikari bat kontratatu nahi dugu sei hilabeterako, turismo plana egiteko».



LAURA ELIZAGOIEN ARIZTEGI  
ETXALARKO TURISMO BULEGOA

**«Herrian bertan zein inguruan, ikusteko eta egiteko ugari dugu Etxalarren»**

Etxalarren badago zer ikusi eta egin bisitariarentzako: «herriaren erdigunean elizako lorategia dugu, leku esanguratsuenetakoa, baita Iñarretako gurutzea eta etxea ere. Gero paseotxo bat gomendatzen dugu herritik, eta Antsolokuetara bidaltzen ditugu bisitariak, presa eta auzoa ikustera». Denbora gehiago dutenentzako, «ermitako paseoa, Karmen Etxalarkoa ibilbidea, usategietako bidea, GRa eta Azkuko ibilbidea ditugu». Horrez gain, «jardue-

raren bat egin nahi dutenek escape rooma bisitatu dezakete, usategiei eta kontrabandoari buruz dena, edo bisita gidatua egin. Bisita gidatua herriko etxeen, pertsonaien eta gertakarien inguruan izaten da».



FABRICE IPARAGIRRE  
SARAKO LEZEAK

**«Garrantzitsua da gure aberastasuna transmitzea, gal ez dadin»**

Sarako lezea «beti izan da leku kultural bat; bisita JM Barandiaranen idatzietan oinarritua da eta parke megalitiko J Bloten ikerketetan. Gure ohi-turak eta bizimodua ahoz, idatzien bidez eta euskal artisten bidez transmitzen dira». Hori dela eta, eskaintza kulturala zabaldu dute lezeetan; ikusgarriak, kontzertuak, erakusketak, esplorazioak... «Ekitaldiak atseginak eta jakingarriak izatea espero dugu, jende guzia bere lekuan sentitzea, baina ahaztu gabe na-

turgune berezia dela eta errespetatu eta zaindu behar dugula». Saratarrentzat ere leku berezia da; «herritarrek biltzeko lekua da, bazkariak egiteko, ikusgarria antolatzen dituzte, txondorra eraikitzen ari gara... hemen etxean dira!».





## Soinketa eginez egun ederra pasa dute bazkideek

Soinketa erakustaldia egiteaz gain, arratsaldean mariatxiekin kantuan eta dantza aritzeko aukera izan zuten

### TTIPI-TTAPA

Urte osoan soinketa egiten aritzen direnek erakustaldia egin zuten maiatzaren 30ean, ortzeguna, Doneztebeko kiroldegian. Erakustaldi xumea bezain alaia izan zen eta 40 partaide aritu ziren. Lehenik Jose Angelen akordeoiaren laguntzarekin paseo bat eman zuten beren burua aurkeztu eta taldeko argazki bat egin zuten.

Lehenengo erakustaldia pilates egiten dutenek egin zuten Ana Tovarren eskutik eta luzaketak egiteko eraztun bat erabiliz egin zuten. Bigarren erakustaldia yoga izan zen Patxi Chocarrok zuzenduta. Borobil erdi bat egin zuten Patxi aurrez aurre zutela, eta berak errandako ariketa lasai batzuekin 30 minutuko saioa egin zuten. Saioa



Parte hartzaileetako batzuk. UTZITAKOIA

bukatzeke, bikoteka, masaje bat eman zioten elkarri gerriko muskuluak laxaitzeko. Azkenik, Berako taldeak Saioa Irazuren eskutik bi dantza egin zituen: musikaz lagundurik saltoka bat, eta Grezia-ko dantza bat.

Ondotik, bazkaria egin zuten Santamarian eta bukatzeko Los Tajudos Del Norte mariatxien eskutik kanta, dantza eta besta izan zituzten. Egun ederra pasazuten denek.



Akupeak elkarteko mendizaleak Arrikulunka mendian. UTZITAKOIA

## Baztanen Arrikulunkara egin dute maiatzeko irteera mendizaleek

### TTIPI-TTAPA

Ohitura segituz, hilabeteko hirugarren asteartean, maiatzaren 21ean, Arkupeak elkarteko 65 mendizale bildu ziren Elizondoko frontoian zuten hitzordura. Handik kotxeetan Beartzun aldera joan ziren. Apartatu ondotik, eguraldi polita eta 12 gradu zituztela gorantz abiatu ziren.

Urbaloko bidetik Arrikulunkara joan ziren lehenik. Han gosaldutik, kuadrila bat harrira igan zen. Gero, handik Argibelera joan ziren eta mendizale talde bat Albako haitzera ere igan zen. Inguru

hagitz harritsua denez, batzuek nahiago izan zuten behetian itxaron gora igan gabe. Zerua garbi eta eguzkia zegoenez, inguruak ongi ikusteko aukera izan zuten, baina itzuleran euria hasi eta pixka bat busti behar izan zuten mendizaleek.

Hiru ordu eta erdiz ibili eta hamaika kilometroko bidea osatu ondotik, Elizondoko Mendi jatetxean goxo-goxo bazkaldu zuten elkarrekin.

Uda sasoiaren ere ez dute ete-naldirik eginen eta hurrengo irteera Hondarribian egingen dute ekainaren 18an, asteartea.

## Maritxu Telletxea Sagasetaren omenez

Arkupeak Elkarteko bazkide eta lagunentzat, berriki zendu den Maritxu Telletxea Sagaseta bazkide eta lehendakariordearen omenez idatzirikoa testua:

Maritxu joan zaigu, baina, seguruenik ez sobera urruti.

Arkupeak Elkarteko bazkide zen aspalditik, Zuzendaritza Batzordeko kide 2019tik eta gaur egun elkarteko presidenteordea ere bazen.

Arkupeak elkarteko bazkideek oso ongi ezagutzen eta maitatzen zuten bere alaitasunagatik,

dedikazioagatik eta borrokagatik. Ikusi besterik ez dago zure gaixotasunari aurre nola egin diozun.

Parean tokatzen ziren egoerak aldatzeko dohaina zuen. Haietaz atseginak bihurtzen ziren bere sinpatia, bizitzeko gogo eta gauza berriak egiteko asmoengatik.

Urte honen hasieran, sagardotegiko bidaiaren bertsolarien errimatarako gaiak proposatzea izan zen bere azken ekarpena.

Puro Relajo taldearen abesti baten letra datorkigu



Maritxu Telletxea Sagaseta.

gogora. Letrak horrela dio 'Los amigos así, pocas veces se ven y nunca se olvidan' (Horrelako lagun gutxi izaten ditugu, baina,

ditugunean inoiz ez ditugu ahazten). Maritxu talde horren jarraitzaile amorratua zen.

Bere izenean jasotako azken mezuan, eskerrak eman zizkigun zoriontsu egin genuelako. Uste dugu esker ona gurea izan beharko litzatekeela, bera baitzen zoriontsu egiten gintuena.

Maritxu, edonon zaudela ere, zure nahien arabera, gure bizitzeko gozatzen saiatuko gara, gure jokabidearen kezarik izan ez dezazun.

Maritxu, eskerrik asko, adio, eta ikusi arte!



## ARIZKUNGO BESTAK

2024

### Egitaraua



#### Ekainak 20, ortzeguna

17:30ean txupinazoa, diana eta ez-kila jotzea. 18:00etan bandera dantza eta txopo goratzea. **Ondotik** mutil dantzak eta Baztango jauziak. 21:30ean baztan zopak, **ondotik** besta.

#### Ekainak 21, ortziralea

10:00etan diana herriko txistulariekin. 10:30etik aitzinera Enrique's Party egun guzian. 13:30ean haurren bazkaria. 14:00etan gazte bazkaria. 16:30ean herriari itzulia erraldoiekin eta trikipoteoa herriko ostatueta. 18:30ean txokolate hartzea. 21:00etan mutil dantzak eta gaita dantza. 23:00etan kontzertuak: Hilketak eta Ostikoka. **Ondotik** DJ Ventura.

#### Ekainak 22, larunbata

10:00etan diana herriko txistulariekin. 11:30ean mus inñezture. 14:30ean zikiro jatea. 21:00etan mutil dantzak eta gaita dantza. 00:00etan dantzaldia Trikidantzekin. **Ondotik** DJ Ventura.

#### Ekainak 23, igandea

10:00etan diana herriko txistulariekin eta Txarutako pilotarien partidak. 12:00etan katuska jaurtiketa. 17:00etan dantzaldia Andonirekin. 19:15ean ezpata dantza Arizkungo dantzariekin. **Ilunabarrean** San Juan suak, ezkila jotzea, antzerkia, mamuru erretzea eta dantza herrikoiak. 23:30ean dantzaldia Andonirekin. 02:00etan Alkoholinpiadak.

#### Ekainak 24, astelehena

**Argi hastean** udako solstizioko diana herriko gaitero eta soinulariekin. 11:00etan meza nagusia. 12:00etan herriko haurren dantzak. **Ondotik** mutil dantzak. 16:00etan haurren frontenis finala. 18:00etan patata tortilla lehiaketa. **Ondotik** merienda afaria. 21:00etan mutil dantzak eta gaita dantza. 00:00etan txopo botatzea eta Gaixoa ni.

**Ortziralean, larunbatean eta igandean** bokatak izanen dira salgai afaltzeko.



**indaauto**  
TAILERRAK

Mekanika  
Elektrizitatea  
Pneumatikoak  
Ibilgailuen salerosketa

ongi pasa bestak!

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)  
T. 948 453 488 · M. 675 324 960

info@indaauto.es

**FORJA ZAPATA**  
Industrias ANCAR s.l.

ONGI PASA  
BESTAK!

BURDINA FORJATUAN  
MOTA GUZTIETAKO LANAK.

Arizkun-Baztan · 948 45 30 55  
industriasancar@yahoo.es







# «Gogo haundiz aterako gara dantzatzera Arizkungo bestetan»

UNAI MUGIRO LARREGI ARIZKUNGO GAZTEA



Horrez gain, «lehenbiziko eguneko baztan zopen afaria» nabarmendu du; «herritar aunitz biltzen gara eta musikaren laguntzaz giro ederra sortzen da».

## Antolaketa lanetan

Antolakuntza taldean sartu da aurten Unai; «lau gazte gara urte guziko bestak antolatzen ibiltzen garenak. Horretarako, urte hondarrean gazteen arteko bilera egiten dugu, eta bertan erabakitzen dugu nork segituko duen taldean eta nor sartuko den». Inauteriak eta bestak antolatzea «lan haundia» dela dio, «baina denborarekin prestatzen hasiz gero errazago egiten da».

Egitaraua prestatzean «haur, gazte eta adinekoen gustuak kontuan hartzen ditugu». Baina ez dute egitaraua bakarrik egin beharrik, besta egunean ere lana egin behar baita. Hala ere, «bestetan egin beharreko lanak gazte guzieren artean banatzen ditugu eta bakoitzak bere ardurak izaten ditu».

## Tradizio zaharrak eta dantzari berriak

2022an Patxi Larralde, Arizkungo txistulariak, «lehen Besta Berri egunean dantzatu ohi zen ezpata dantza ikasteko eta sanjuanetan dantzatze».

18 urteko mutiko arizkundarra da Unai Mugiro. Musika aditza eta kirola egitea du gustuko, «batez ere mendira joatea eta errugbia. Aurten Baztan Errugbi Taldean Seniorretan jokatu dut lehenbiziko aldiz». Eta noski, «besta egitea ere gustuko dut». Arizkungo bestak «arras gogotsu hartzen ditugu herritarrok. Adin guzietako jendea biltzen gara eta giro eder eta berezia sortzen da herrian». Tikitatik izan ditu gustuko; «aitatxiri San Juan bezperako sua pizten laguntzen nion ilusio haundiz». Gaur egun ere «bezpera egun berezia iruditzen zait, gauean izaten diren su, antzerki eta dantzaldiarengatik».







VALLEDEBAZTAN.COM

ko proposatu zigun». Ideiarekin ados, «kuadrilla ederra bildu eta entseatzen hasi ginen». Lehenbiziko urtean 16 dantzari atera ziren, eta «horietako batzuk utzi eta bertze batzuk sartu ondotik, aurten ere 16-17 izanen gara taldean». Gainera, «dantzarietz gain, 6-7 musikari ibiltzen dira gurekin; txistulariak, atabalariak eta soinu-lariak».

Baina dantzatu aitzinetik ezinber-zekoa da prestatzea. Azaldu duenez,

«lehenbiziko urtean, koreografia ikasteko eta musika zehazteko, 3-4 hilabete behar izan genituen. Aurten, dantza ikasia dugunez, hilabete pare batekin aski dugu». Herriko bestetan dantzatuko duten bigarren urtea izanen dute eta «gogo haundiz» aterako dira.

Baina Arizkundik kanpo ere izan dute dantza erakusteko aukera, izan ere, «leku eta ekitaldi aunitzetan ibili gara: Hernaniko Dantzari egunean, Amaiurko erresistentziaren 500. urteurrenean, Vacarisseseko (Katalunian) Festa de la Vacan, Luzaideko Orreagako batailaren monumentuaren inaugurazioan, Urda-zubin, eta baita Donapaleuko Nafarroa Bizirik ekitaldian ere». Horrez gain, «bertze toki batzuetan egon gara Arizkungo sagar dantza, mutil dantza eta irri dantzak dantzatzen. Esperientzia arras aberasgarria izan da».

Aurtengo bestetan «herritarrek eta Arizkunerat hurbiltzen diren guziek errespetuz ongi pasatzea espero dugu. Mundu guziaz dago gonbidatua!».



Dutaria baserria · ARIZKUN · 616 756 359

# MARMOLES SOULE

[www.marmolessoule.com](http://www.marmolessoule.com)

LAPIDAK | PANTEOIAK  
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK  
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444  
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com



GORPUTZEKO ETA AURPEGIKO  
TRATAMENDUETAN ESPEZIALIZATUA

Zelulitisa, likido atxikitzea, zimurrak leuntzea,  
orbanak kentzea, laser bidezko depilazioa...

AZKEN BELAUNALDIKO TRESNA MODERNOENAK

DIAGNOSTIKOAK DOAN INOLAKO KONPROMISORIK GABE



“Zure edertasuna, nire pasioa”

- 📍 Tximindo, 13 - ARIZKUN
- ☎ T. 660 73 17 72
- 🌐 [www.elenaurrutia.com](http://www.elenaurrutia.com)
- ✉ [info@elenaurrutia.com](mailto:info@elenaurrutia.com)
- 📷 [centro.belleza.elenaurrutia](https://www.instagram.com/centro.belleza.elenaurrutia)
- 📌 Centro de Belleza Elena Urrutia



Ongi pasa  
bestak!





**BAZTANGOIZA**  
TALERRA

ongi pasa bestak!!

Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa, mantentze-lanak, mekanika, elektrizitate eta pneumatikoen salmenta.  
2. eskuko kotxeen salmenta.

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN  
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847  
baztangoiza@yahoo.es  
www.baztangoizatalerrak.com



**ZUBI TIBUS**  
PUNTA ATXUA  
ERRATZU USTARRA

**ALBANTZENA**  
OSTATUA-DENDA

ongi pasa herriko bestak!

Albantzena etxea, ERRATZU - Tel: 948 453 112



**ALTXUKO**  
DENDA  
JANARI-DENDA

658 81 73 14 | 948 45 34 71 ERRATZU



**KASTONEA**  
LANDETXEA  
OSTATU-JAETXEA  
ongi pasa bestak!

31714-ERRATZU  
948.453.065 - 656.933.760  
www.kastonea.com - info@kastonea.com

**SANTXOTENA**  
Eraikuntzak

ongi pasa bestak!

Erratzu | 608 979 809 | santxotenasl@gmail.com



**SERRERIA ALEMAN S.L**

Teilaturako estrukturalak  
Tarimak · KVH  
Laminatuak · Egur trinkoa  
Tratamenduak

Frantziako errep. 2-A ERRATZU  
T. 948 453 173 | serreriaaleman@gmail.com

## ERRATZUKO BESTAK

2024

## Egitaraua

Ekainak 27,  
ortzeguna

10:30etik 13:30era puzgarriak.  
12:00etan txupinazoa. 14:00etan  
haurren bazkari autogestionatua  
karpan. 15:00etatik 16:30era puz-  
garriak. 16:00etan ezkila jotzea.  
17:00etan Izpegiko XV. igoera. **On-**  
**dotik** txokolate hartzea Irigoieneko  
bentan. 21:30ean zopa herrikoia  
plazan. **Ondotik** dantzaldia Beñate-  
kin.

Ekainak 28,  
ortziralea

10:00etan diana. 11:00etatik 13:30era  
jolastoki ibiltaria frontoian. 14:00etan  
bazkari herrikoia kanpinean.  
17:00etan herriari itzulia Elektrotxo-  
rongorekin. 21:00etan mutil dantzak,  
gaita eta larrain dantza. 22:30ean  
Tripus Trapus perkusio taldea.  
23:00etan dantzaldia Iparlan Fran-  
txixkorekin. 23:30ean kontzertuak:  
Borla eta Naxker. **Ondotik** Fresa Mo-  
rango DJak.

Ekainak 29,  
larunbata

10:00etan diana. 11:00etan herriko  
trikitilari eta panderojoleak. 12:00etan  
herriko dantzari ttipiak plazan. **On-**  
**dotik** mutil dantzak eta luntx herri-  
koia. 17:00etan pilota partidak: Ados  
Pilotako Sanfermin Txapelketa eta  
Urrutikoetxea-Imaz VS Peña II-Iz-  
tueta. 20:00etan Los Cazahuates  
mariatxiak. 21:00etan mutil dantzak,  
gaita eta larrain dantza. 23:00etan  
Broken Brothers Brass Band. **Ondo-**  
**tik** Eyjafjallajökull MP.

Ekainak 30,  
igandea

10:00etan diana herriko gaiteroekin  
eta herriko pilotari gaztetxoekin arte-  
ko partidak Gorostapolon. 12:00etan  
pilota partidak Gorostapolon.  
14:30ean zikiro jatea Luzianok alai-  
turik. 19:00etan kontzertua Zubi-  
Puntan. 21:00etan mutil dantzak,  
gaita eta larrain dantza. 22:30ean  
pintxaldi irekia.





# DONEZTEBEKO BESTAK

2024

## Egitaraua



### Ekainak 27, ortzeguna

**20:00etan**, txupinazoa. **Ondotik**, kalejira Doneztebeko txistulariekin eta Tuku-Tuku txarangarekin. **Ondotik**, zopak herriko elkarteetan eta ostatuetan. **22:15ean** zezen suzkoa Bear Zanan. **00:00etan** Trikidantz Santa Luzia plazan. **02:30ean** DJ J&J Santa Luzia plazan.

### Ekainak 28, ortziralea

**09:00etan** diana gaiteroekin. **10:00etan** Aurorak herrian barna. **11:00etan** udal ttikiari ongi etorria eta txupinazoa. **11:30ean** kaljira erraldoiekin eta buruhaundiekin eta dantza Ttikien ikuskizuna Bear Zanan. **Ondotik**, dantzariantzat luntxa. **14:00etan** udal ttikia aukeratzeko parte hartu duten haurren bazkaria. **16:30ean** puzgarriak Bear Zanan.

**17:30ean** Aurorak kalejiran Elutxa txarangarekin. **18:00etan** bertso saioa Santa Luzia plazan: Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Alaia Martin. Gai jartzailera Maialen Belarra. **19:30ean** Nafarroako erremonte txapelketako finala Ezkurra pilotalekuan. **19:30ean** udal ttikiari diploma banaketa eta botere itzulera. **20:30ean** Alaiki Santa Luzia plazan. **00:30ean** Alaiki Santa Luzia plazan. **03:15ean** Dj J&J Santa Luzia plazan.

### Ekainak 29, larunbata

**09:00etan** diana gaiteroekin eta Elutxa txarangarekin. **11:00etan** meza nagusia, Agur Doneztebe, Trapatan eta bandera dantza eta erraldoiak eta buruhaundiak. **Ondotik**, luntxa herriko etxeko atarian. **17:00etan** haurrentzako euskal dantzak Xaibo

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!!

**Juanotena Zurgina**  
**Juantxo Juanotena**

639 855 120 | juanotenazurgina@gmail.com | Doneztebe

**ONGI PASA DONEZTEBEKO BESTETAN!!**

**TALLERES ELIZGOYEN**  
 Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak

**ONGI PASA BESTAK!**

- Mekanika azkarra
- Multimarka diagnosis
- Injekzioa
- Gasolioa
- Direkzioa
- Balaztak eta ABS
- Elektronika
- Aire girotua
- IAT aurreko azterketa
- Esekidura
- Txapa eta pintura

MULTIMARKA TAILERRA

Leitzako bidea, 78 - Doneztebe | 948450158  
 elizgoyen@telefonica.net

**DONEZTEBEKO Bestak 2024.**  
 Ekainaren 27tik Uztailaren 1era

**HERRITAR ETA BISITARI GUZTIOI. ERRESPEZUZ BESTA EGIN!**

Doneztebe/Sanlesteban  
**UDAL**  
 Zuzendaritza

**ERASO SEXISTARIK EZ!**



**Ainhoa Altzuguren Mitxelena** ongi pasa bestak!

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Arazo administratiboak  
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89  
ainhoaalzuguren@gmail.com

**Arozena**  
ostatu · jatetxea

Gosariak  
bazkariak  
eta afariak

ongi pasa bestak!

T. 948 450 443 - Leitzako errep., 84 - DONEZTEBE

**MINIESKABAZIOAK**

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

**Inzakardi** ongi pasa bestak!

Pinturak

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal Inzakardi, 10  
m. 630 511 488 DONEZTEBE/SANTESTEBAN

ordua eskatu

**MAITE**  
ileapaindegia

GIZON ETA EMAKUMEENDAKO

Mourgas Etorbidea, 4  
☎ 948 451 780 - DONEZTEBE

**GARRAIOAK, GARABIAK  
ETA ZERBITZUAK**

J.V. Jubera, S.L. eraikuntzak

ongi pasa bestak

**DONEZTEBE**

Leitza bidea, 72 - DONEZTEBE - T. 948 451 793  
T. 659 702 694 - jvjubera@gmail.com

*Mendiburu*  
aziendak · tratantea

ongi pasa  
herriko bestak!



608 676 221  
948 450 084  
DONEZTEBE

rrekin. **18:30ean** aizkora apustua Bear Zanan: Vicente eta Mugerza, Larrañaga eta Txikiaren kontra eta Eneko Saralegiren erakustaldia. **19:30ean** DJ Xaibor Santa Luzia plazan. **22:00etan** Erreka Dantza Taldearen emanaldia Bear Zanan. **00:30ean** Iratzar Santa Luzia plazan.

**Ekainak 30, igandea**

**09:30ean** diana gaiteroekin. **11:00etan** Doneztebeko eta Elizondoko erraldoiekin eta buruhaundiekin kalejira. **11:30ean** herriko gazteen herri kirolak Bear Zanan. **12:00etan** batukada herrian zehar. **14:00etan** gazte bazkaria Burrunbak antolatuta. Gaia: zirkoa. **Ondotik**, jokoak Santa Luzia plazan. **17:30ean** haurrentzako jokoak Intzakardin. **18:00etan** Distopia elektrotzaranga gazteekin herrian zehar. **22:00etan** Joselu Anaiak Santa Luzia plazan. **23:30ean** En Tol Sarmiento taldearen kontzertua Bar Zanan. **01:30ean** DJ Risas Santa Luzia plazan.

**Uztailak 1, astelehena**

**09:30ean** diana gaiteroekin. **11:00etan** Doneztebeko erraldoiekin eta buruhaundiekin kalejira. **11:30ean** mus

txapelketa eliza atarian. **14:00etan** herri bazkaria eskolako aterpean. **Ondotik**, urteroko Erreka igoera. **16:00etan** pintura tailerra haurrentzat eskolan. **18:30ean** etxean sukaldatutako postre txapelketa Santa Luzia plazan Malerrekako txuriurdirin dinekantolatuta. **19:00etan** mutxikoak Jaliskoren eskutik. **19:30ean** DJ J&J eta Chuchin Ibañez Santa Luzia plazan. **20:00etan** bestetako zozketa berezia. **22:15ean** zezen suzkoa Bear Zanan. **Bestak bukatzeko**, gaixoa ni herriko etxeko atarian.



**MAITE MANGADO**  
ARKITEKTURA  
& DISEINUA

ongi pasa herriko bestak!

T +34 653 035 091  
www.maitemangado.com  
Doneztebe (Na)

**Sampi Aragón S.L.**

Mekanika · Elektrizitatea · Txapa · Pintura

T. 948 450 354 | DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com





Gure dendan aurkitu ditzakezu...

Burdindegia  
Esku erreminta  
Erreminta Elektrikoa  
Lanerako jantziak  
Margoak eta barnizak  
Silikonak  
Hidrogarbigailuak  
Konpresoreak  
Lorezaintza  
Abeltzaintza  
Baratzea

...eta askoz gehiago!

 **Apezteguia Berria**  
ferretería - burdindegia

Leitzako Errepidea - Donoztebe

[www.apezteguiaberria.com](http://www.apezteguiaberria.com)

T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

**BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**



**ARKITEKTOAK**

Bizitza berriak  
Zaharberritzeak  
Lokalen berrikuntzak  
Hostalaritzarako proiektuak  
Teilatu berritzeak

Efizientzia Energetikoa  
Isolamendurako aholkularitza  
Obra ttikien kudeaketa

T. 626 26 19 90

[www.apezteguiaelizalde.com](http://www.apezteguiaelizalde.com)







**ONGI PASA BESTAK!**

Merkatarien kalea, 29  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 451 752  
M. 609 418 097  
info@zarbo.net  
www.zarbo.net



Zurgin lanak orokorrean  
Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE  
Tel. 669 939 057  
mutuberriazurgindegia@hotmail.es

**ongi pasa bestak!**

**ONGI PASA BESTAK**



talleres **EDERKI** tailerra



Leitza errepidea 57  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 451 798 Fax 948 451 623  
talleresederki@soc.redcitroen.com

Latigillo hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

**asegi asesorías** 

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO 948 581 300 - F. 948 580 648	Eztogara pasealekua, 22 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 LESAKO T. 948 638 07
--	---	---	--



**Maite moda**

• Emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak •

 maite.moda  Maite Moda   948 450 727

Amezitia zeharkarrika, 5 DONEZTEBE



**SUKALDEAK KOMUNAK**

Etxetresnak | Pareta-armairuak  
Sukalde eta bainugelako altzariak

T. 948 450 925 | M. 677 525 324  
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE






**ONGI PASA BESTAK!**



# «Hainbertze emakume indar horrekin karrikan ikustea zoragarria da»

MARTA INDART ELIZONDO BETI PREST BATUKADA TALDEKO KIDEA



Erritmoa odolean darama Marta Indart Elizondok eta, barrenean ezin eutsiz, badirudi kanpora ateratzeko modua topatu duela. Doneztebeko Beti prest batukada taldeko kidea da eta agogo jotzen du bertan. Hogeita hamar emakumek osatzen dute taldea eta argi du zein den beraien helburua: «ongi pasatzea eta karri-kako giroa piztea».

Musika eta dantza, biak uztartzen ditu batukadak eta horregatik izan du betidanik gustuko: «batukada

talderen bat aditzen nuen bakoitzean hurbildu beharra izaten nuen entzuterera edo haien gibeletik dantzatzera». Afrikara egindako bidaiek ere izan dute eragina: «maite dut Afrika, Senegal bereziki, eta lotura handia eta estua dut, beti zerbait berezia piztu dit barrenean». Lehenbiziko bidaia orain dela hamalau urte egin zuen Afrikara, «hasiera batean klaseak emateko, kultura ezagutzeko... bidaiatu nuen bertara, baina duela bost bat urte hango erritmo eta dantza batzuk, Sabar izenekoak, dantzaten ikasten hasi nintzen eta perkusio pixka bat jotzen».

Horregatik, ezin zuen galdu batukada taldeko kide izateko aukera. 2022ko urrian sortu zuten Beti prest taldea eta bi emakume izan ziren horren bultzatzaileak: «2020an hasi ziren Marisol Telletxea eta Mari Carmen San Martin batukada talde bat sortzeko ideiarekin. Hainbat saiakera egin zituzten, baina oztoporik handiena irakaslea topatzeko zailtasunak ziren». Bi urte beranduago, gutxien espero zutenean, izan omen zuten Uxoa Etxeberria iruindarraren berri: «berak baiezkoa eman eta 2022ko urri hondarrean egin genuen batukada taldeko lehenbiziko bilera».

Gaur egun, hogeita hamar taldeki-de dira: «denak emakumeak eta →

**BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU**

**IRURITARUBIO**  
HORTZ KLINIKA

Rosa Seminario, 19 - 1. D | DONEZTEBE  
(+34) 948 450 267

**ALBAITARITZA ZENTRO TEKNIKO**

**ONGI PASA BESTAKI**

Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE  
T. 948 450 591 • M. 659 884 374  
www.veterinariaostiz.com  
ctvvetinario@telefonica.net

**ELIZAGA MUGIKA SL**

**conselmu**  
CONSTRUCCIONES

ongi pasa bestak!

Etxebizitzen eraikuntzak  
Teilatu berriztatzeak  
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com  
www.construccioneselizagamugika.es

**KIMETZ**  
*Belardenda*

Gaur egungo kontsumora egokituz,  
bertan erosteko aukera,  
baita online ere:

[www.kimetzbelardenda.com](http://www.kimetzbelardenda.com)  
@kimetzbelardenda

Zure konfidantzazko belar denda,  
inoiz baino hurbilago

**Ongi pasa bestak!**

Leitzako errepidea, 7 | 948 451 473  
31740 Doneztebe | 650 779 128



**sare**  
akademia

**DBH ETA BATXILERGOA**  
- MATEMATIKA  
(DBH-n fisika eta kimika aukerarekin)

LEHEN HEZKUNTZA  
- ERREFORTZU KLASEAK MATEMATIKETAN

Talde txikitan eta jarraipen personalizatuarekin.  
2024-2025ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
T. 615561458 (Nerea)  
Emaila: akademiasare@gmail.com  
Web orria: sites.google.com/view/sareakademia  
Doneztebe

ONGI PASA BESTETAN!

**Angie**  
ENGLISH ACADEMY

Cambridge English  
Exam Preparation Centre

Cambridge English  
Teacher



Cambridge English  
Exam Preparation Centre  
Preparatuak  
Angie English Academy

8 urtetik aurrera. HAUR - GAZTE - HELDUAK  
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

1991z geroztik Cambridgerako azterketa ofizialak  
prestatzen ditugu eta hagitz emaitza onekin,  
Itzulpenak ere egiten ditugu.

T. 626 908 076 - angiacademy@gmail.com  
Elizagibela, 7 behea · 31740 DONEZTEBE

adinez ere nagusiak. Bi dira gaztea-  
goak, baina banaz bertzeko adina  
50-60 urteren bueltan dago». Irudi  
ederra sortzen du horrek: «hainbertze  
emakume elkarrekin, indar horrekin,  
karrikan ikustea zoragarria da».

Joan den urtean jo zuten lehenbi-  
zikoz jendaurrean, «bestetan izan  
zen eta ez genuen programan jarri,  
zer gerta ere». Arantzoko Elkartean  
egindako entseguek eman zuten  
fruitua: «primeran atera zen, pila bat  
disfrutatu genuen eta hurbildu zen  
jendeak ere ederki pasa zuen». Hori  
bai, badaki batukada ez dela denen  
gustuko: «batzuentzat asots mortala  
izanen da. Beste batzuk erritmoan  
sartu eta gozatuko dute». Bere ustez,  
berezkoa den zerbait da: «ez da adin  
kontua, nire amak 81 urte ditu eta  
gustatzen zaio ikaragarri. Barruan  
duzun zerbait da, sentitzeko modua,  
dena albo batera utzi eta erritmoan  
sartzera eramaten zaituena».

**Bestetan karrikan**

Martxoaren 8an egin zuten hurrengo  
emanaldia eta ekainaren 8an atera  
dira azkenekoz karrikara, eskolako  
50. urteurrenako festan. Bestetarako  
beroketa izan da: «ekainaren 30ean,  
eguerdian, eginen dugu batukada».  
Bestetako egunik berezietako bat  
izanen da Martarentzat, «karrika  
buelta egin ondotik, bazkari bat ere  
eginen dugulako».

Ez da bestetan gorritz seinalatua  
duen egun bakarra, azken urteetan  
Aurorak ere abesten ditu: «emakume

talde bat ateratzen gara herritik bar-  
na kantatzera. Giro ederra izaten  
dugu: gosaria, bazkaria, txarangare-  
kin dantzan... denak gara emakumeak,  
baina aipatzekoa da, Jose Luis San  
Migel *Kilis* izaten dugula beti kor-  
deoiarekin laguntzen». Auroren buel-  
tan sortzen zen giroak erakarrita  
eman zuen pausoa: «ikusten nuen  
izugarrizko saltsa sortzen zutela eta  
animatu egin nintzen». Argi dio: «ka-  
rrikako giroa gustatzen zait, kanpo-  
ko besta eta denok bere parte izatea».  
Horregatik, txarangarekin ibiltzen  
direnean sortzen den giroa gustuko  
du: «pasa den urtean Gazte Eguna  
ere egun berean zen eta denok batera  
ibili ginen». Plaza andrea izan da  
beti: «bestetako bihotza plazan eta  
karrikan dagoela uste dut. Orain ez  
naiz aunitz ateratzen, arratsean gu-  
txiago, baina eguneko aunitz gus-  
tatzen zait». Badira inoiz galtzen ez  
dituen ekitaldiak: «San Pedro Egu-  
neko meza gustatzen zait aunitz.  
Abesbatzek kantatzen duten meza  
oso berezia da. Trapatan dantza,  
Erreka dantza taldeko ikuskizunak...».

Hobetzeko, berriz, badu proposa-  
mena: «adinez nagusiagoak direnei,  
80 urtetik gorakoei, toki bat emanen  
nieke festetako ekitaldi guztietan.  
Ezin gara beraiekin oroitu soilik adi-  
nekoen egunean. Garrantzitsua iru-  
ditzen zait beraiek ere bestaren par-  
te sentitzeko aukera izatea. Herritar  
guztiak elkartzeko hori polita iruditzen  
zait eta uste dut hor badagoela zer  
landua».



**TELLETXEA**  
MUEBLES | ALTZARIAK

- Altzari rustikoak
- 
- Altzari modernoak
- 
- Gazteentzako altzariak
- 
- Koltxoak
- 
- Sukaldeak

Rosa Seminario, 12 | T. 948 450 258  
31740 Doneztebe (Nafarroa)



**SOROPIL  
ARTIFIZIALA**

**IGERILEKUAK**

**HARRIA**

**BIG MAT KLOROA**  
5 KG | 200 g-ko tabletak

**24,95 € ↑**



**SUBSTRATU  
UNIBERTSALA 50L**

**6,20 €**

**ITXITURAK**

**PINTURA**

**BIGMAT SESIMBRA  
OBRAKO BARBAKOA**  
Ikatza eta egurrerako.  
Hormigoi grisa,  
adreilu horia eta  
adreilu islatzailekoa.  
Su-ontzia barne.

5394720

**435,95 €**

**BARBAKOAK**



**BARBAKOA BIG MAT  
SINTRA PARRILAREKIN**

**169,95€**

**MOSKITERAK**

**ETA...  
BURDINDEGIA  
PLADURRA  
ALOKAIRUAK  
ITURGINTZA  
ELEKTRIZITATEA  
LOREZAITZA  
MAKINAK  
AZULEJOAK**



# «Ttiki-ttikitatik ari naiz judoan eta horrela segitu nahi dut»

ANDREA MINDEGIA IRIBARREN DONEZTEBEKO JUDOKA



Doneztebeko bertze haur eta gazte aunitzen gisa, Erreka Kirol Elkartearen eskubaloian ibilitakoa da Andrea Mindegia Iribarren (Doneztebe, 1999). «Gustura» ibili omen zen eskubaloian, baina judoa da bereziki maite duena. Agerikoa da hori bere solasetan.

Aitaren arrimuan eman zituen lehenbiziko pausoak judoan, kontaktu duenez, «3-4 urterekin hasita». Geroztik, 20 urteko ibilbidean, «atta [Oskar Mindegia] eta Noelia [Aritzia] izan ditu bidelagun eta ederki dabil, gogotsu eta ilusioz. Emaizak dira horren erakusle. Alde batetik, joan den urteko ekainean gerriko beltza lortu zuen, eta beraz, lehenbiziko Dan-a. «Iruñean azterketa egin nuen eta aisa aprobata nuen», kontatu du. Eta bertzetik, dagoeneko bi aldiz irabazi du Nafarroako Judo Egokituko Txapelketa: «Lehenbizikoa 2023an irabazi nuen eta bigarrena aurrean. Bietan ongi moldatu nintzen».

Judo ikasle izatetik koska bat goiti egin du aurrean Mindegiak, eta «Noeliarekin batera, haurrei judoa erakusten aritzen naiz». Judoaren bueltan izanda, gustura dabil: «Ikastea eta erakustea biak gustatzen zaizkit. Irakasle lanean ere kontent ari naiz, haurrek gehienetan kasu egiten dute», erran du. Bi egunetan izaten dituzte entrenamenduak Doneztebeko ki-

roldegian: «astearte eta ortzegun arratsaldeetan. 18:30etik 19:30era ertainen taldearekin aritzen gara eta 19:30etik 20:30era handiekin». Hain zuzen, handien taldean ikasle izateara pasatzen da berriz.

Alde batean edo bertzean, argi dio: «Judoan segitu nahi dut». Ez du atzen-dua aitaren gomendioa ere: «Beti hoberena pentsatzeko erraten dit, posible dudana egiteko eta borrokatzeko». Eta horren harira, familiaren babesa nabarmendu nahi izan du: «Familia beti ondoan dut, familiaren babes handia sentitzen dut».

## Uxanen lanean eta trikitixarekin

Judoa da Mindegiaren zaletasun nagusia, baina ez bakarra: «Trikitixa ikasten ere ari naiz Doneztebeko Musika Eskolan. 21 urterekin hasi nintzen ikasten eta hagitik gustura nabil». Haurra zela euskal dantzetan ere ibili zen.

## «TRAPAN DANTZATZEA AUNITZ GUSTATZEN ZAIT»

**SALDIAS**  
HARATEGIA  
Deitu edo bidali whatsapp eskaerak egiteko eta bildu erosketak atean bertan, aparkatu beharrik gabe.  
948 450 191  
Karrika Nagusia, 19 • DONEZTEBE

**CASA ETXEA OSTIZ**  
ONGI PASA BESTAK!  
ZAPATA-DENDA  
LIBURU-DENDA  
PAPERTEGIA  
Parrokia, 17 Doneztebe • 948450289  
www.casaostiz.es

**AMA KONTXA**  
GASOLINDEGIA  
ONGI PASA BESTAK!  
**24 ORDUKO ZERBITZUA**  
BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ITXIA DAGOENEAN  
**BETE DEPOSITUA MAKINA AUTOMATIKOAN**  
TXARTELAREKIN EDO ESKUDIRUTAN  
PRODUKTUEN DENDA SUPERMERKATUKO PREZIOEKIN  
Ctra. N-121-A - Km 48,8 • DONEZTEBE  
T. 948 450 272 · 948 450 787





ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Hortik aparte, lanean ere ari da: «Berako Uxane okupazio zentroan aritzen naiz, astelehenetik ortzegunera 09:00etatik 17:00etara eta ortziraletan 09:00etatik 15:00etara. Koadernatze eta artisautza lanak egiten ditugu».

#### Herriko beste begira

Ate joka diren Doneztebeko bestetan ere ez du hutsik eginen. «Aunitz» gustatzen zaizkio herriko bestak, eta «bestetan dena polita» iruditzen zaiola dio.

Hala ere, egitarauaren barrenean, bestetako egun handian egiten duten Trapatan dantza da beretako bereziena: «Doneztebeko dantza mitikoa da eta dantzatzera ateratzen naiz. Horixe dut gustukoena». Baina horrez gain, «arratsetan ateratzea» ere gustatzen omen zaio: «Baina goiz erretiratzen naiz etxera, biharamunean goiz mugitzeko». Ekainaren 27tik uztailaren 1era, beraz, kimonoa utzi eta bestetan murgildua ibiliko da Mindegia.

**EROSKI city**  
 ENKARGUAK HARTZEN DIRA  
 Ongi pasa bestak!!  
 T. 948 456 152  
 Zazpigerutze, 8 · DONEZTEBE  
 JANARI-DENDA HARATEGIA FRUTAK

Ongi pasa bestak!  
**MARTA**  
 ILKARAJA/DEFOJA  
**Marta eta Maria**  
 Merkatarien karrika N°24  
 Doneztebe  
 T: 948450751  
 620300141

**BIDASOA**  
 GURPILAK - GASOLINDEGIAK  
 1999. URTETIK

**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT ZERBITZU ANITZAK**

*Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak*  
**24h-ko asistentziak errepideetan**  
**IAT aurreko zerbitzua dohainik**  
**Gasolindegia 24h irekita**

**Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko**

**GASOLIOA ETXERA**  
 eramaten dugu

**609 446 693 - 679 204 872**  
**bidaso@neumaticosbidaso.es**  
**www.neumaticosbidaso.es**

Alkaiaga Industrialdea  
 Ziobi Kalea 6  
 31770 Lesaka (Nafarroa)  
 948 625 663 - 636 293 125

**Ongi pasa bestak!**

Noain-Eskiroz Industrialdea  
 Y Kalea 10  
 31110 Noain (Nafarroa)  
 948 312 239 - 679 204 872



# «Txupinazoan sortzen den giroa berezia da»

MAIDER ILLARREGI BELARRA DONEZTEBEKO ZINEGOTZIA



**Doneztebe autoeskola**  
**ONGI PASA BESTAKI**  
 Leitzako errepidea, 2 | DONEZTEBE  
 doneztebeautoeskola@gmail.com

**Academia de Danza rebeca**  
**Rebeca dantza eskolatik, ongi pasa bestak!**  
 Datorren urtean gauza berriak etorriko dira, ezin duzue huts egin!  
**T. 722 606 785**

**DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA**

**CLUB AVIA txartelarekin %2ko deskontua erregaian eta %5eko deskontua dendako produktuetan**

Leitza bidea, 49 • T. 948 451 679 • www.doneztebe.net

**ONGI PASA BESTAKI**  
**• NURSTUDIOPILATES •**  
**PILATES METODOA K-STRETCH METODOA ORGANICS**  
 Rosa Seminario 7 • DONEZTEBE  
 M. 627 039 233 • @. nurfuejo@gmail.com

Sortzez irundarra den arren, betidanik doneztebarra sentitzen da Maider Illarregi Belarra. «Familia dena hemengoia dut, aita Oizkoa eta ama Donamariakoa», kontatu du, eta badira 25 urte Donezteben bizi denetik. Iaztik gainera, zinegotzia ere bada udalean.

«Ikasketa haundi bat». Halaxe deskribatu du udalean zinegotzi gisa bizitzen ari den esperientzia. «Orain herrian egiten diren gauzen ikuspegi orokor bat dut, eta jendearekin gatazkarik gabeko harremanak izaten ikasten ari naiz», azaldu du. Kontatu duenez, aurkeztutako taldeak bultzatu zuen bera ere hautagai izatera: «Nire gusturako talde ezin hobea zen, eta sentitu nuen momentua zela».

## Taldeko lana

Geroztik, bestak antolatzeko lan taldean buru gisa ari da, eta sare sozialetan eta komunikazioan ere aritzen da, eta hirigintzako eta kulturako taldeetan ere badago. «Lanak taldeka egiten ditugu, baina astean bitan elkartzeko gara, eta bertan partekatzen dugu alor bakoitza nola dagoen. Bilera horiek 2-3 ordukoak izaten dira». Taldeko bilera horiez harago, gainera, bakoitzak bere alorreko lanak egin behar izaten dituela azaldu du. «Zuk nahi adina lan bada, gainetik egin dezakezu, edo zuk nahi duzun

arte sakondu. Sartzen diren ordu denak ongi etorriak dira».

Azken aldian herriko bestak prestatzen ibili dira. Illarregiren kasuan, gainera, lehenengoz aritu da langintza horretan, iaz zinegotzi sartu orduko dena antolatua baitzen eta lan handi samarra dela aitortu du. Beren kasuan, musika taldeak kontratatu zituzten lehendabizi. «Otsail bukararako talde guztiak adostu genituen, hasieratik ez baduzu hori egiten gero gaizki ibiltzen ahal baitzara». Behin hori eginda, gainerako egitaraua azken urteetako programetako oinarri hartuta osatu dute.

Batez ere udaleko kideak aritu dira antolaketan, baina, azaldu duenez, herriko elkarteek ere aunitz laguntzen dute, eta «presentzia haundia» dute bestetan. Norbanakoen lana ere nabarmendu du: «Herritar boluntario pila bat aritzen dira aitzinetik antolakuntzan eta baita bestetako egunetan ere».

## Urteko bestatik gustukoena

Herriko bestak urteko bestarik gustukoena dira Illarregirentzat. «Gutti egoten naiz etxean, eta gehien disfrutatzen dudana da jendearekin egotea, eta zer giro eta umore on dagoen ikustea». Bestak hagitz maiteak baditu ere, nabaritu du zinegotzi denetik ardura handiagoa duela.



«Bestak disfrutatzen dituzu, baina, beti duzu ardura pixka bat dena ongi aterata dadin».

Aurtengoei dagokionez, aldaketa tiki batzuk egin dituzte egitarauan: ohikoa baino egun bat lehenago hasiko dituzte, ekainaren 27an, ortzeguna. «Ortziralean kanpoko jende aunitz egoten da, eta bezpera ortzegunean eginda, herritarrentzako izanen da». Horrez gain, bestetako azken eguneko bazkaria autogestionatua izan beharrean, zerbitzatua izanen da aurten, «prezio merkean denek joateko aukera izateko».

Hala ere bestetako programatik aunitzen arreta deituko zuena ETS En Tol Sarmiento talde arabarraren kontzertua da. «Zerbait diferentea da, eta jende dezente etortzea espero dugu, horregatik Bear Zanan izanen da». Taldea ekarriz «amets bat» bete nahi izan dute: «Gazteei eta herriko hainbat laguni galdetu genien zer musika talde nahi zuten, eta lehenengo zen ETS, eta ondoan paratu zten «hau amets bat da». Hori ikusteak bultzatu gintuen horretan lan egitera eta amets hori betetzen saiatzera, eta lortu dugu». Azaldu duenez, «es-

fortzu handia» izan da eta espero dute «jendearen harrerak konpentsatzea».

### Txupinazoa gustukoen

Bestetako ekitaldi guztien artean gustukoena txupinazoa da Illarregirentzat. «Negar eta guzti egin izan dut», azaldu du. «Sortzen den giroa berezia da, lehen eguna da, jendea hagitz gogotsu egoten da».

Aurten, gainera, behar duen inportantzia eman nahi izan diote txupinazoa botatzeaz arduratuko diren herritarrei. Ez du aurreratu nork botatuko duen, baina azaldu du bestetako aldizkarian emanen dutela horren berri. «Iruditzen zaigu bertzela ez zaiola behar den garrantzia ematen, eta azaltzen zergatik aukeratu dugun». Ohitura gisa mantendu nahiko lukete jaurtitzailaren berri bestetako aldizkarian ematea.

Besten atarian, bertakoak zein kanpotarrak Doneztebeko bestak disfrutatzerara gonbidatu ditu Illarregik, baina denaren gainetik «errespetuzko harremanak» izateko eta gauzak «zaintzeko» eskatu du. «Ea ez dugun berriz erran beharrik».



**17:00**  
OSTATIVA

LARUNBAT GAUETAN  
SEKULAKO GIROA!!!  
ONGI PASA INAUTERIAKI!

Merkatarien karrika, 28  
31740 DONEZTEBE

**eTi**  
Language school

Ongi  
pasa bestak!

Leitzako bidea, 90 Eguzki Eder · T. 615 70 68 02  
eliarrietaeskola@gmail.com

**ZUZEN**

ONGI PASA BESTAK!

**PROIEKTUAK | BALORAZIOAK**

**ETXEAK · LURSAILAK  
PISUAK · BORDAK  
PABILOIAK · LOKALAK**

**679 996 055**

Etheen alokairua eta salmenta

Parrokia 9 behea - Doneztebe / zuzen@zuzen.net

**MENDAUR MOTOR**

T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki  
COMPRAVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

Ongi pasa bestak!

**Mendaur Motor**

Leitza errepidea, 47 - Tel.: 948 45 03 33



Arrieta erdian sari banaketa ekitaldian, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin eta Enrique Davila BBK Fundazioaren ordezkariarekin.

## «Lasaitasuna eta asetasuna ematen dit sorkuntzak»

**JOSU ARRIETA SARRATEA** R.M. AZKUE LITERATURA SARIETAKO IRABAZLEA

Euskaltzaindiaren 2023ko Resurrección Maria Azkue Literatur Sariatetan, 14 eta 17 urte bitartekoen kategorian, lehenbiziko saria lortu du Elgorriagako gazteak, narrazioan

**G. PIKABEA** ELGORRIAGA

«Lagunekin denbora pasatzea, mendira joatea, musika aditzea eta idaztea gustatzen zaion 18 urteko gaztea» dela erranez aurkeztu du bere burua Josu Arrieta Sarrateak (Elgorriaga, 2006). Hain zuzen, azken zaletasun horrek, idazteak, ireki dio Euskaltzaindiaren 2023ko Resurrección Maria Azkue Literatura Sariatetan irabazle izateko atea. Guztira 374 lan aurkeztu dituzte, eta 14 eta 17 urte bitartekoen kategorian, Elgorriagako gaztearen *Itaxura* lana izan da irabazle narrazioan. Epaimahaiak bere lanaren estiloa nabarmendu du, «fineziaz eta naturarekiko konparazio ederrez egindako kontakizuna»

izan dela erran du, eta «estiloan du bereizgarri aparta, topikerietatik urrun betiere». Horrekin batera, «gizarteko gai latzetako bat gordintasunez bezainbeste poetikotasunez» landu duela azpimarratu du. **Literatur lehiaketa batean parte hartu duzun lehenbiziko aldia izan da?**

Bai, eta tankera honetako lan bat idazten dudana lehenbiziko aldia ere bai. Euskarako irakasleak lehiaketa honetan parte hartzen ahal genduela jakinarazi zigunean, aukera ona iruditu zitzaidan nire gaitasunak zein diren ikusteko eta, aldi berean, ikasteko. Gainera, irakaslea bere garaian ere saritua izan zela jakin nuen,

are erakargarriagoa iruditu zitzaidan.

**Zer moduzko esperientzia izan da?**

Esperientzia polita eta aberasgarria izan da. Alde batetik, lana idazteko momentuari dagokionez, neure burua hausnarketa sakonean sartu nuen eta gogoratzen zitzaidana paperera pasatzea josteta gisa hartu nuen, erronka bat bezala. Bertzetik, saria hartze-

**«EGIN DIDATEN ERREKONozIMENDUA SEGITZEKO BULKADA IZAN DA»**

rakoan harro sentitu nintzen, aipatutako erronka hori gainditu izan banu bezala.

**Nolako lana da *Itaxura*?**

Erran bezala, hausnarketara eramanez lana izan da, eta bertan kontatzen ditudan hainbat momentu edo egoera nik bizitako bertze egoera batzuen paralelo sentitu ditut. Bertzeren batean hala ez bada, egoera horretan ni nola sentituko nintzatekeen ere imajinatutako. Kontatu nahi izan dudana errepertatu, lau-soagoa den gaia da, lehenbiziko irakurraldian ententitzen ahal denetik haratago baitoa.

**Zergatik tratu txarren gaia?**

Ez zait aunitz gustatzen galdera, izan ere, nik ere ez bainuen argi zein gairi buruz aritu. Istorioa estilo intimistan eta poetikoan lantzea nuen nik helburu, eta ia istorioa akitzearenuen erabaki nuen tratu txarren gaian ardatzea. Dena den, hau batez ere pertsonaiaren sentimenduei arazoia bilatzera behartua sentituta erabaki nuen, baina aipatu dudana moduan, sentimenduetan zentratu nahi nuen eta ez haien eragileetan.

**Gaiaz idaztea erraza izan da?**

Horrelako gaiez aritzea ez da inoiz erraza izaten, baina nire helburu nagusia haiek salatzea, kritikatzeko edo dena delakoa ez zenez, aiseago egin dut.

**Epaimahaiak zure lanaren estiloa nabarmendu du, eta halako gai bat «gordintasunez bezainbeste poetikotasunez» landu duzula ere adierazi. Zer sentitu duzu?**

Nik nabarmendu nahi zuena epaimahaiak nabarmendu izateak lasaitu nau, horrek kezkatzen baininduen. Estilo poetikoa ahalik eta gehien integratzen saiatu nintzen, protagonistaren sentimenduetan naturan eta bereziki niretako hagitza garrantzitsua den elementu botaniko batean islatzea ailegatzearaino. Beraz, gozagarria izan da.

**Espero zenuen lehiaketan saritua izatea?**



Zerbait aurkezten nuen lehenbiziko lehiaketa izanik, ez nuen itxaropen handirik. Euskal Herri mailako lehiaketa zenez, bertze hainbat gazte gailenduko zitzaizkidalda uste nuen, eta hala ez izatea sorpresa polita izan da. Gainera, irabazi nuela berez jakinarazi beharuko luketena baino dezente beranduago egin zuten, eta ordurako erabat asimilatua nuen ez nintzela saritua izan.

#### **Izenburua azalduko zeniguke?**

Istorioren izenburua kontakizunean metaforikoki pare bat aldiz erabilitako kontzeptua da. *Itaxura* definizioz, hauxe da: «Itogina; teiltatu hegaletik behera erortzen den ura». *Itaxurak* beti arazo gisa identifikatu izan ditugu. Nik ere, bidezidor horretatik segitu dut, eta kasu honetan protagonistak jasandako guziaren isla da. Arazo hauek, itaxurak bezala, handi edo tiki izan daitezke. Hala ere, konpontzen ahal dira eta horretarako itxaropena eman nahi izan dut narrazioaren bukaeran mezu hori gordez.

#### **Nondik eta noiztik datorkizu idazteko afizioa?**

Idaztearena ariketa pertsonal gisa hasi nuen duela pare bat urte, batez ere autoezagutzarako baliatu nuena. Hausnartzeko balio didan tresna da niretako, eta aurkitu nuenetik arunt erabilgarria zait. Horregatik, hain zuzen ere, tonu intimista erabiltzea da errazena niretako.

#### **Idazteko erraz moldatzen zara?**

Gustuko dudan zerbait izanik, bai, ongi moldatzen naiz. Hala ere, lantzen ditudan gaiak zein diren kontuan hartuta, nire idazteko prozesua motela da. Honek ez du erran nahi erraz moldatzen ez naizenik, nire ustez erraztasuna ez baitago abiadurarekin loturik. Estiloari dagokionez, poetikoa da gehien gustatzen zaidana, hauxe baita mintzairarekin jostatzea gehien ahalbidetzen duena.

#### **Zer ematen dizu sortzeak eta idazteak?**

Lasaitasuna eta asetasuna ematen didan ekintza da sortuntzarena. Neure buruarekin konexio berezia sorrarazten dit, eta etengabe ikasteko aukera ematen dit.

#### **Sari honek gehiago idazteko motibatuko ote zaitu?**

Azkue sarietan egin didaten errekonozimendua, dudarik gabe, honetan segitzeko bulkada izan da. Ilusio handia egin dit, eta ilusio horretan

bizitzen segitzeko ezinbertzekoa izanen dut honetan segitzea.

#### **Bigarren Batxilergoa akitu berria duzu. Etorkizunera begira zer asmo dituzu?**

Oraintxe bertan, selektibitate eginda, etapa honi amaiera ona ematea dut epe motzean helburu. Ondotik, irailan, Gasteizen Euskal Ikasketak egiten hastea gustatuko litzaidake. Dena den, bitartean

udaz gozatzea tokatzen zait eta hari ahalik eta probetxu gehien ateratzen saiatuko naiz.

#### **Zerbait gaineratu nahiko zenuke?**

Orain arte nirekin egon diren lagun, kide, senide eta gainerako guziei eskerrak eman nahiko nizkieke guztiagatik, ez bakarrik literaturaren arloari dagokionez, baita bertze guztiagatik ere.

**JOVEN in**  
CAJA RURAL DE NAVARRA

**JOVEN IN  
ALA JOVEN  
OUT ZARA?**

**Komisiorik gabe  
zure erosketak  
ordaintzean dibisak  
aldatzeagatik**

Ez dugu dibisak aldatzeagatik komisiorik aplikatzen zure erosketak atzerrian Euro eremutik kanpo ordaintzean zure JOVEN in txartelarekin.

# Ekaineko azkeneko asteetan ere izanen da non gozatua

Ekainaren 15ean festa erraldoia antolatu du Jeiki abesbatzak eta ekainaren 23an ere izanen da festarako aukera

## TTIPI-TTAPA

Maiatzean hasitako Kultur Aroa, ekainaren 15ean, Jeiki abesbatzak antolatutako emanaldia-rekin borobilduko dute. Plazan egingen dute ekitaldia, 20:00etan, eta abesbatzako kideekin batera, gonbidatu bereziak igoko dira oholtzara. Lesakako musika bandako musikariek, Aurrierako dantzariak, akordeoi-lariak, erraldoi eta buruhaundien konpartsako kideak, gaiteroak eta bertsolariek parte hartuko dute eta hainbat sorpresa izanen dira. Sarrera dohainik izanen da, baina abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko egin dituzten ekitaldietako gastu ekonomikoari aurre egiteko boletoak saltzen ari dira. Bost eurotan jarri dituzte salgai herriko estatu eta komertzioetan. Emanaldiaren bukaeran egingen dute zozketa.



Herri afaria ekainaren 23an. ARTXIBOA

## Suaren bueltan

Ekainaren 23an, argazki ederra ateratzeko aukera izanen da berriz ere herriko plazan. Uda-ko solstizioa ospatzeko festa prest dute: 18:30ean, umeek ingurutxoak dantzatuko dute plazan, eta ondoren, txistor opilak eta freskagarriak banatuko dituzte. 21:30ean mahaian bueltan bilduko dira eta herri afaria egingen dute plazan. Afalondoa dultzaineroek alaituko dute eta suak piztuko dituzte.

## Teknologia berrietan trebatzeko ikastaroak eskainiko dituzte Mimukain

### TTIPI-TTAPA

Internet bidez komunikatzen ikasi eta teknologia berrietan trebatzeko, hainbat ikastaro jarri dituzte herritarren eskura. Dohainik izanen dira eta Mimukai garapen zentroan eskainiko dituzte. Lehenbiziko ikastaroa, ekainaren 17tik 28ra emanen dute eta langabetuei edota lana hobetu nahi dutenei zuzendua dago. Berrogei orduko ikastaro bat izanen da eta goizez eskainiko dute, 09:30etik 13:30era. Ziurtagiri digitala, online erosketak, posta elektronikoa, nabegazio

segurua Interneten... izanen dira landuko dituzten gaietako batzuk. Eskainiko dituzten beste bi ikastaroak herritar guztiei zuzendutakoak dira. Ekainaren 17tik 21era, Android telefono mugikorren erabilerari buruzko ikastaroa eskainiko dute 16:00etatik 20:00etara. Bigarren ikastaroa, ekainaren 24tik 28ra izanen da, 16:00etatik 20:00etara.

Informazio gehiago lortu nahi dutenek edo ikastaroetan izena eman nahi dutenek 948 01 20 12 telefonora deitu beharko dute.



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

## Nafarroako bertso eskolen topaketak

Maiatzaren 26an, Nafarroako bertso eskoletako 70 bat ikasle eta irakasle elkartu ziren Leitza. Bertsoan ere aritu ziren eta 23 parte hartzaileen artean, Beñat Anbustegi Miura eta Araia Irigibel Terreros izan ziren irabazleak. Bideo lehiaketan Lakuntza, Bera eta Antsoain/Txantreako bertso eskolak saritu zituzten.

## Ur depositua hornitzeko hoditeria eta ur-hartuneak hobetzeko lanak hasi dituzte

### TTIPI-TTAPA

Gorritzaran auzoko Gazpillo iturburuaren eta herriko EU-TEaren (Edateko Uren Tratamendu Estazioa) artean ur biltzea egiteko eta goi hornidurako hoditeria berritzeko lanak hasi ditu udalak. Idoi enpresari esleitu dio proiektua 745.000 euro inguruan eta Nafarroako Gobernuaren %80ko dirulaguntza izanen dute.

### Hilabetetako lana

Gazpillozar inguruan dagoneko hasi dituzte hoditeria hobetzeko lanak eta egin beharreko guztiak bukatzeko hila-bete batzuk beharko dituzte. Gazpilloko presatik ura hobe-ki hartzeko, herriko depositura eramateko eta kudeatzeko baliagarriak izanen dira hoditerian egin behar dituzten



Gazpilloko presa. UTZITAKOA

hobekuntza hauek. Neurri hauekin, ur-ihesak saihestu eta ur-horniduraren eraginkortasuna hobetuko delakoan dago udala, «ur ihesak saihestuko baititu, eta edateko kalitatezko ur nahikoa epe luze-rako ziurtatuko da udalerriko osoarentzat. Herriaren eta herritarren eguneroko bizitzan ura ezinbesteko eta oinarrizko osagaia dela jakinik uraren kudeaketa egokia egitea, oso garrantzitsua da».



# Ihes-gela ibiltaria herrian izanen da datozen egunetan

Ekainaren 14an, 15ean eta 16an izanen da ihes-gelan jolasteko aukera

## TTIPI-TTAPA

UEMArekin elkarlanean eta *Euskaraz barra-barra* egitasmoaren baitan sortu dute 17. logela ihes-gela. Euskaratik eta euskaraz sortutako ihes-gela (scape room) honen helburua aisialdian ere euskaraz gozatzea da. Saio bakoitzean bost lagunek parte hartu dezakete gehienez eta 40 minutuko tartea izanen dute galderak eta probak gaindituz, ihes-gelatik ateratzen saiatzeko. Lortu ezean, amaitutzat emanen da jokoa. 16 urtetik gorakoei zuzendutako ekime-

na da eta euskara ulertu edota hitz egiteko gai den edonork parte hartu dezake.

## Izen-ematea

17. gelan sartu eta jokoa parte hartu nahi dutenek alde aurretik izena eman beharko dute ihes-gela.eus web orrian. Erreserba egiteko eskaintzen diren egun eta orduen gainean klikatu eta galdetegia bete beharko dute. Erronka eta gonbidapena luzatu dute: «Zatoz 17. logelara. Lehen 40 minutuak dohainik dira, gozatu, eta amets on!».

## Txupinazoa nork botako duen erabakitzeko ordua

Ekainaren 6an erabaki behar zuten nortzuk izanen diren txupinazoa botatzeko hiru hautagaiak. Ekainaren 22ra arte telematikoki bozkatzeko aukera izanen dute herritarrek eta biharamunean, San Juan bezperan, kutxa bat jarriko dute plazan botoak biltzeko.

## Herrian egindako txikizioak salatu ditu udalak

Batzuk herria eraikitzen ari diren bitartean, «guztiona den hori hondatzeko eta txikitze-lanean ari direnak ere badirela» salatu du udalak. Maiazaren 31n eta ekainaren 1ean karrapeko komunetan egin zituzten txikizioak eta gehiago ere izan dira azken aldian.



ELHUYAR FUNDAZIOA

## Elhuyarren Zientza Astean sarituak

Leitzako Amazabal Institutuko batxilergoko ikasleak sarituak izan ziren Elhuyarren Zientza Astean. Bigarren saria jaso zuten, *Zigarrokin eta botiken eragina hazien erneketan* proiektuarekin. Portugalgo Mostra Nacional de Ciencia Portuguesa azokan parte hartzeko aukera lortu dute.

## Leitzeko EBKaren urteko batzarra ekainaren 13an

Leitzeko Energia Berriztagarrien Komunitateak urteko batzarra egingen du ekainaren 13an. Herri aretoan elkartuko dira 18:00etan lehenengo deialdian eta 18:30ean bigarrean. Azken urteko erreposoa egin eta helburu berriak finkatuko dituzte.

## Erosketa bonuak eskuratzeko aukera ekainaren 16ra arte

Kaxkabeltzak eta udalak, herriko komertzioak bultzatzeko bonu kanpaina antolatu dute. Hogeita euroko bonua erosita, hogeita hamar euro gastatzeko aukera izanen dute. Ekainaren 16ra arte eros daitezke bonuak eta ekainaren 17tik uztaillaren 14ra erabili beharko dituzte.

**MUSUNZAR**  
OSATU-JAIEZELA

UDAKO KARTAREN AURKEZPENA

BERTAKO ETA GARAIKO PRODUKTUAK

Ebarren 14, Leitza - 747 404 968

**KATEA BIKE**

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanltonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

ORBEA PINARELLO MONTY  
BERCAMONT BH MERIDA

## Suaren bueltan festarako aitzakia ekainaren 23an

Guraso elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu haur eta gaztetxoentzat eta herritar guztiak afaritarako elkartuko dira

### ENERITZ IRAOLA

Urteko gaurik berezienean suaren bueltan bilduko dira aurten ere herritarrak. Afalondoan piztuko dituzte suak, baina festa giroa ordu batzuk lehenago hasiko da nabaritzen. Guraso elkarteak kideek arratsalde pasa polita antolatu dute haur eta gaztetxoentzat. Indarrak hartzeko 17:00etan arratsaldekoa izango dute eta 17:30 aldera, pirata onenen antzera, altxoraren bila ibiliko dira herrian. Segidan, 19:30ean, Iago magoak ikus-kizuna eskainiko du eta herri

afariarekin eta suekin boro-bilduko dute eguna. Afarirako udalak mahaiak eta edariak jarriko ditu eta afaltzekoa norberak eraman beharko du etxetik.

### Sutarako material bilketa

Aurreko urtean bezalaxe, sua egin ahal izateko materiala bilduko dute guraso elkarteak kideek. Ekainaren 19an, asteazkenean, etxez etxe joango dira eskean 18:30etik aurrera. Horregatik, herritarrei kartoiak eta zakuak biltzen joateko eskaera egin diete.

### Sanpedroetako afarirako txartelak salgai 18an eta 19an

Ekainaren 29ko herri afarirako txartelak saltzeko egunak eta orduak zehaztu dituzte Lagunartekoek. Plaza zaharrean egongo dira ekainaren 18an eta 19an, 18:00etatik 19:00etara. Hortik aurrera saldutako txartelak bost euroko gainkostua izango dute.

### Kirol udalekuak antolatu dituzte uztailaren 1etik 19ra

Hiru orduz, 10:00etatik 13:00etara, eskainiko dute zerbitzua. Izen-ematea ekainaren 16a baino lehenago egin beharko da udaletxean edo Kirol Mankomunitatean. Haur bakoitzeko 90 euro ordaindu behar dira eta bigarren seme-alabek %25eko deskontua izanen dute.

### Udaleko kudeaketa batzordeko kideek egin dute lanen banaketa

### ENERITZ IRAOLA

Maiatzaren 23an egindako batzarrean banatu zituzten ardurak kudeaketa batzordeko kideek. Alaitz Olanok eta Olatz Telleriak festa batzordearen, Euskararen bueltako kontuen eta berdintasun batzordearen ardura izango dute. Irantzu Alustiza izango da

eskola kontseiluko ordezkaria eta Aingeru Etxaiderekin batera, mendia eta kirolaren ardura ere izango du. Beak eta Igarok, Cerderna Garalurreko, Plazaola Partzuergo Turistikoko, Gizarte Zerbitzuetako, Udalbiltzako eta Mendialdea Mankomunitateko gaiak landuko dituzte.



BAKARTXO ANIZ

### Aurkitutako urubiak aske berriz ere

Apirilaren 1ean bi urubi topatu zituen Laiak etxe inguruan. Biharamunean etorri ziren bila basozainak eta Nafarroako Gobernuaren Fauna Basatia Berreskuratzeko Zentroan, Ilundainen, eduki zituzten indartu bitartean. Maiatzaren 28an, herrian askatu zituzten beste bi urubirekin batera.



JAIONE OLAZABAL

### Sendotzak eta Korpus Eguna

Ekainaren 1ean ospakizun bikoitza izan zuten herriko kristauak. Sendotzak egin zituzten argazkian ageri diren sei gazteek: Aimarrek, Eunatek, Aratzek, Maddik, Andreak eta Jonek. Gainera, hitzordua baliatu zuten Korpus Eguneko prozesioa egiteko Polainene ataritik elizaraino.



## Goizueta 65+ taldea jarri du martxan udalak

Hilabete behin biltzen dira, herriko adinekoen bizi kalitatea hobetzeko ekintza plana aurrera eramaten joateko

### TTIPI-TTAPA

65 urte baino gehiagoko herri-tarren bizi kalitatea hobetzeko, lanketa berezia egiten ari dira herrian. 2022an Nafarroako Gobernu toki administrazio-ko sailak herriko adinekoen egoera zein zen aztertze ikerketa batean parte hartze aukera eskaini zion udalari. Solera Rural enpresak egin zuen azterketa eta diagnosi bat eta hurrengo urteetan burutzeko ekintza plan bat osatu zuten.

Ekintza plana aurrera eramanez ahal izateko herritarrak inplikatu eta beraien iritzia jasotzea ezinbestekoa izanen da. Horretarako, Goizueta 65+ lantaldea sortu dute. 65 urtetik gorako herritarrak, osasun etxe eta gizarte zerbitzuetako langileak, zaintza arlokoak... elkartu dira. Maiatzaren 9an egin zuten lehenbiziko biletta eta urrirarte

hilabete behin biltzeko asmoa dute.

Hasierako bilerak dinamizatzeko eta ekintzak martxan jartzen laguntzeko, Solera Rural enpresaren laguntza izanen dute. Gainera, *Pertsona helduen ituna* proiektua finantzatzeko 7.079,44 euroko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

### Tailerrak ekainean

Helduen osasuna hobetzeko tailerrak ere antolatutakoak dira. Hurrengo saioak ekainaren 25ean eta 26an izanen dira. Helduei eta haien zaintzaileei zuzendutako saioak izanen dira eta zahartze osasuntsuaz, ariketa fisikoaz, elikaduraz, afektibitateaz, ingurumenaz... ariko dira solasean Goizuetako Osasun Etxeko profesionalak. Udaltxeko ganbaran elkartuko dira 17:00etatik 18:30era.



SAIZ PHOTOS

## Lujanbio bigarren izan da Irati Trailen

Hodei Lujanbio herritarrak sasoi bikainean dagoela erakutsi zuen berriz ere. Irati Trail lasterketan bigarren postua lortu zuen 30 kilometroko ibilbidea 03.01.57ko denbora osatuta. Bere horretan marka bikaina dena, are eta lorpen handiago da aurreko asteburuan Zegama Aizkorri maratoia egin zuela jakitean.

## Eskulanen erakusketa labaderoan

Ostiralero arratsaldeko lauretatik zazpitarira Iriartenean eskulanetan ibili direnek, erakusketa ederra prestatu zuten Zubimuxuko Labaderoan. Urte osoan egindako lana herritarren aurrean erakutsiz.



FELIX LOIARTE



GURASO ELKARTEA

## Arano eta Goizueta lotuz egunpasa ederra egin dute

55 bat laguneko kuadrilla elkartu zen guraso elkarteak antolatutako hitzorduan. Mendian hasi zuten eguna, bakoitza bere herritik atera eta Goizueta eta Arano artean elkartu ziren. Handik, Aranora joan ziren eta giro ederrean pasa zuten eguna.

## Ekainaren 28an etorriko da liburutegi ibiltaria

Ekainaren 28an hilabeteroko bisita egingen du liburutegi ibiltaria Goizuetara eta Aranora. Ekainaren 15etik aurrera goizeko ordutegiarekin hasiko dira Leitzako liburutegian eta irailaren 14ra arte 08:30etik 14:30era egonen da zabalik. Horregatik, liburutegi ibiltaria goizez etorriko da: 11:30etik 12:30era Goizuetan egonen da Arkaitz eta 13:00etatik 13:30era Aranon. Liburuak eskatu nahi dituztenek bibli-lei@navarra.es-era edo 621 24 80 24 telefonora mezu bat bidal dezakete.

## Udako jostaldiak uztailaren 29tik abuztuaren 23ra

3-12 urteko haurrendako izanen dira eta ekainaren 17tik 21era ematen ahalko da izena

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Dindaia Fundazioak Udako Jostaldia Euskaraz antolatu dute aurten ere, 3-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua. Uztailaren 29tik abuztuaren 23ra egingen dituzte udalekuak, Elizondoko Eskolan astelehenerdikortziralera. Goizez izanen dira saioak, 10:00etatik 13:00etara.

### Izen ematea

Izena emateko epea heldu den asteleheneran, ekainaren 17an hasiko da eta 21era arte egonen da irekia. Epea luzaezina da eta plazak mugatuak izanen dira, beraz, kopurua gaintuz gero, zozketaz aukeratuak dituzte. Lau asteak egingen dutenek eta Baztanen errolatutakoek izanen dute lehen-tasuna.

Prezioak aste kopuruaren arabera izanen dira. Baztanen errolatutako haurren kasuan:

- Aste 1: 35 euro.
- 2 aste: 70 euro.
- 3 aste: 105 euro.
- 4 aste: 140 euro.

Horien artean, guraso bakarreko familiek edota haurride batek baino gehiagok izena emanez gero:

- Aste 1: 30 euro.
- 2 aste: 60 euro.
- 3 aste: 85 euro.
- 4 aste: 110 euro.

Baztanen errolatuak ez daudenek asteko 45 euro ordaindu beharko dituzte. Izen ematea [dindaia.eus](http://dindaia.eus) webgunean egin daiteke eta ordainketaren kontzeptuan haurren izen-abizenak paratu beharko dira. Informazio gehiago: 948 266 240.



UTZITAKOIA

### Mila-Ananda arte erakusketari bisita

Maiatzaren 21ean, 23an eta 24an Elizondoko Eskola Publikoko 5.D, 6.D eta A ereduko ikasleek Mila-Ananda erakusketa zentroak antolatutako arte tailerren parte hartu zuten. Ikasleak gustura aritu ziren eta zentroak eskerrak eman dizkio guraso elkarteari laguntzagatik.



Herriko 12 haur eta gaztetxok parte hartu zuten. NEREA MORTALENA

### Erregina eta Saratsak ospatu dute Arraiozen maiatzeko azken igandean

#### NEREA MORTALENA

Urtero bezalaxe, maiatzeko azken igandearrekin Arraiozen Erregina eta Saratsak ospatu zen. Urte luzez egin den ekitaldia dugu eta bertan herriko neskatikoei parte hartzen dute.

Bi Erregin aukeratzen dira. Ohiturak dioenez, batek Mardea auzokoa eta bertzeak Urrutiakoa behardu izan, hala ere, kasu honetan ez zen hori errespetatu, Erregin izateko adinean zeuden bi neskatikoei Mardeakoak zirelako. Aiora Arraztoak eta Aisha Zubietak bete zuten paper hori.

Saratsak, aldiz, Nahia Lazkano, Olatz Bergara, Alaitz Urrutia, Ainara Zubigarai, Irati Gamio, Elaia Zubigarai, Aitana Iraola, Aiuri Garmendia, Intza Garmendia eta Enea Mindegia izan ziren.

Herritik barna koplak kantatuz eta Erreginen dantza egiten pasatu zuten arratsaldearen zatirik haundiena neskek. Egunari akabaila emateko, bildutako diruarekin merienda goxoa dastatzeko aukera izan zuten herriko ostatuan, baita sos pixka bat etxera eramateko ere.



ALMANDOZKO ESKOLA

### Hazitegi berria Almandozko eskolan

Eskolak adierazi duenez, «Elizondo Lanbide Eskolak martxan duten Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioan parte hartzeko eskaintza luzatu zigun eta hazitegi bat eskatu genion. Haundia da jasotzen duten eskaera kopurua, hortaz, ikaragarri eskertuak gaude gurea onartu eta aitzinerat eramateagatik!».



# Apartamentu turistikoak mugatzeko kanpaina

Bizitegi blokeetako estatutuak aldatzera animatu dute gazteek, eskaintza turistikoa mugatu eta alokairuak sustatzeko

## TTIPI-TTAPA

«Baztanen bizitegia alokatze-ko dauden zailtasunak ikusirik», Gazte Asanbladak eta Talde Ekosozialak «Auzitegi Gorenak apartamentu turistikoak mugatzeko eman duen aukerari buruzko informazio kanpaina» abiatu dute.

Izan ere, «auzitegiak bizitegi blokeetan apartamentu turistikoak debekatzeko aukera eman du, betiere komunitateko estatutuetan jarduerak komertziala espresuki galaraztea erabakitzen badute jabeek».

Azaldu dutenez, «apartamentu turistikotarako erabiltzen diren bizitegiak dira alokairuan emateko baldintza hoberenak dituztenak. Eta horrek alokairuan emateko bizitegien kopurua gutxitzea dakar, bizitegirik ezin harra-patzea, kariotzea...». Haranak 800 etxe huts inguru ditu, «eta eraikitako ondare hori hutsik edukitzea ez da onargarria».

Bizitegi komunitateetako estatutuak aldatzera animatu dituzte herritarrak, «inoren zain egon gabe egiten ahal delako, gure eskuetan dago».

## Zuzendaritzari Laguntzeko Goi Mailako eskaintza modularra Lanbide eskolan

### TTIPI-TTAPA

2024/25 ikasturteko 2+1 programaren barnean, Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako zikloa osatzeko eskaintza berria egin du Lanbide Eskolak: Zuzendaritzari Laguntzeko Goi Mailako Teknikaria izateko prestakuntza.

Ikasleak titulazio bikoitza lortuko du eskaintza modularrekin.

Aurrematrikula egiteko epea ekainaren 17tik 28ra izanenda, eta matrikula datak uztailaren 16tik 18ra bitarte. Informazioa gehiagorako deitu 848 431 632 zenbakira.



AIMAR AROZENA

## Bikain joan dira Almandozko bestak

Giro ederra izan zuten bestetan Almandozen, eta antolatzaileen erranetan, «espero genuena baino jende gehiago etorri zen, denak besta errespetuz eta ongi egitera. Esker oneko hitzik bertzerik ez ditugu, eta bereziki herriko gazteendako emandako laguntzagatik!».

# OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

[www.oteizaarquitectos.com](http://www.oteizaarquitectos.com)

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

@oteizaarquitectos

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK  
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

ANZABAL

INMOBILIARIA  
ZURICH ASEGUURAK

[www.anzabal.com](http://www.anzabal.com)

Santiago, 15 ELIZONDO  
+ 34 948 580 804

# Kartzelen egoeraren inguruko hausnarketa jardunaldiak Txokoton

Ortziralean eta larunbatean proiektzioak, solasaldiak eta kontzertuak izanen dira tabernan

## TTIPI-TTAPA

Elizondoko Txokoto tabernak hainbat ekitaldi antolatu ditu ekainaren 14an eta 15ean, 'Zigorra birpentsatzen' izenpean. Kontzientziazioa zabalteaz gain, Salhaketa Nafarroa elkartearendako dirua biltzea dute helburu jardunaldiek.

## Ekainak 14

Ortziralean 19:00etan abiatuko da egitaraua, *Pocos, buenos y seguros. Así empieza la revuelta de los presos sociales* film laburraren proiektzioarekin. Ondotik solasaldia izanen da Ales Paya zuzendariarekin eta Salhaketakoko June San Millanekin.

## Ekainak 15

Larunbatean ekitaldi ugari izanen dira ostatuan. 11:00etan *Kartzeleko aislamenduaren*

*indargabetzearen aldeko kanpaina* txostena aurkeztuko dute. Alicia Alonso abokatua, presondegiko sisteman aditua eta giza eskubideen aktibista feminista izanen da hizlaria, Salhaketakoko kide den Maje Martinezekin batera.

12:30ean Lohitzune Zuloaga soziologoak *Zigor populismoaren gorakada: arazo konplexuaren aurrean kartzela konponbide bezala* solasaldia aurkeztuko du.

18:00etan, berriz, *Xantaia terapeutikoa: kartzeletako gobernuen aldaketak* mintzaldia aurkeztuko dute Dario Malventik eta Santi Cobosek, kartzelaren kontrako militanteek.

Eguna borobiltzeko, bi kontzertu prestatu dituzte. 20:00etan Hitz Tantak taldeak joko du, eta 22:00etan Mehatxu metal taldeak.



BAZTANGO TALDE EKOSOZIALA

## Justizia klimatikoaren aldeko ekintza

Talde Ekosozialak '1,5°' ikurra margotu du Elizondoko argi kaxetan, kontzientziazioa zabaldu nahian. Izan ere, «munduaren banaz bertzeko tenperatura igatearen muga 'seguruaz' ari da: mende honen akabailarako planetaren tenperatura ezin da berezkoa (14°) baino 1,5° handiagoa izan».

## Elizondoko AEKko aurrematrikula kanpaina

2024/25ean euskaltegian ize-na emateko aurrematrikula epea ekainaren 28ra arte izanen da, *aek.eus*-en edo euskaltegian bertan. Horrela, aurtengo prezioari eutsi, ordainketa malguago izan eta lehentasuna edukiko da taldeak eratzekoan.

## 'Elizondo, 1950-1970' liburuaren aurkezpena

Gabriel Inbuluzketa Alcasena idazleak *Elizondo, 1950-1970: Recuerdos del olvido* liburuaren aurkeztuko du ekainaren 14an, ortziralea, Elizondon. Arizkunenea Kultur Etxean 19:30ean izanen da hitzordua, Baztango Udalak eta Lamiñarrak argitaletxeak antolatua.



**ELIZONDON**  
Uztailaren 29tik abuztuaren 23ra  
Euskaraz dakiten 3-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako  
Astelehenetik ortziralerara 10:00-13:00  
**ELIZONDOKO ESKOLAN**



**IZEN EMATEA ETA INFORMAZIO GEHIAGO**  
Ekainaren 17tik 21era

Epea luzaezina. Plaza mugatuak.  
Plaza hauek baino izen-emate gehiago izanen balira, zozketa eginen litzateke.  
(Lehentasuna lau aste egiten datenek eta Baztanen erroldatutakoek izanen dute)

**PREZIOA**

Baztanen erroldatuak.	Baztanen erroldatuak. Guraso bakarreko familiak eta haurride batek bainogehiagok izena eman baldin badu:	Baztanen erroldaturik ez daudenak:
Arrunta:		
1 aste: 35€	1 aste: 30€	45€/astea
2 aste: 70€	2 aste: 60€	
3 aste: 105€	3 aste: 85€	
4 aste: 140€	4 aste: 110€	

**ORDAINKETA**

[www.dindala.eus](http://www.dindala.eus) helbidean izena ematearekin batera

Kontzeptuan: haurren izen-abizenak  
Edozein zalantza izanez gero, hurrengo telefono zenbakira deitu: 948 266 240

\*Haurrak ez badira bertaratzen ez da dirua itzuliko.

54 ttipi-ttapa | 856. zk. | 2024-06-13



# BRT eguna ekainaren 29an Lekarozen

Egun osoko egitaraua prestatu dute, bazkaria barne, eta txartelak ortziralera arte egonen dira salgai

## TTIPI-TTAPA

BRT Menditarrek taldekegun osoko egitaraua prestatu du ekainaren 29an, larunbata, Lekarozen, taldeko bazkideei eskerrak emateko helburuarekin. Goizean Rugby Seven txapelketa egingen dute, eta 14:00etan zikiro bazkaria

izanen da, aukera begetarianoarekin. Arratsaldea girotzeko, berriz, musika izanen dute A.C.A.Bamos Tarde Djarekin. Bazkariko txartelak ekainaren 14ra arte erosten ahal dira, 20 eurotan, Elizondoko Intzan eta Larraintzarko ostatuan.



R. OSKARIZ

## Ia lau hilabetez greban Lozy'sen

Maiatzaren 24an Elizondoko karriketara atera ziren laugarren aldiz Lozy'seko langileak, «hitzarmen duin bat» eskatuz. ELA enpresarekin bildu bada ere, «ez du baldintza duin batzuk negoziatzeko borondate errealik erakutsi». Heldu den astean laugarren greba hilabetea izanen dute.

## Asperen pilota partidak jokatuko dituzte uztailaren 20an Elizondon

### TTIPI-TTAPA

Pilotazaleek hitzordu berezia izanen dute Elizondon Baztandarren bezperan, herriko gazte kuadrillak, udalaren eta herriaren laguntzaz, pilota partidak ekarriko dituelako.

18:00etan hasiko da jardunaldia eta Mata eta Gaskue,

De la Fuente eta Aldaberen kontra arituko dira lehenik. Ondotik, Altuna III.ak eta Martijak Elordi eta Rezustaren aurka jokatuko dute.

Sarrerak salgai daude Elizondoko Futbolin ostatuan eta [entradasfronton.com](http://entradasfronton.com) webgunean.

## Administrazio elektronikoko ikastaroa ekainaren 17tik 21era Lanbide eskolan

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Baztango Udalak eta Cederna Garalurrek administrazio elektronikoa buruzko 10 orduko doako ikastaroa antolatu dute Elizondo Lanbide Eskolan. Ekainaren 17tik 21era arratsaldean izanen da ikastaroa,

16:00etatik 18:00etara. Bertzeak bertze, Cl@ve, Ziurtagiri Digitala eta NAN elektronikoa sortzen erakutsiko dute, baita Osasun Karpeta Pertsonalera sartzan eta Enplegu, Gizarte Segurantzza, Trafiko eta Zerga Agentziaren izapide elektronikoa erabiltzen ere.

## Bi mutikok jaunartzea egin dute Arraiozen

Ekainaren 2an jaunartzeak ospatu zituzten Arraiozen eta aurten bi mutikok parte hartu zuten: Oinatz Arraztoa Aguerrebek eta Egoi Bengotxea Fernandezek. Egun polit bat pasatzeko aukera izan zuten.



NEREA MORTALENA

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.  
HARRIEN MUNDUA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

JOSEPHINE'S  
20 ENGLISH 13  
BAZTAN  
Pedro Avilator kanika, 2 Elizondo

BERTAKO IRAKASLEA

2024-2025 MATRIKULA IREKITA  
Lehen Hezkuntza, DBH,  
Batzilergoa (B1, B2) eta Helduak

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

# Magnaren emisio kutsakorrak salatu ditu Erdiz Bizirikek

«Nafarroako enpresa kutsakorrenetakoa» dela adierazi du plataformak, «eta emisio horien ondorioak nabaritzen ari gara»

## TTIPI-TTAPA

Espainiako PRTRk (Isurpen eta Iturri Kutsakorren Estatu-ko Erregistroa) zabalduko datuen arabera, «Magna da Nafarroan nitrogeno oxido gehien isurtzen duen bigarren enpresa, Tuterako Guardian Glass plantaren gibeletik».

Nitrogeno oxidoa oxido nitrikoz eta nitrogeno dioxidoz osatutako gas multzoa da, «eta horietan nitrogeno dioxidoa da kutsakorrena, ingurumenean nahiz airearen kalitatean eragin zuzena baitu. Horrek erakusten du Erdizko meate-

gi proiektua eta nekazaritza estentsiboa ez direla bateragarriak».

Plataformak adierazi duenez, «emisio horien ondorioak nabaritzen ari gara Nafarroan: OMEk osasuna eta landaredia babesteko ezarritako epe luzerako ozonoaren helburua gainditu dela dio gobernuak. Neurri horiek ez dira legez bete beharrekoak, hala ere, Europako Batzordeak proposatu berri du Airearen Kalitatearen Zuzentaraua moldatzea, gomendio horiek legez babestuta egoteko 2030erako».



UTZITAKOA

## Auzolanean garbitu dute Azpilkueta

Hainbat azpilkuetar bildu ziren maiatzaren 25ean eta taldeak antolatu zituzten inguruko mendiak garbitzeko. Gogoz aritu ondotik, Arbizuko erreka, Erdoi, Extixegi eta Larroko bidean botatako zaborrak bildu zituzten. Herriak eskerrak eman dizkie auzolaneko parte hartzaile guziei.

## Aipamena Josu Inziarteren bi argazkiri Nafarroa Ekologikoaren I. lehiaketan

### TTIPI-TTAPA

131 lan aurkeztu zituzten CPAEN/NNPEK elkarteak antolatutako *EKOMiradas* lehiaketara eta maiatzeko hondar asteburuan banatu zituzten sariak Iruñean. Lehenengo saria Tafallako José Luis Zubirik irabazi zuen, *Pluma y*

*lana* argazkiagatik; bigarrena Daniel Andion iruindarrak, *Al amanecer* argazkiagatik, eta hirugarrena Artikako Alfredo Piedrafitak, *El Señor de la noche* argazkiarengatik. Irabazi ez bazuen ere, Oronozko Josu Inziarteren bi argazki aipamen berezia lortu zuten:



Bederatzi aipamenetako bat izan da 'Ezpondako Borda'. JOSU INZIARTE



'Lavanda' argazkiak ere aipamen berezia lortu du. JOSU INZIARTE

# LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

**INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT**

astelehenetik ortziralera

**08:00-13:00**

**15:00-20:00**

larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. **722 662 478** | [lidera@hortzclinika.es](mailto:lidera@hortzclinika.es)

@liderahortzclinika



# Baztango XXIX. Mendi Itzulia giro ederrean

Arraiozen hasi eta akitu zen ibilaldia eta 510 mendizalek parte hartu zuten bi ibilbideetan

## TTIPI-TTAPA

Baztango Mendigoizaleek XXIX. Mendi Itzulia antolatu zuten maiatzaren 26an Arraiozen, eta jendetza bildu zen goizetik herriko plazan. Eguraldi lainotsuak primeran lagundu zituen mendizaleak, eta bi ibilbide egiteko aukera

izan zuten; luzea (36 km) eta laburra (24,5 km).

Denetara 510 partaide izan zituen itzuliak, 150 ibilbide luzean eta 360 laburrean. Baztandik kanpoko jende ugari hurbildu zen; Malerrekatik, Bortzirietatik, Iparraldetik, Iruñetik, Gipuzkoatik...



Eguraldia lagun izan zuten mendizaleek. VALLEDEBAZTAN.COM



DAVID HERRANZ

## 'Karmele' filmaren grabaketa Iruritan

Asier Altuna zuzendaria *Karmele* pelikula filmatzen aritu da Euskal Herrian, tartean Baztanen. Zehazki, filmeko protagonistak izanen diren Jone Laspiur eta Eneko Sagardoyren etxea izanen da Iruritako Iturraldea, eta barnealdeko eszenak grabatu dituzte bertan.



MAIALEN IANTZI

## Pala eta frontenis txapelketak Berroetan

Udaberrian egindako bi txapelketen finalak jokatu zituzten maiatzean Berroetan. Pala txapelketako bigarren mailan Asier Ballarena nagusitu zen, eta lehenbiziko mailan Gorka Altzuarte. Frontenisean, berriz, Iñaki eta Alaitzek irabazi zuten Anne eta Xubanen kontra. Zorionak txapeldunei!



647 77 31 33

**Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean**




## Aniztasuna eta harrotasuna ospatzeko jaialdia

Usopopek antolatu du larunbatean (19:00) Lur Berrin eta Altxalili queer kabareta, Bloñ eta DJ Facultatif ariko dira

### TTIPI-TTAPA

Usopop elkarteak aniztasuna, desberdintasuna, askatasuna eta harrotasuna ospatzeko gonbidapena egin du ekainaren 15erako. Larunbatean 19:00etan Lur Berrin hasiko den jaialdian Altxalili queer kabareta, Bloñ eta DJ Facultatif izanen dira. Sartzeak 8/10 eurotan eskura daitezke, [my.weezevent.com](http://my.weezevent.com) webgunean.

Altxalili kolektiboa Atharrazteko Bekat'Uros egunean sortu zen 2023an. Baserrigunean sortu eta bizi diren queer pertsonen osatzen dute. Barnealdean LGBTKIA+ erreferentziak gehitzeko sortu dute antzerkia, musika, kantua eta dantza nahastu dituen euskarzako kabaret errot bat.

Bertzetik, Bañolet filmarentzat sortu soinu bandaren izena da Bloñ. Filma aurkezteko bikote moduan taularazten baziren ere, Euskal Herria zeharkatuko duen bide honentzat Nafarroa Beherekoak boskote moduan ariko dira. Pop, sehaska kantu, rock edo funk doinuak nahasiko dituen ikuskizuna.



Altxalili queer kabareta.

### Sara Oinez igandean

Azken aldizkarian aipatu bezala, Har Hitzak antolatutako Sara Oinez igande honetan, ekainaren 16an egingen dute. Bi ibilbide aukeran izanen dituzte aurten: luzeena, 25 kilometro luze eta 1.400 metroko desnibela duena eta laburra, 12 kilometro luze eta 500 metroko desnibela duena. Ibilaldi luzeko izen ematea 06:30etik 07:30era egin behar da (15 euro) eta irteera 07:00etatik 07:30era egingen dute mendizaleek. Ibilaldi ttikiko izen emateak, berriz, 08:30etik 09:15era egin behar dira eta irteerak 09:00etatik 09:30era. Itzulia euskaraz egiteko gomita egin dute antolatzaileek.



Txondorra pizteko unea, alkatea kendu ondotik. UTZITAKOAK

## Txondorra pizteko ekitaldia egin dute lezeetan eta ikatza atera arte ikusgai da

### GANEX

Txondorra eraiki dute Sarako lezeen natur gunean, Andoni Etxenike goizuetarrari eta bere taldeari esker, beraien ezagutzak partekatzerari etorri baitira. Aitzinetik zenbait lan eginak zituzten eta maiatzaren 25ean, larunbatean, egin dute txondorraren piztea, Goizuetako 'Zahagi dantza' eta guzi. Behin piztuta, Sarako lezeetan ikusgarri dago, sarbide librean, ikatza ateratzen den momentura arte (ekain erdialde-amaiera aldera).

Battite Laborde Sarako auzapezak solas batzuk egin zituen, eskerrak emanez Andoni Etxenikeri eta bere taldeari, «Sarako herria aberastu dutelako, ez diruz, lan horren jakitatez baizik. Altxor hori berriz berreskuratzea zoragarria da». Amets Arzallusek ere bertso dotoreak bota zituen:



Goizuetako Zahagi dantza.

*Bizitzak sua beharrezko du, eta suak ikazkintza baina txondorra ez dute ezautzen, ta ez dakit nola mintza baina hemen bai gauz ederra da behintzat gal ez dadin hitza eta gogoan izan dezagun, arbaso zaharren bizitza. Goizuetatik eta Sarara, katerik ez bedi hautsi baina egitea da errexena, orain ez dakar lan gutxi txondorrak bi gauz egiten ditu, sugaia eman eta utzi eta guk maite ditugun gauzak, nola zaindu erakutsi.*

## Ehun lagun bildu dira Sarako, Senpereko eta Azkaineko parropiaren afarian

### GANEX SARA

Parropiako hiru herrietan, Azkainen, Senperen eta Saran, elizari laguntza ematen dioten jendeari eskainitako afarian ehun bat lagun bildu ziren. Jean Elizagarai erretoa denei eskerrak eman zizkien, horiek ekartzen duten laguntzaren-

gatik. Elizagarai berak eta Cachenet Azkaineko apezak, biek erretreta hartzen dutela jakinarazi zuten, «baina ez lotsatzeko, ordainak eginak direla». Honela, Jean Rene Predaigne parropiako erretoa eta Jean Baptiste Bui bigarren izanen dira.



Elizagarai erretoa parropiako kideei azalpenak ematen. GANEX





Haira Aizpurua txapelarekin, Unax anaia bere ezkerrean duela, Itsasun. UTZITAKOA

## Haira Aizpuruak Gazte Xilaba irabazi du bosgarren aldiz

Unax Aizpuruarekin batera Lapurdi ordezkartuko du ekainaren 15ean Arantzan jokatu den Euskal Herriko txapelketan

### TTIPI-TTAPA

Gazte Xilaba bertso txapelketaren finala ekainaren 1ean jokatu zen Itsasuko Sanoki gelan. Sei bertsolari aritu ziren kantuan, eta Haira Aizpurua Iargarai saratarra nagusitu zen. Borzgarren aldiz irabazi du txapela eta, hala, herrialdeetako eskolarteko txapelketan bortz aldiz txapeldun izan den bertsolari bakarra da saratarra.

Haira eta Unax Aizpurua saratarrekin batera, Amaiur Aizpuru, Johane Larre, Haize Lekuona eta Nahia Etxeberri bertsolariak aritu ziren ber-

tsotan. Xan Alkhat aritu zen gai emaile lanetan, eta epaile lanetan aldiz, Ainhoa Sarasua, Maialen Berra eta Zuhaitz Olazabal. Haira Aizpurua txapeldunaren ondotik sailkatu ziren Nahia Etxeberri bigarren eta Unax Aizpurua hirugarren. Ekainaren 15ean Arantzan egingen den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan ariko dira hiruak. Zuberoako bertsolaririk ez da izanen. Aizpuruari txapela June Elizondok paratu zion bertso eskolen izenean, eta Nahia Etxeberri izendatu zuten errimategi aberatsena duen bertsolari.



TESTUA: ARANTXA ETA IRAIA / ARGAZKIA: AINHIZE IRAZOKI

## Lehen jaunartzea egin dute

Urtero herriak txandakatuz egiten dira eta aurtengoan Urdazubiko elizan ospatu zuten ekainaren 2an lehen jaunartzea Urdazubiko Xane Iriarte, Aines Elizalde, Ainhize Suhas, Isis Pineda eta Zugarramurdiko Beñat Ariztegitik. Mezaren ondotik familiekin ospatzeko aukera izan zuten.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ARANTXA ETA IRAIA

## Trikuharryko Lucky hontza onik agertu da

Herriko bestetako ortziraletan Trikuharry animalia parketik ihes egin zuen Lucky hontzak. 13 egunez bere bila egon ondotik, zuhaitz batean atzeman zuten ahuldurik. Berriz ere etxerat itzuli eta orain berriz indartzen ari da. Ezbeharra sustu batean gelditu zelarik, sendatu zaitez Lucky!

BARDIN    BEHOIA    LUZAIDE    DANTXARINEA  
31780 Bera    20305 Iruñ    31660 Luzaide    31712 Urdax

Egunero irekia,  
astelehenerdik  
igandera arte  
\*Abenduaren 25<sup>a</sup> eta  
urtarrilaren 7<sup>a</sup> izan epea

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak  
Harategiak · Jabetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com    Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.)    Tel. +34 948 625 130 (Es.)

www.kulturkari.com

### Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak,  
orriak, talonarioak,  
karpetak, zigiluak...



Kixka antzerki konpainiaren emanaldietako bat. ARTXIBOKOA

## Kixka antzerki konpainiaren festibalak 30 urte

Ekainaren 16an egitarau aberatsa eskainiko dute Larreko kulturgunean, Euskal Herria-Marocco elkar-tearen alde

### JL BESSONART

Larreko kulturgunean ekainaren 16rako egitarau aberatsa prestatu dute. Lantegi-taldetan diren haur, gazte eta helduek, urte guziko antzerki-lan eta sorkuntzen azaltzeko aukera dute. Halere, programa honetan, frantsesezko antzerkiak soilik dira presentatuak: (14:30) *Malices et sortilèges au royaume* eta *Le mystère de la fleur magique*, haurren sorkuntzak; (19:00) *La ballade de planches*, kolegioko ikasteen tailerra; (20:00) *Où sont les clés du Théâtre?* helduen taldeak emanik.

Antzerki munduko ohituen arabera sarrera txapelean egingo da, diru bilketa joanen da Euskal Herria-Marocco elkar-tearen mesedetan, etorri ongi gozatzerat.

### Balleta ekainaren 28an

Aitzinera begira, ekainaren 28an, ortziralean 20:30ean, *Le song d'une nuit d'été* ballet emanaldia izanen dute Larrekon, Jennifer eta Dennis Cala Valdésen eskutik. Sartzeak Euskal Herriko turismo bulegoetan eskura daitezke (18 euro sarrera arrunta, 12 euro hamabi urtez beheitikoak).



Senperrak erasoan Tartasen kontra. UTZITAKOA

## Frantziako R2 mailako errugbi txapelari begira SPUC taldea eta herritarrak

Gure errugbilariek ezin hobeki abiatu dute Frantziako R2 mailako kanporaketa. Hiru garaipenekin doaz aitzinera, hauetan Ramonville 67-31, Auterive 38-17 eta Tartas 28-19 menperatuta. Ekainaren 9an, final laurdenetan Bas-soues-Lupiac-Montescq, Gers departamenduko ekipoaren

kontra ari beharrak ziren, Paue ondoan den Idronen. Sekulako dinamika sortu da herritarren artean, kirolariak sustengatu nahizik, horren irudi *Aupa Senpere* xingolez emokatuak dira saltegi-tako berinak. Nehork ez du ahantzi, Frantziako titulua 1984an, 1992an eta 2014an eskuratua dela.

## 'Bizkarsoro' filma eman dute Larrekon, Zaldubi eta Kattalin Elizalderen eskutik

### JL BESSONART

Zaldubi ikastolak baita Kattalin Elizalde kolegioak ere antolatua zuten maiatzaren 21ean *Bizkarsoro* filma ezagunaren proiektzioa Larreko salan. Jendalde polita etorri baldin bazen ere, aitortzekoa da pixka bat tarrapatan egin zela anto-

laketa. Film honek mereziko zuen aitzinetik publizitate gehixeago ongi egitea.

Halere, ekimena txalotzekoa izan da. Publikoa pentsaketetan atera da, gogoratu zer oztopoak ukan dituen eta oraino jasaiten dituen gure euskarak.

## Baratze partekatuan aurkeztu dituzte birziklatzea sustatzeko konpostagailuak

### JL BESSONART

Utsaleko zubiaren ondoko baratze partekatuen eremuan iragan da birziklatze eta konpostatzearen aurkezpena, hilaren 18an, larunbat goizarekin. Herriko zerbitzu sozialak, adinekoen elkar-teak eta Bil ta Garbi sindikatak anto-

latu ekitaldiak, ikusmina pittin bat sortu du.

### Bi konpostagailu modelo

Ekitaldian parte hartu zutenen artean herriko artisau eta ekoizle batzuk izan ziren, hauekin Bernard Elhorga auzapeza eta herriko kontseiluko



Konpostagailuen aurkezpena.

hautetsi zombait. Konpostagailuetan, bi modelo desberdin aurkeztu zituzten: alde batean partikularrak, hauek dira plastikazko modeloak eta banatuak izan dira nahi dituztenei.

Bertzalde, konpostagailu handiagoak ere banatuak dituzte, ezarriak izan direnak auzoetan eta hauetan bilduko dituzte etxe-tako hondakin organikoak.





Ander Iñarra eta Mayi Mujika aurtengo txapeladunak. E. IRAOLA

## Iñarra eta Mujika nagusi Euskal Herria Mendi Erronkan

Erakustaldi ederra egin dute Ander Iñarrak eta Mayi Mujikak Leitza, lasterketako errekorrak hobetuz

**ENERITZ IRAOLA** LEITZA  
Mayi Mujika (Elgoibar) eta Ander Iñarra (Lezo) gipuzkoarrek nagusi izan ziren ekainaren 1ean Leitza jokatu zen Euskal Herria Mendi Erronkan. Erakustaldi ederra eskaini zuten, lasterketako errekorrak hobetuz. Erreleboka, Leire Orbegozo eta Oier Elorza azpeitiarrak izan ziren bizkorrenak. Eskualdeko lasterkaririk azkarrenak, berriz, Aritza Craamer Lizarraga leizarra eta Erika Alvarez Astibia aresoarra izan ziren.

520 lasterkaririk parte hartu zuten Euskal Herria Mendi Erronkaren hamargarren edizioan. Erronkari bakarka aurre egin zioten 402 lasterkarietatik 347k lortu zuten helmugara iristea. Erreleboka 57 bikotek parte hartu zuten proban eta ia denek, 54 bikotek, lortu zuten erronka osatzea.

Erlojuak goizeko zortziak seinatu eta lasterketari hasiera eman aurretik, omenaldietarako tartea hartu zuten. Irene Sarrionandia Unzueta lasterkaria omendu zuten mendi lasterketetan egindako ibilbidea goraituz. Egindako ibilbidea eta oraindik ere egiteko duena, korrikarako

### 520 LASTERKARIK PARTE HARTU DUTE EUSKAL HERRIA MENDI ERRONKAN

### ARITZA CRAAMER ETA ERIKA ALVAREZ ESQUALDEKO BIZKORRENAK

zapatilak jantzita, erreleboka parte hartu baitzuen aurren ere erronkan.

#### Aurreikuspenak betez

Bozgorailuetako musikarekin batera, ahoz aho entzuten ziren faboritoen izenak eta aurreikuspenak bete ziren: Ander Iñarra eta Mayi Mujika izan ziren bizkorrenak 67 kilometroko ibilbidean.

Gizonezkoetan, Iñarrak hobetu egin zuen pasa den urtean berak jarritako marka. Iaz baino bi minutu eta 22 segundo gutxiago behar izan zituen helmugara iristeko (6.32.15). Bigarren postua, Iraitz Legorburu getariarentzat izan zen (6.35.50) eta hirugarren, Pello Berrizbeitia eibartarra (6.41.55). Laugarren postuan iritsi zen, eskualdeko lasterkaririk bizkorrena izan zena, Aritza Craamer Lizarraga (6.58.47) leizarra.

Emakumezkoetan lehia es-tua izan zen Mayi Mujikaren eta Oihana Azkorbebeitiaren artean. Lekunberrira arteko tartean bazirudien iazko garaipena errepikatu behar zuela Azkorbebeitiak, baina egoerari buelta eman eta Mujikak eskuratu zuen azkenean txapel beltza. Aspalditik begiz jota zuten lasterketa Mujikak, bai-

## ESQUALDEKOAK

### 67 KM LASTERKA

4. Aritza Craamer (Leitza)	6.58.47
21. Daniel Parraga (Leitza)	7.40.21
28. Fernando Etxegarai (Lesaka)	7.51.26
30. Mikel Altadiill (Leitza)	7.52.25
52. Julen Lizarraga (Leitza)	8.24.12
56. Igon Bereau (Leitza)	8.27.31
65. Iker Zubillaga (Leitza)	8.32.39
66. Josu Perurena (Leitza)	8.33.42
72. Dani Iparragirre (Arantzeta)	8.38.48
84. Eneko Zabaleta (Leitza)	8.44.13
91. Iban Bengoetxea (Leitza)	8.53.54
95. Omar Ugartemendia (Leitza)	8.55.47
114. Erika Alvarez (Areso)	9.10.52
132. Martin Etxabe (Erratzu)	9.23.21
135. Adur Bernaola (Leitza)	9.25.31
150. Eneko Gorostiaga (Ezkurra)	9.31.38
156. Aitor Mitxelena (Lesaka)	9.35.34
221. Mikel Almandoz (Lekaroz)	10.24.27
224. Joanes Lasarte (Leitza)	10.27.11
236. Mikel Martinez (Leitza)	10.34.49
276. Mikel Azpiroz (Leitza)	11.17.47
277. Aimar Leache (Donamaria)	11.19.04
284. Iban Pellejero (Areso)	11.23.04
287. Mikel Saenz (Leitza)	11.29.06
289. Ander Alduntzin (Leitza)	11.29.18
291. Xabier Jaunarena (Leitza)	11.36.52
312. Mikel Olano (Leitza)	11.56.40
314. Amaia Jimenez (Leitza)	11.57.28

### ERRELEBOKA

12. Yashira Navas eta Mattin Intxaurren (Areso)	8.07.06
17. Nagore Mazizior eta Jon Ander Zabaleta (Leitza)	8.29.08
20. Garbiñe Hernandezena eta Gorka Bermejo (Leitza)	8.39.41
25. Itxaro Zabaleta eta Uxue Zabaleta (Leitza)	8.46.38
34. Rafa Alzate eta Susana Zarraluki (Erratzu)	9.42.23
48. Joanes Illarregi eta Nahia Barriola (Leitza)	11.13.46
50. Aitor Huizi eta Nagore Esnaola (Leitza)	11.32.04
51. Markel Barriola eta Lide Hernandezena (Leitza)	11.41.33
52. Oinatz Bengoetxea eta Alazne Ariztimuño (Leitza)	11.43.31

na lehenbiziko parte hartzea zuten Euskal Herria Mendi Erronkan. Ez zen nolana hiko estreinaldia izan, berak ere helmugan jarritako joarea dantzarazi zuen emakumezkoen marka hobetuta (7.40.08).

Bikoteka, Leire Orbegozo eta Oier Elorza azpeitiarrak izan ziren bizkorrenak. Bigarren postuan Miren Bastida eta Beñat Ibañez iritsi ziren eta haien segidan, Olatz Azazeta eta Ander Iraizoz.



Estefi Etxebeste, maiatzaren 25ean Aiara animatzera joandako senide eta lagunekin. UTZITAKOIA

# «Indar handikoa naiz eta teknika ere ikasten ari naiz pixkanaka»

**ESTEFI ETXEBESTE GIRALDO** ITURENGO HARRI JASOTZAILEA

2023ko urrian hasi zen harri jasotzen ikasten eta dagoeneko Iturengo plazan eta ETBko 'Harri Herri' saioan aritu da. Maiatzaren 25ean Aian marka egin zuen 100 kiloko zilindro zaharrarekin

**AITOR AROTZENA** ITUREN

Estefania Etxebeste Giraldo 2002ko azaroaren 27an jaio zen Iturengo Pioinean. Lau anaia-arreben artean hirugarrena (Cristofer eta William anaia zaharrenak Kolonbian jaio ziren eta bera eta Shaila ahizpa tikiena Iturenen). Ama, Yamiled Giraldo, berak sei urte bertzerik ez zituela hil zuten, 2009ko apirilaren 25ean. Duela urtebete eskas, 2023ko urrian hasi zen harri jasotzen *Estefi* eta egiten dituen altxaldi guztiak ama zenari eta osabari eskaintzen dizkio. Urtebete eskas horretan bere bidea egiten ari da eta maiatzaren 25ean bere marka pertsonala egin zuen Aian, ehun kiloko zilindro zaharra hiru minututan hamar aldiz altxatuta.

**Harri jasotzen hasia orain hila-bete batzuk, Iturengo inauterietako kontuen egunean egin zenuen lehen jendaurreko plaza, 'Harri Herri' ETBko saioan ere agertu zinen, orain marka Aian... Urrats ez urrats baina agudo irekitzen ari zara bidea harriarekin...**

*Harri herri* saioaren ondotik ez dut bertze erakustaldirik egin marka egiteko prestatzen aritu naiz orain arte. Buru gogorra naiz eta zerbait gustuko baldin badut daukadan guztia ematen dut eta nire partetik ahal dudana guztia jartzen dut gauzak ongi egiteko. Horregatik konstantzia arras garrantzitsua da bidea irekitzeko.

**Nola hasi zinen harri jasotzearen munduan... Zure inguruan bada aritzen den bertze norbait?**

Nire familian ez dago inor herri kirol munduan ibili denik, baina beti gustatu zaizkit: Iturengo lagunekin erakustaldiak, apustuak eta saioak ikustera joaten nintzen eta plazan ikusi aldiro pentsatzen nuen ni ere noizbait hor izanen nintzela, hori zen nire ametsa. Daniel Vicenteren bitartez

**«HARRIA PROBATU ETA LEHENENGO EGUNETIK GUSTATU ZITZAIKAN»**

Joseba Ostolaza ezagutu nuen, baina beti lotsa ematen zidan berari idatzi edo harria probatzera joatea, ez nekien balioko nuen edo ez. 2023ko urrian, lagunei esker, Josebaren eskolara joan nintzen harria probatzera eta lehenengo egunetik pila bat gustatu zitzaidan.

**Malerrekan aizkorarako afizio handia bada, baina harri jasotzerako ez hainbertze... Zuri nondik datorkizu afizioa?**

Aizkora afizioa bada, baina harri munduan ez horrenbertze, egia erran. Neska gutxi daude gure zonaldean ere harri munduan, nik ez ditut ezagutzen eta horrek ere niri presio handia eman dit. Lagunei esker datorkit afizioa.

**Azken aldian crossfitoko mundutik harri jasotzera pasa diren kirolari aunitz badira... Zuk ere bide hori egin duzu?**

Nik betidanik izan dut indar asko, berezkoa edo ... baina ez nekien zein izanen zen niri ongi etorriko zitzaidan kirola eta harria probatu nuen. Baina crossfita ez dut sekula probatu, ez dit atentziorik deitzen momentuz.

**Nola definituko zenuke zure burua harrijasotzaile moduan?**

Indar aunitz daukat. Denbora gutxi daramat mundu honetan eta teknika ikastekoa naiz oraindik, baina pixkanaka ikasten ari naiz. Indarra ez da gauzarik garrantzitsuena, teknikak ere aunitz egiten du. Harri handiak nahiago ditut, ni berez handia naiz eta, indar asko daukadanez, hobe moldatzen naiz. Jende aunitzek erraten zidan ez nintzela ino-ra ailegatuko, harri mundua ez zela jokoa eta niri horrek indar gehiago ematen zidan egiteko. Momentuz lortzen ari naizenarekin kontent nago.

**Zein da zure ezaugarririk onena eta zertan hobetu nahiko zenuke?**

Indarraz gain burugogorra ere banaiz eta horrek bere alde onak eta txarrak ditu. Entrenatu aldiro zerbait berria ikasten da eta aunitz begiratzen diet bertzei ere nola egiten



duten, hori ere gustatzen zait, ikasteko balio du eta. Beti badago zerbait hobetu beharra eta hori egunero lantzen dut. **Zein da zure erreferentea harri jasotzen?**

Egia erran lehen ez nuen harri mundua aunitz ezagutzen, baina orain ikasten ari naiz, Jokin Eizmendi erranen nuke, beti gogotsu eta aunitz daki berak eta aunitz erakusten dit. Udane Ostolazak ere denbora aunitz darama mundu honean. Txikia da, baina aldi berean arras handia eta harri jasotzaile erreferente bat da.

**Orion egiten dituzu entrenamenduak edo etxean ere prestatzen zara?**

Bai, Oriora joaten naiz astelehen eta ortzegunetan entrenatzera. Etxean ere beti zerbait egitea gustatzen zait.

**Zure lehen marka saiakera egin duzu Aian... Urduritasun berezia edo behin telebistako saio batean atera eta gero, plazara patxada gehiagorekin ateratzen zara?**

Oso aste txarra pasatu nuen lehendabiziko marka ahalegina zen eta nahiz eta lehendik telebistan atera, proba egunetan beti badira urduritasunak. Gainera, telebistako programan taldeko lana zen eta hemen nire esku zegoen dena. Egun guztiak ez dira berdinak, baina daukadan onena ematen saiatu nintzen. Bertze entrenamendu bat bezala hartu nuen. Gainera herrikoak, lagunak, familia eta eskolakoak ondoan izan nituen eta egin nuen markarekin arras kontent nago.

**100 kiloko zilindro zaharra aukeratu duzu zure lehen marka saiakerarako... Zergatik? Gustuko harria duzu?**

Zerbait egin nahi nuela buruan neukan eta taldekoekin probak egin genituen eta hori aukeratu genuen. Momentuz gus-tura erabiltzen dut. Denbora gutxi daukat harri munduan eta ezin dut aunitz eskatu, baina buru gogorra naizenez, beti gehiago nahi dut. Hori dela eta, Joseba Ostolazak aunitzetan errieta egiten dit,

baina alde onak eta txarrak baditu.

**Bertze zein harrirekin moldatzen zara ongi? Eta, alderantziz, zein da altxatzeko zailtasun gehien duzuna eta altxatzea gustatuko litzaizukeena?**

Kubikoa ere gustuko dut, aunitz ikasi beharra daukat oraindik eta teknika falta zait. Bola ez dut sobera gustuko. Oraindik bidea luzea da eta probatzeko denbora badut.

**Aitzinera begira, zein bertze erronka edo marka dituzu begi bistan? Uda erakustaldi anitzeko garaia izanen da zuretzat?**

Beti buruan badira aukerak, baina gutxinaka eta pausoz pauso egin nahi dut dena. Lanarekin zail daukat udan erakustaldiak egitea, baina ahal badut saiatu egingen naiz libre eskatuz, hori ere gureta-ko eta gehien bat hasi berria zarenean motibatuzeko eta jendeak ezagutzeko ona delako.

**Bertzerik?**

Eskerrak eman nahi dizkiet nire hurbilean egon diren guztiei, familiari, lagunei eta batez ere Josebari, [Ostolazari] bere harri eskolako atak irekitzematik: arras pertsona ona da, beti laguntzeko prest dagoena. Nirekin beti egoten diren Jokin Eizmendi eta Imanol Royo *Lartain* ere gogoan ditut, bertze bat gehiago bezala tratatu naute, lehendabiziko egunetik. Ni Nafarroatik joaterakoan ez nekien nola hartuko ninduten, beti beldurra edo urduritasun hori daukazu, Nafarroako bakarra izanik, baina niretzat nire Gipuzkoako familia dira. Beraiek erakutsi didate orain arte egiten ari naizen guztia, edo zer gauza dela eta beti animatuz eta burua altxatuz. Beti badira momentu txarrak ere, baina beraiei esker dena errazagoa da. Eskerrik asko Joseba Ostolaza harri eskolari eta zerutik indarra bidaltzen didaten nire bi izarrei, amari eta osabari, dena beraiengatik eta beraiei eskainia da.



Kadete, infantil eta alebin mailako neska finalistak Lesakan. UTZITAKOIA

## Nafarroako Kirol Jokoetako eskuz binakako hiru final Lesakan jokatuak

Nafarroako Kirol Jokoetako eskuz binakako pilota txapelketako bigarren faseko hiru final jokatu zituzten maiatzaren 24an Lesakan. **Alebin** mailan, Arkupeko Eneritz Muñoa lesakarrak eta Ainara Hita igantziarrak 18-12 irabazi zieten Ados Pilotako Alaitz Aioroa eta Naroa Elizalde itu-

rendarrei. **Infantil** mailan, Ardoiko Gomez eta Setuainek 18-15 irabazi zieten Arkupeko Nahia Almandoz eta Joana Iratzoki igantziarrei. **Kadete** mailan, azkenik, Umore Onako Alize Sagardui goizuetarra eta Araitz Legarreta aranoarrak 22-15 irabazi zieten Oberenako Crespori eta Sarrateari.



Jon Egizabal leizarra Muskitzen (erdian), Saltoki Challengea irabazi ondotik.

## Eneit Bertiz eta Jon Egizabal garaile Saltoki mendi bizikleta Challengean

Saltoki Challengea hiru lasterketaz osatutako mendi bizikleta txapelketa da eta hiruetan parte hartu dute Eneit Bertiz sunbildarrak (sub-23) eta Jon Egizabal leitzarrak (junior). Izkuen, apirilaren 28an, beraien kategorietako lehen postuan sailkatu ziren biak; Oltzan, maiatzaren 12an,

bigarren izan ziren biak eta Muskitzen, maiatzaren 26an, garaile izan zen sunbildarra eta bigarren leizarra. Honela, challengea irabazi dute biek, baina Nafarroako txapelketan txapeldunorde izan dira, 23 urtez behe-itiko lehia Oltzako proban erabaki zelako eta junior mailakoa Muskitzen.

# AGENDA

## EKAINAK 13 - 27

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ALTXA LILI

### SARA Harrotasunaren besta - Usopop

Altxa Lili kabaret ikuskizuna, Bloñi taldearen kontzertua eta DJ Francis Facultatif.  
Lur Berri gelan, ekainaren 15ean, 19:00etatik goiti.

### LESAKA

Tanturumairu Ikastolaren  
50. urteurrena eta udako  
solstizioko besta

Ekainaren 23an. (18. or.)

## MUSIKA

### LESAKA

Musika Eskolaren kontzertua

Harriondoan, ekainaren 13an,  
18:00etan.

Musika Bandaren kontzertua

Eskol Tikiko aparkalekuan,  
ekainaren 23an, 12:00etan.

### SARA

Usopopen harrotasunaren  
besta

Lur Berrin, ekainaren 15ean,  
19:00etan.

### LEITZA

Jeiki abesbatzaren emanaldia

Plazan, ekainaren 15ean,  
20:00etan.

### ELIZONDO

Baztan Kantuz

Plazan, ekainaren 16an,  
12:00etan.

Piano eta biolontxelo  
kontzertua

Jokin Taboada eta Paula Azkona.  
Arizkunenean, ekainaren 16an,  
19:00etan.

## AZOKAK

### ELIZONDO

Baztango Artisauak eta  
Zaporeak

Plazan, ekainaren 15ean eta  
22an, 10:00etatik 14:00etara.

## IKUSKIZUNAK

### BERA

Porrotx eta Marimotots

Kultur Etxean, ekainaren 13an,  
16:00etan eta 18:00etan.

### LESAKA

Pausoka taldearen dantza  
emanaldia

Harriondoan, ekainaren 14an,  
16:00etan.

### ARANTZA

Euskal Herriko Eskolarteko  
bertso txapelketa

Frontoian, ekainaren 15ean,  
17:00etan.

### SENPERE

Kixka antzerki konpainiaren  
festibala

Larrekon, ekainaren 16an.

### ELGORRIAGA

'Plaza hau gurea da'  
antzerkia

Ekida Arte Ekimen Sozialista.  
Herriko ostatuan, ekainaren  
28an, 19:30ean.

## SOLASALDIAK

### ELIZONDO

'Elizondo, 1950-1970:  
Recuerdos del olvido'  
liburuaren aurkezpena

Gabriel Inbuluzketarekin.  
Arizkunenean, ekainaren 14an,  
19:30ean.

### BERA

'El verano 1946 en Bera'

Fernando Mikelarenarekin.  
Beralandetan, ekainaren 21ean,  
19:00etan.

### LESAKA

Naizen elkartearen solasaldia

Udal Pleno Arteoan, ekainaren  
26an, 17:30ean.

## JARDUNALDIAK

### DONEZTEBE

Doneztebe Futbol Taldearen  
Eguna

Ekainaren 14an eta 15ean. (24.  
or.)

### ETXALAR

Haurren Eguna

Ekainaren 14an eta 16an. (20.  
or.)

Usategietara XIV. igoera

Ekainaren 22an. (20. or.)

San Joan sua

Ekainaren 23an, 20:00etatik  
aitzinerara. (20. or.)

### ELIZONDO

'Zigorra birpentsatzen'  
jardunaldiak

Txokoto tabernan, ekainaren  
14an eta 15ean. (54. or.)

### SARA

Sara Oinez

Ekainaren 16an. (58. or.)

### ARESO

Udako solstizioko festa

Ekainaren 23an, 17:00etatik  
aurrera. (50. or.)

### LEITZA

Udako solstizioko festa

Plazan, ekainaren 23an,  
18:30etik aurrera. (48. or.)



## «Eskean joaten garenean momentu bereziak sortzen dira»

SORAYA ATXUKARRO TOLOSA ARESOKO LAGUNARTEKO KIDEA



Hemeretzi urte eta uda osoa aurretik. Ez da abiapuntu txarra edozein istorio idazteko. Bertan ez dira faltako festa giroko kontuak, mendi irteerak, ezagututako txoko berriak eta lagunartean pasatako arratsaldeak. Lanerako tartea ere hartu beharko du, baina argi du Soraya Atxukarro gazteak: «uda gozatzeko da».

Irailetik ekainera, ikasle eta langile bizitza uztartzen ditu: «astean zehar ikasten ari naiz eta asteburuetan zerbitzari lanetan aritzen naiz Berrobiko Iriarte jatetxean». Horregatik, gogoz hartzen ditu udako hilabeteak: «lagunekin ahalik eta denbora gehiena egotea: mendira joan, piszina egon eta erraketan ibiltzea, herri txiki guztietako festetara joatea, toki berriak ezagutzea, egun batzuk kanpora joatea... aukera guztiak dira onak».

Ez da geldirik egotea maite duten horietakoa eta urte osoan zehar, hartzen du naturaz gozatzeko tartea: «txikitatik gustuko dut mendira joatea, animaliekin egotea... lasaitasuna ematen dit eta pozik sentitzen naiz». Bakarrik baino, hobe lagunartean: «lagunekin gustura egoten naiz beti». Ez dakigu lagunenez zerrendan bere zaldi txuria sartuko ote duen, baina ezin aipatu gabe utzi: «orain dela bost urte ekarri genuen eta oso inportantea da guretzat, maite dugu eta gustura egoten gara berarekin».

**«ASPALDIKO OHITUREI EUSTEAK POZA EMATEN DIT»**

Areson ere oso gustura bizi da: «mendi ederrak daude eta plaza ingurua ere oso polita da. Herri txikia da eta hori da bere berezitasuna». Batzuetan mesede eta besteetan kalte: «denok elkar ezagutzen dugu, ia dena dakigu batak besteari buruz. Batzuetan ongi heldu da hori eta besteetan ez hainbeste...». Hori bai, orokorrean «norbaitek laguntza behar duela ikusten dugunean elkar laguntzeko prest egoten gara la esango nuke».

### Sanpedroak

Ekaineko azkeneko asteburuan botako dute sanpedroei hasiera emateko txupinazoa eta Lagunartekoei egokitu zaie antolakuntza lanetan aritzea: «inauteriak eta sanpedroak antolatzea gure lana izaten da. Gustura egiten dudana da, aspaldiko ohiturei eutsi eta aurrera segitzen dutela ikusteak poza ematen didalako». Ekainaren 28an eta 29an ospatuko dituzte Aresoko sanpedroak eta bi egunez ongi pasatzeko aukera izango dute herritar guztiek: «ostiralean meza, arratsaldekoa, herriko eskea eta Lagunartekoen afaria izango ditugu. Larunbatean, gosaria, eskea, sagardo-dastaketa, herri afaria eta juerga». Gazte kuadrilla polita aritu da guztia antolatzen: «gaur egun hogeita bat gazte gaude Lagunartean. Aurten hiru sartu dira eta heldu den urtean beste lau sartuko dira». Gogotsu ikusten ditu taldekideak, «jendea herriko gauzetan parte hartzen ari da eta zenbat eta jende gehiago elkartu, orduan eta politagoa izaten da sortzen den giroa».

**«OINEZ EGITEN DUGU ESKEA ETA HORREK DU GRAZIA»**

Sanpedroei buruz hitz egiterakoan ere horixe izan da nabarmendu duena: «herritarrek elkartzeko aitzakia ederra dira». Herriko eta baserrietako eskea izaten da horretarako bitarteko hobereena: «adin desberdinetako jendearekin elkartzeko aukera ematen dizu. Garai bateko istorioak entzutekoa, dantzan aritzekoa...». Baserri baserriko bidea oinez egiten dute, «hala egin izan da beti eta horrek du grazia». Bidean bertan ere, aldapan gora eta behera, «nahikoa komeria» izaten dituztela dio. Esketik herrira bueltatuta, sagardo dastaketaren txanda izaten da: «herritar guztiak festa giroan sartu daitezten eta herri afarirako zertxobait animatzen joateko». Ongi pasatzeko, batzuek lana egin behar izaten dute eta herri afarian zerbitzari lanak egitea egokitzen zaie batzuei: «bezerako ajea soinean eta egun guztian eskean ibilita, ez da planik idealena, baina egun bat da, gazteak gara eta ez da hainbeste kostatzen. Elkarri laguntzen diogu eta herrian pesta giroa jartzeko denez, gustura egiten den lana da».

Musikarik ez da faltako sanpedroetan eta erraza izanen da Soraya dantzan topatzea, «musika orokorrean dut gustuko: erromeria, mexikarrak, teknoa, reggeatoia... edozer jarrita ere gustura aritzen naiz dantzan». Ekaineko azken asteburuko dantzak beroketa izan daitezke gerorako: «sanferminak, herri txikitako festa guztiak... abuztuaren 14tik 18ra herriko festekin borobiltzeko». Borobildu eta ez edonola: «Joselu anaiak datoz berriz ere Aresora eta gure etxekoentzat berezia da». Aurten izanen du urrutira joan gabe bihotza ireki eta Anselmaren erritmora dantzan aritzeko aukera: «oso gustura nago, nire ama bezala» dio barre artean.

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN EMATEKO

**BERA.** Herrigunean pisua errentan emateko. 3 logela, igogailua, garajea eta trastelekuarekin. ☎680 54 98 08.

**BERA.** Herrigunean pisu berria errentan emateko. 2 logela, garajea eta trastelekuarekin. Whatsappez baka-rrik. ☎637 91 51 58 / 630 45 73 47

#### SALGAI

**DONEZTEBE.** 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, jubilazioagatik. Hiru balkoirekin. ☎619 80 87 23.

### LANA

#### ESKARIAK

Gizonezkoa lan bila. ☎672 96 06 00. 17 urteko gazte bat udan haurrak zaintzen ariko litzateke, ahal bada Doneztebe aldean. ☎634 14 30 29.

Emakumea lan bila. Erreferentziakin. ☎641 17 86 51.

21 urteko neska beratarra ekainean, abuztuan edo asteburuetan haurrak zaintzeko prest. Beran edo inguruan. Arduratsua eta esperientziaduna. Edozein gauza baldin bada, idatzi lasai. ☎639 33 62 67.

#### ESKAINTZAK

**ELIZONDO.** Fruta-denda batean, astelehenetik larunbatera lanaldi erdiz aritzeko, langilea behar dugu. Bidali curriculumak: [kifrut@gmail.com](mailto:kifrut@gmail.com).

**BERA.** Ibardingo Benta Gorrian zerbizaria behar dute 12:00etatik 16:00etara aritzeko. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculumak edo ditu. [bentagorria@hotmail.com](mailto:bentagorria@hotmail.com). ☎618 00 27 31.

**URDAZUBI.** Dantxarinako Mikele-bordan sukaldeko laguntzailea behar dute. Urte osoko lana. ☎690 38 81 34.

**ELIZONDO.** Auxiliarrak behar dituzte Elizondoko zahar egoitzan. Goizez, arratsaldez eta gauzez lan egiteko. Bidali curriculumak: [marazilbaztan.com](mailto:marazilbaztan.com).

**IGANTZI.** Irrisarri Landen zerbizaria behar dute asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko. Bidali curriculumak: [rrhh@irrisarriand.com](mailto:rrhh@irrisarriand.com).

**IGANTZI.** Irrisarri Landen ontzi-garbitzailea behar dute astelehenetik ortziralerara lan egiteko. Bidali curriculumak: [rrhh@irrisarriand.com](mailto:rrhh@irrisarriand.com).

**IGANTZI.** Irrisarri Landen kamioi gidaria behar dute udararako. Beharrezko gidabaimenak: B + CE + DE + CAP (bidaiariak edota merkantziak).

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

**ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Bidali curriculumak: [rrhh@irrisarriand.com](mailto:rrhh@irrisarriand.com).

**ETXALAR.** Usoa kooperatibak langile bat behar du, udan hasteko. Bidali curriculumak: [usoakooperati-ba@gmail.com](mailto:usoakooperati-ba@gmail.com). ☎615 70 52 15.

**BAZTAN**go enpresa batean langilea behar dute. Lanaldi osoan aritzeko. Astelehenetik ortziralerara. ☎948 59 23 25.

**IGANTZI.** Irrisarri Landen garbitzaile bila ari dira ekainetik irailera arte lan egiteko, 32 ordu astean. Bidali curriculumak: [rrhh@irrisarriand.com](mailto:rrhh@irrisarriand.com).

**LESAKA.** Iturbena kafetegian zerbizaria behar dute lanaldi osoan aritzeko. Igandeak eta astelehenak libre, baita asteazken arratsaldeak ere. Interesatuak bertatik pasa edo deitu. ☎620 70 09 64.

### ZERBITZUAK

#### KLASE PARTIKULARRAK

**MALERREKA** inguruan klase partikularrak emateko prest. Irakaskuntzan esperientzia duena LHn, DBHn eta Batxilergoan. ☎622 31 09 68.

#### ZURGIN LANAK

**ARANTZA ZURGINDEGIA**  
Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe  
Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA  
647 810 144 · 626 093 181

### ANIMALIAK

#### SALGAI

**ERRATZU.** Zezen blonda purua salgai, 9 urtekoa. Mantsoa, prestua eta ona. ☎646 94 49 80.



**LEITZA.** Zerrikumeak salgai. Labe-rako erretzeko edo bizirik saltzeko. Informazio gehiago telefonoz edo Whatsappez. ☎690 98 61 18.

#### OPARITZEKO



Artzain zakur eta border collie nahasketako zakurkume emea opari. ☎699 32 95 81 / 636 11 32 44.



Katakume jostariak eta goxoak etxe bila. Ama arrunt ehiztari ona. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.



Border Collie arrazako 2 urteko zakurra oparitzeko. ☎609 48 60 52.



Border collie eta setter arrazako 10 urteko zakurra opari, behar duen atentzioa eman ezin diogulako oparitu nahi dute. ☎610 07 64 47.

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,45 €
- 1.koa 5,33 €
- 2.koa 5,21 €

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,56 €
- 1.koa 5,42 €
- 2.koa 5,31 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-lean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

#### Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,49/5,59 €
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69 €

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,10/8,20 €
- 8-10 kilokoak: 8,20/8,90 €

#### ZERRI-AZIENDAK

##### Zerrikumea (19 kilo): 77 €

##### Zerri gizona 1,800 €

##### Zerramak 0,970€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua maiatzaren 24tik 31ra bitarteko prezioak)





**MOTORRAK**

**SALGAI**



Ford Focus bat salgai. Gasolina. 125 zaldi. 2018koa. 32.104 km. ☎653 70 79 09.



Mercedes B200 autoa salgai. Kotxe ona, automatikoa, garajea egondakoa. 173.000 km. 7.500 euro. ☎675 60 35 27.



Kilometro dezente dituen Audi A3 kotxea salgai. ☎659 82 66 09.



Citroen C8 salgai. Ate elektrikoak, autoaren atzealdea pertsona bat gurpil aulkian sartzeko egokituta, 5 eserleku erabilgarri. Motorra aldatua 300.000 km-ra. IAT pasatu berria. Erosteko aukera hagitz ona. 404.369 km; 2006; Diesela 130 CV. ☎666 40 72 14 / 630 70 97 64.



Keeway markako motorra salgai. Berria eta gutxi ibilia. ☎669 94 81 40.

**TAILERRAK**



**DENETARIK**

**SALEROSKETAK**



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Tximinia salgai. Prezioa negoziagarria. Neurriak; Altuera: 130. Sakonera: 110. Zabalera: 145. ☎644 01 54 98.



Lurra iraultzeko makina salgai. ☎650 21 00 95.

90 belar fardo salgai. ☎678 72 83 16.

Bigarren eskuko motosega (desbrozadora) erosi nahi dute, kondizio onean. ☎948 58 14 43.

**BERAKO UDALA**

**ALKATEAREN EBAZPENNA -HIRIGINTZA-**

Berako Udaleko alkatea, maiatzaren 7an emandako 104/2024 Ebazpenaren bitartez, 3. poligonoko 328. partzelako xehetasun-azterketa (Zalain Industrialdea 7), onetsi zuen hasiera batez. Espedientea jendaurrean izanen da hogeit lanez, dago-kion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik (2024ko maiatzaren 23an argitaratua, 106. zenbakidun N.A.O.n).

Bera, 2024-05-28  
ALKATEA,  
Aitor Elexpuru Egaña

**URTEBETETZEAK**



Gartzaingo **Enaitz** eta **Oihanek** 2 urte bete dituzte maiatzaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bana!

**SORTZEAK**

• **Oihan Labadie**, Sarakoa, aprilaren 23an.

**EZKONTZAK**

• **Antoine Dufan** eta **Julia Tchitarath**, Saran, maiatzaren 18an.

**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidad  
www.kulturkari.com

**WEB orriak**

**Landetxeak Komertzioak Gremioak...**

Ordenagailu, tablet eta mugikorretara egokitua  
Kontaktu formularioa  
Lokalizazio-mapa  
Testu eta argazki galeria  
Hizkuntzak aukeran

OROIGARRIA

**Iñaki  
GOGORTZA BILLABONA**

---

*Mila esker emandako guztiagatik  
Erakutsitako bidea segituko dugu*





BERAKO PRESOEN ALDEKO TALDEA

OROIGARRIA

**Bitorina  
ETXENIKE MENDIKOA**

---

Iruritan, 2024ko maiatzaren 15ean

*Ama arras ona,  
amatxi zoragarria,  
eta denen bihotzeko amatxi xarra.  
Zure fedean zen bezala,  
zaindu gaitzazu zerutik  
gutako bakoitza.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Iñaki  
GOGORTZA BILLABONA**

---

*Agur eta ohore Iñaki.*

Bere agur ekitaldia ekainaren 16an izanen da, Beran, Otsandan.



ESPIDOBAITA ELKARTEA

OROIGARRIA

**Iñaki  
GOGORTZA BILLABONA**

---

*Beti bezala,  
ezker abertzaleko lana eta bidea argitzen!  
Herrirako eta EHrako borrokalari kementsua!  
Izar berria EHko zeruan.*



BERAKO EH BILDU

OROIGARRIA

**Iñaki  
GOGORTZA BILLABONA**

---

*Izan zarenagatik,  
eta erakutsi diguzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.  
Mila esker.  
Besarkada bat familiari.  
Egun handirarte.*





OROIGARRIA

**Iñaki  
GOGORTZA BILLABONA**

---

*Euskaltzale nekaezin  
Batzordekide fin  
Beti ekin eta ekin  
Zure jardun patxadatsu eta argia  
Gelditzen da gurekin.*

**BORTZIRIETAKO LAGUN  
EUSKALTZALEAK**





IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es




IZARRA

HERRIEN ZURE OROIGARRI  
ANIMA ETXERAKO






TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure barna,  
gure jendea,  
gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90    www.izarratanatorio.com



## KONTATU KONTUAK



UTZITAKO ARGAZKIA

**Jugoslaviako sozialismo autogestionatua solasgai Elizondon.**

Lau hamarraldi iraun zuen Jugoslaviako proiektu sozialista autogestionatuari buruz mintzatu zen maiatzaren 24an Koldo Tellitu, *Nire Jugoslavia maitea, hain ulertu gabea* liburuaren egilea Amezti elkartean. Antolatzaileek azaldu zuten, «bere garaian jakin-min handia piztu zuen Balkanetako herrialdean gauzatutako proiektu sozialistak.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Igantzikoko eskolako ikasleek aho osasuntsuari buruz ikasiz.** Markel Telletxea dentistaren eskutik ahoko eta hortzetako garbitasunari eta prebentzioari buruzko tailerra egin zuten maiatzaren 22an Igantzikoko eskolan. 6 eta 9 urteko ikasleek parte hartu zuten, eta kontatu dutenez, «ahoa osasuntsu mantentzeko higiegi eta elikadura ohituren artean, irri ugari» egin zituzten.

## HILBERRIAK

- **Jose Graziarena Mitxelorena**, Sunbillakoa, maiatzaren 23an, 96 urte zituela.
- **Eulalia Etxeberri Etulain**, Elbetekoa, maiatzaren 25ean, 98 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Dolores Iturria Mazizior**, Arantzakoa, maiatzaren 28an, 83 urte zituela.
- **Alberto Iribarren Etxebeste**, Doneztebekoa, maiatzaren 28an, 74 urte zituela.
- **Fernando Arguedas Torrea**, Doneztebekoa, maiatzaren 28an.
- **Carmen Cabezon Breton**, Berakoa, maiatzaren 29an, 89 urte zituela.
- **Jose Juan Larralde Cerezales**, Leitzakoa, maiatzaren 29an, 74 urte zituela.
- **Iñaki Gogortza Billabona**, Berakoa, maiatzaren 30ean, 71 urte zituela.
- **Maritxu Telletxea Sagaseta**, Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 30ean, 70 urte zituela.
- **Carmen Pikabea Mitxelena**, Berakoa, ekainaren 2an, 89 urte zituela.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Igantzikoko neska-mutikoak multikiroletan.** Ikasturtean zehar asteazkenetan eta ortziraletan eskolak antolatutako multikirol saioak izan dituzte Igantzian. Aurtengo denboraldiari akabaila emateko, bizikletak hartuta, irteera egin zuten maiatzaren 31n, eta merienda ttiki batekin borobildu zuten hitzordua. Ikasturte bukaera hurbiltzen ari den seinale.



ENERITZ IRAOLA

**Aralar musika eskolako ttikien saio ederra.** Aralar musika eskolako Haur Hezkuntzako ikasleek *Baso magikoa* ikuskizuna eskaini zuten maiatzaren 31n. Leitzako Herri Aretoan iratxoak, maitagarriak, hartzak eta tximinoak aritu ziren musikarekin gozatzeko, kantuan eta dantzan. Ikasleek ere asko gozatu zuten ttikien emanaldiarekin.

Baztan Bidasoa Ehorzketak

BAZTAN  
ELIZONDO · Santiago Kalea, 79  
MALERREKA · DONEZTEBE  
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.


24 ORDU | 948 48 95 50  
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

# PLAZAN BAZAN

## HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordenatu eskuok handienetik txikienera.  
Eman handienari 1 zenbakia, eta  
txikienerari 9 zenbakia.



**ZORIONAK!**

**IBAI ETXART ATXA**

855. aldizkariko irabazlea zara!



**Plazan bazan egiteak  
BADU SARIA!**

Egin denbera-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,  
Ttipi-Ttapako Whatsapera: (0034) 744 48 43 61  
zure izen-abizenak jarrita.  
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



Laguntzailea:

ibaizabal





## BAKOITZARI BEREA



NIK BADAKIT!!

Ezagutzen al dituzu eskuko hartzen izenak? Hala bada, lotu hartz bakoitzari bere izena. batzuek izen bat baino gehiago dute.



TXIKIA

ERPURUA

NAGIA

LODIA

HANDIA

ERAKUSLEA

LUZEA

BIZKORRA

## SUDOKUA ESKURA

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak ESKURA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (E, S, K, U, R eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

A				S	K
		K			
K				U	
	A		K		
		R	E		
E	K		S		U



## INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

<http://plazanbazan.eus/>

**Ttipi Txartela**rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Kontaktatu bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61  
info@ttipi.eus | erran.eus  
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

**855** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera  
Mari Iraola Maritorea | ALMANDOZ  
Bua Txabal - Kamiseta bat  
Arantxa Etxeberria Telletxea | DONEZTEBE  
Ez Kexa - Kamiseta bat  
Mari Carmen Telletxea Urrutia | ELIZONDO  
Irrisarri Land - Sarrera bat  
Jabier Elizalde Ezkurra | ERATSUN  
Kimetz - Lote bat  
Conchi Leza Eceiza | ETXALAR  
Wow Park - Sarrera bat  
Miren Lourdes Lanz Garcia | BERA  
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat  
Norberto Iturralde Azkarraga | AZKOITIA  
Kapritxo - Kamiseta bat  
Estihu Astibia Baleztena | LEITZA  
Baga-Biga - Hiru CD  
Rafael Sanjurjo Regeli | LIZARRA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariums.com



Bi sarrera

**ONDOO TA PUNTO**  
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

**HARA BI**  
www.harabi.eus



Kamiseta bat

**BKZ ABENTURA**  
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

**SALTING IRUÑEA**  
www.saltngcenters.com



Bi sarrera

**LA RHUNE**  
www.rhune.com



Sarrera bat

**BARRUTIA 12**  
www.barrutia12.eus



Lote bat

**ANIKOTE**  
©Anikotel.eiz



Sarrera bikoitza igerilekurako

**Sartu**

[ttipi.eus/ttipi-txartela](http://ttipi.eus/ttipi-txartela)

webgunean  
eta ikusi  
abantaila guztiak!

DESKONTUAK  
ZOZKETAK  
ELKARRIZKETAK  
LAGUNTZAILEAK  
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak  
eskaintzen dizkizun  
abantailak, Ttipi Txartela  
onartzen duten denda eta  
zerbitzuetan erosiz.

**LIBURUAK**

Hiru liburu



**ekar**  
www.elkar.eus



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!